VIII. GERRIKO

IKERLAN-SARIKETA

Antolatzaileak:

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA
Kultur Elkartea

MAIZPIDE EUSKALTEGIA

LAZKAOKO UDALEKO
KULTUR BATZORDEA

Laguntzaileak:

Kultura eta Euskara Departamentua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskararen Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusia

Ordiziako Udala

Kutxa Fundazioa

Euskaldiko Kutxa

Lazkao, 1999

GERRIKO IKERLAN-SARIKETA

© Sortzailea:	Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea
Antolatzaileak:	• Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea Elosegi 16, 1.a ezker. 20210-Lazkao Tfnoa.: 943-16 02 82 • Maizpide Euskaltegia Elosegi 40-bis. 20210-Lazkao Tfnoa.: 943-88 92 31 • Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordea Euskadi Enparantza z/g. 20210-Lazkao Tfnoa.: 943-88 64 08
Koordinatzailea:	Mari Joxe Madariaga Irastortza
Zuzendari Zientifikoa:	Joxemartin Apalategi Begiristain Antropologo Soziala eta Euskal Kultura *Garaikide eta Konparatuaren* Antropologo eta Irakaslea (E.H.U.)
Euskara zuzentzailea:	Dionisio Amundarain Sarasola
Argitaratzaileak:	Goierriko Euskal Eskola, Maizpide Euskaltegia eta Lazkaoko Udala
Laguntzaileak:	Kutxa Fundazioa, Euskadiko Kutxa, Gipuzkoako Foru Diputazioa eta Ordiziako Udala
Egileak:	Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezola
Logotipoaren egilea:	Amaia Galarraga Urteaga
Inprimategia:	Lizarra inprimategia
1. argitalpena:	500 ale
I.S.B.N.:	84-922191-4-9
L.G.:	607-1999

JOSE INAZIO GERRIKO (1740-1824)

Seguran (Gipuzkoan) jaioa. Mutiloan bizi izan zen bertako apaiz. Madrilen ikasi zuen. Bere idazlana, *Cristau Doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera, euscarazco platica edo doctriñetan partituric,* bera hil ondoren argitaratu zen (1858an). Liburuaren aurkezpenean esaten denez, argitaratzeko baimena eman ahal izateko, espainierazko itzulpena eskatzen zioten...



XIX. mendeko Segurako bista.
Joxe Mari Telleria Lezetak 1985ean Lardizabal etxeko koadro bati ateratako argazkia.

SARRERA

Zortzi edizio, zortzi haurdunaldi eta zortzi erditze. Erditze bakoitiak, bikoitzak eta hirukoitzak, denetik izan dugu.

Azken erditzea bikoitza izan da. Bi haur jaioberri hauek familia handia dute inguruan: gurasoak, Pello, Marian, Antton, Iñaki eta Nerea. Osaba-izebak eta aiton-amonak ere ugariak dira eta guztiak aldamenean dituzte. Batek halakoren antza duela dio, besteak ezta pentsatu ere, bere aldekoa atera dela erabat... Guztiak ahoa zabalik dutela daude, bati begiratu eta besteari so egin.

Erditzeak gogorrak baldin badira ere, ondorengo lana, haurrak hezitzea, ez da errazagoa izaten. Guk ere aurkezpenaren ondoren ekin diogu hezitze lanari: ahal den lekurik gehienetan ezagut eta erabil ditzaten batera eta bestera banaketa egin, salgai jarri...

Gure izatearen puska direnez, galtzea galera handia litzateke, beraz, ikerlansariketa antolatuz eta aurkezten diren ikerlanak argitaratuz, gure bizimodu eta pentsakeraren berri, maila batean, jasota geratzen da, ondorengoen jakinahia asetzeko prest.

GERRIKO Ikerlan Sariketako 14. eta 15. liburukiek bi pertsonaia, bi goierritar dituzte gaitzat, bi biografia dira. Bi biografia zeharo desberdin: bata elizgizona eta idazlea izan zen eta bestea musikaria. Goierritarrak biak, bata ordiziarra eta bestea lazkaotarra:

14. *Jose Otxoa Arin (1672-1743), gipuzkera literarioaren aintzindari.*
    Pello Joxe Aranburu, Marian Bidegain, Antton Idiakez, Iñaki Rezola.

15. *Frantzisko Areso Tolosa (1869-1954), euskal etnomusikari berreskuratua.*
    Nerea Muruamendiaraz.

Pello Joxe, Marian, Antton eta Iñaki guraso zaharrak ditugu sariketan, familia ugaria dute, bost seme-alaba! Bejondeizuela!. Nerea berria dugu, guraso berria. Ea esperientzia polita izan den lehenengo hau eta animatzen zaren bigarren lanari ekitera.

Aipatu ditugu ikerlanak, aipatu ditugu egileak eta orain sariketa bera eta argitalpenak posible egin dituzten lagun eta erakundeen berri eman nahi dizuegu, lan-taldearen berri:

- Zuzendari zientifikoa:

  Joxemartin Apalategi Begiristain jn, antropologoa eta irakaslea

- Epaimahaikideak:

  Maritxu Paulus Basurko and., abokata.
  Patxi Salaberri jn., hizkuntzalaria eta irakaslea.
  Olivier Chauzu jn., Baionako Kontserbatorioan irakaslea eta kontzertista. Musikaria.

- Hizkuntza eta forma aldetiko zuzentzailea:

  Dionisio Amundarain Sarasola jn.

- Koordinatzailea:

  Mari Joxe Madariaga Irastortza and.

- Sariketako logotipoaren egilea:

  Amaia Galarraga Urteaga and.

- Sarituei emandako irudiaren egilea:

  Kepa Uribarren jn.

- Edizio honetako argitalpenen laguntzaile ekonomikoak:

  Kutxa Fundazioa
  Euskadiko Kutxa
  Ordiziako eta Lazkaoko Udalak

Eskertzekoa da, baita ere, eta nahiz eta berandu den aipatu egin nahi dugu, VII. edizioko ikerlanekin osatutako bi liburukien argitaratze gastuak ordaintzeko Gipuzkoako Foru Diputazioak, liburuak argitaratu ondoren eman zigun dirulaguntza. Aurten ere gutaz gogoratuko delakoan, aurrez eskertu nahi dugu.

Zerrenda luzea benetan, eta geroz eta laguntzaile gehiago bilatzen ari garenez, luzatuko duguna. Guztien beharra daukagu eta guztiei eskerrik asko gure proiektua aurrera ateratzen laguntzen diguzuelako.

Hasieran esan dugun bezala, VIII. edizioa osatzen duten "haur" hauek "hezitzen" badugu lana, bai guk, bai zuk, irakurle. Ahal duzun heinean zure inguruan ikerlanen berri zabaltzea zure egitekoa da.

IX. edizioa ere martxan da, berriz! Hau da hau etenik ez duen soka! Oinarriak kalean dira eta ea datorren urtean ikertzaile fin eta ixilen lanaren berri jasotzen dugun. Jasotzen ditugun ikerlanak argitaratzea, berriz ere, gure egitekoa izango da.

Eta gaurkoz besterik ez, zorionak eta eskerrik asko guztioi eta on dagizuela irakurketak.

Lazkaon, 1999ko apirilean.

ANDONI SARRIEGI ESKISABEL
GEE Kultur Elkarteko Lehendakaria

MARIAN BIDEGAIN ORMAZABAL
Maizpide Euskaltegiko Zuzendaria

JOAN FELIPE BARANDIARAN GARMENDIA
Lazkaoko Udaleko Kultur Batzordeburua

AURKIBIDEA

Sarrera 7

Laburdurak 15

Aurkezpena 17

LEHEN PARTEA: BIZITZA 19

1. Jatorria, sendia 21
2. Jose Astzensioren aita 25
3. Ordiziako bikario 27
4. Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko diputatu 33
5. Elizaren inmunitatearen defendatzaile 37
6. Azken urteak 61

BIGARREN PARTEA: ORDIZIAKO DOKTRINA 67

1. Kristau Doktrina zaharrak 69
2. Ordiziako Doktrina 73
3. Lexikoa 77
4. Perpausaren osagaiak eta Deklinabidea 87
5. Aditza 95
6. Joskera 111
7. Ondorioak 127
8. Zati hautatuak 129

Artxiboak eta Bibliografia 133

Eranskinak 137

‘ ... Euskaldunak jayo geranak zaitu bear genduke geyago gure izkuntza, bere edertasun eta garbitasuna ... Ez degu ori egiten, eta ez gera ongi akintzen gure amarekin ...’

‘ ... Ain itxutua dago jendea gure erri oetan Castillako izkerara eze leyatzen dira zeñek baño zeñek obeto itzegin, batere kontuan iduki gabe zer gauza ederra daukagun gere etxean. Sermoyak dirala, Bederatziurren, Errosario, Gurutzeko-bide eta gañerako guziak egiten eta esaten dira erderaz, batere oartu gabe zer kalte aundia egiten zayon euskerari, eta modu onetan ugaritu dira liburu erderazkuak, lurperatuaz euskerazkuak. Oh itxumen zoroa! ...

(Etxeberriko Luis (1899) eta Frantzisko Mugertza (1902) tolosarrek beren adiskide Edward Spencer Dodgson ingelesari)

LABURDURAK

AE	"Ataungo Euskara" (Joxe Migel Azurmendiren ikerlana)
ASJU	*Anuario Seminario Filología Vasca 'Julio Urquijo'*
BAP	*Boletín R.S.B. Amigos del País*
DEHA	Donostiako Seminarioko Elizbarrutiko Histori Artxiboa
DEV	EGIPVko "Diccionario Enciclopédico Vasco"
EGIPV	"Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco"
EGL	Euskaltzaindiaren "Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna"
EGLU	Euskaltzaindiaren "Euskal Gramatika. Lehen Urratsak"
EIG	'Klasikoak' saileko Mitxelenaren "Euskal Idazlan Guztiak"
FLV	*Fontes Linguae Vasconum*
GAN	Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusia
GAO	Gipuzkoako Artxibo Orokorra Tolosan
IAA	Iruñeko Apezpikutegiko Artxiboa
k.	IAAko kartoia (agiri-multzoa)
OD	Otxoa Arinen 'Ordiziako Doktrina'
OEA	Ordiziako Santa Maria parrokiako Eliz Artxiboa
or.	orrialdea, folioa
OUA	Ordiziako Udal Artxiboa
ZD	Urteagaren 'Zegamako Doktrina'
zk.	zenbakia

AURKEZPENA

Jose Otxoa Arin, Ordiziako bikarioa dugu, ziurrenik, Goierriko euskal idazlerik zaharrena. Are gehiago, gipuzkera literarioaren aitzindari ere bai; Larramendiren eta honen jarraitzaileen Hegoaldeko literaturaren 'iraultzaren' aurreko idazle klasikoa, alegia.

Horregatik, 1713an argitaratutako Kristau Doktrina, egileak berak dioenez, "Villa Franca Guipuzcoaco onetan itceguitendan moduan" idatzia, orain dela hiru mendeko goierriera (eta beronen bilakaera) ikertzeko lekuko aproposa dugu, zinez.

Hala ere, ezer gutxi idatzi da Otxoa Arini buruz: E.S. Dodgsonek 1902an egindako berrargitalpeneko iruzkinez eta J. Oregiren FLVko 1972ko artikuluko aditz-azterketaz aparte, hor-hemengo aipamen labur-laburren bat edo beste, gure goierritarraren euskara kaxkarra azpimarratzeko batez ere, eta kitto!

Lana bi partetan banatu dugu:

Lehen atalean, Jose Aszentsio Otxoa Arinen bizitza (1672-1743) arakatzen ahalegindu gara.

Bigarrenean, bere lanaren, 1713ko Kristau Doktrinaren, hizkuntz azterketa egin dugu.

Ausartuko ahal da norbait (gu baino ausartagorik), Goierriko idazle zaharrenaren lanean oinarriturik, goierrieraren (eta gipuzkeraren) bilakaera luzea bezain sakona ikertzen!

LEHEN PARTEA
BIZITZA (Ordizia, 1672-Ordizia, 1743)

Gure ikerlanaren lehen parte honetan, hainbat artxibotako agiri zaharretan oinarriturik, Otxoa Arinen bizitzako gorabehera nagusienak arakatuko ditugu.

Hemezortzigarren mendearen lehen parteko Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiaren eliz inmunitatearen aldeko borroka istilutsuaz eta Ordiziako bikarioaren parte hartze suharraz luze eta zabal jardungo dugu.

Lehen parte hau sei azpiataletan banatu dugu:

1. Jatorria, sendia
2. Jose Aszentsioren aita
3. Ordiziako bikario
4. Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko diputatu
5. Elizaren inmunitatearen defendatzaile
6. Azken urteak

1. JATORRIA, SENDIA

Jose Aszentsio Otxoa Arin Azubia, Lorentzoren eta Josefaren semea, Ordizian jaio zen. 1672ko maiatzaren 26an bataiatu zuen herriko parrokian bertako bikarioak, Antonio Lazkaibar Baldak, aitama ponteko Martin Azubia urretxuarra eta Ixabel Maria Huarte izan zirelarik[1].

Aita Lorentzo, bere bi semeren aldeko 1727ko 'Kaparetasun Frogan' azaltzen denez, Ataun San Martingo parrokian bataiatu zuten 1640-08-10ean. Bere gurasoak Migel Otxoa Arin arbizuarra, 1616-09-15ean bataiatua, eta Maria Arza lazkaotarra, Maiza oinetxekoa, 1606-10-26an bataiatua eta 1641-12-21ean Lazkaon hila eta Ataunen ehortzia, izan ziren. Lorentzoren gurasoak Ataunen ezkondu ziren, 1640-06-10ean[2].

Lorentzo, geroago ikusiko dugun bezala, 1692an Madrila joan zen lanera, eta 1697an Ataungo Arin Haundi oinetxekoen 'Kaparetasun Genealogia' eginarazi zion Gorteko errege-kronista bati. Egun Ataungo Arrondo eta Murkondo arteko Arin auzoko Arin Haundi baserrian gordetzen dute agiri eder hau[3].

---

[1] DEHA, Ordizia, P-05.

[2] OUA, Kaparetasunak, 5: Jose Aszentsioren bi senideorde, Lorentzo Antonio eta Jose Ignazio, Indietan bizi ziren 1727an, eta Ordiziako anaia bikarioaren laguntzaz 'aitoren seme' titulu estimatua erdietsi zuten.

[3] Ataungo Arin auzoko Arin Haundiko Felipe Arratibel jaunari esker aztertu ahal izan dugu dokumentu bitxi hori: 'Arin' abizena oinetxe horretatik Arbizura, Lazkaora, Ordiziara, Mutilora, Donostiara, Errenteriara, Ameriketara ... hedatu zen. 'Otxoa' gerora erantsi bide zitzaion, 1340ko Saladoko gudu sonatuan parte hartu zuen Juan Otxoa Arin mitikoarekin genealogi lotura egin nahian edo.

Deituraren aldaera ezberdinak azaltzen dira agiri zaharretan: 'Ochoa de Arin', 'de Ochoa Arin', 'Ochoa Arin', 'Ochoarin'. Baita 'Arin' edota 'Ochoa' soilik ere. Adibidez, 1727ko aipatu agirian hiru senideren izen-abizenak errenkadan honela azaltzen dira: "Joseph Ochoa de Arin ... Lorenzo Antonio Ochoa ... Joseph Ignacio Arin ...".

Garaiotako zenbait Otxoa Arindar: Pedro Otxoa Arin eta Jordana Huarte, Jose Aszentsioren berraitona-amonak, eta hauen seme Joan (Arbizu, 1600-11-29) (1727ko 'Kaparetasun Frogan'). Migel, Martin Arin 'El Aragonés' eta Isabela Etxeberriaren semea (1606-06-18). Pedro, Joan Arin

Ama, Josefa Azubia Aldabalde, Estebanen eta Urtsularen alaba, Ordizian bataiatu zuten 1643-03-26an[4].

Lorentzo eta Josefa, 20 eta 18 urteko, Ordizian ezkondu ziren 1661-04-24an, hirugarren graduko ahaidetasun-eragozpenagatiko baimena erdietsirik[(5)].

Sei seme-alaba izan zituzten: Josefa Teresa (1662-03-20), Segurako komentuko serora izan zen, 'Sor Josefa Teresa de San Gabriel' izena harturik; Teresa (1665-04-29); Klara (1668-05-18); Ana Maria (1670-07-26); Jose Aszentsio, eta Bernarda Ignazia (1673-08-22)[6].

Josefa Azubia, hogeita hamar urteko, 1673-08-26an hil zen, Ordizian; azken haurraz erditu eta lau egunera.

Lehen emaztea itzali eta urte eta erdira, 1675-01-13an, Lorentzo bigarren aldiz ezkondu zen, Maria Josefa Ezeiza Gorostegirekin.

Maria Josefa Ordizian bataiatu zuten 1649-02-04an, eta herri berean hil zen 1736-05-14an. Bere gurasoak Domingo Lopez Ezeiza legorretarra, Tolosako Ezeiza oinetxekoa, 1621-08-08an bataiatua eta 1659-05-12an hila, eta Katalina Perez Gorostegi, Mutiloko Gorostegi oinetxekoa, 1619-11-16an bataiatua, izan ziren[7].

Bigarren ezkontza honetatik hamar seme-alaba izan zituzten: Maria Margarita (1676-07-20an bataiatua, eta 1703-03-01ean hila); Lorentzo Antonio (1677-09-06. Indietan hil zen, 1733-11-12an); Luisa (1678-12-06. Gerora, 1705-02-11n, Jose Aszentsio bikarioak 'Luisa' izena ezabatu eta 'Maria Manuela' eza-

---

eta Maria Perezen semea (1607-03-01). Magdalena, Joan Otxoa Arin eta Magdalena Dorronsororen alaba (1607-04-01). Migel, Joan Arin eta Maria Joana Bergaretxeren semea (1608-11-03). Sebastian, Joan Arinen semea (1609). Felipe, Martin Arin eta Isabel Aldasororen semea (1613). Martin Arin eta Mariana Astigarraga (1635-03-18an ezkonduak) eta hauen seme Lorentzo (1638-12-15) ... (Guztiak: DEHA, Ataun San Martin, A, 1, 2, 1602-1641 urteak). Joan Otxoa Arin ataundarrak, 1649an, Itsasondoko parrokiako erretaula nagusia eta sagrarioa taxutu, margotu eta urreztatu zituen (IAA, 402. k., 19. zk.); Ataun San Martingo parrokiako sagrarioa ere urreztatu zuen, eta 1658 aldera hil zen, erretaula nagusian lanean ari zela; bere haurren tutorea, Pedro Arteaga, auzitan ibili zen San Martingo Kabildoarekin (IAA, 1044. k., 12. zk. eta GAO, PT, IPT, 1865. ´paper-sorta, 69-73 orr.; halaber, Cendoya 1992: 99, 171 eta 241 orr.). Mateo Otxoa Arin kapitainak eta Gabriel Otxoa Arin alferizak, 1665ean, kaperautza bat fundatu zuten, urtero mezak ateratzeko 50 dukateko dirutza ezarriz. Kaperautza hau Joan Otxoa Arin Lazkanori, Joanen eta Isabelen seme bakarrari, Lazkaoko eta Mutiloko benefiziatuari zegokion, eta 1704 aldera Errenteriako Sebastian Otxoa Arin abokatuarekin kaperautzaren jabetzari buruzko auzitan ibili zen (GAO, CO, MEJ, 1708 eta 1687. paper-sortak, eta OEA). Isabel Otxoarin, Ordiziako Santa Maria parrokiako seroraburua, 1730-03-03an hil zen (DEHA, Ordizia, P-05 eta IAA, 1534. k., 9. zk.).

[4] DEHA, Ordizia, P-05.

[5] DEHA, Ordizia, P-05.

[6] DEHA, Ordizia, P-05.

[7] OUA, Kaparetasunak, 5.

rri zuen agiriaren alboan. Amaren heriotza-agirian ere horrela, 'Maria Manuela', azaltzen da); Frantziska Antonia (1680-06-18) [8]; Ana Maria (1681-09-09); Domingo Ignazio (1683-08-15); Domingo Joakin (1685-02-07); Josefa Rafaela (1686-10-24. Hamabost urterekin hil zen, 1702-09-26an, Ordizian); Katalina Rosa (1688-05-12), eta Jose Ignazio (1689-12-22. Ordiziako parrokiako benefizio erdiaren jabe, hots, sakristau izan zen 1708-1712 bitartean [9]. Indietara joan zen, aitaren eta Lorentzo Antonio anaiaren ondotik [10]) [11].

[8] 1760an Lazkaoko Komendradi baserriaren inguruko hiru lursail Ordiziako parrokiari eman zizkion, urtero lau meza diakonodun ematearen alde. Ondasunok Desamortizazio-garaian ez ziren desjabetuak izan, eta 1909an Ordiziako elizak bere izenean erregistratu zituen Tolosako Epaitegian, bake-bidezko izapidetzaz (Espediente osoa OEAn).

[9] Ignazio Baztarrika, sakristau zaharra hil zenean, alkateak eta bikarioak (Jose Aszentsio anaiordeak, alegia) Jose Ignazio aurkeztu zuten hutsik geratutako kargurako eta Iruñeko Apezpikutegiak izendatu zuen (IAA, 1219. k., 13. zk.). Halere, 1712an utzi egin behar izan zion karguari, apaiz ez zelako agian. Eta Martin Abaria apaiz benefiziatua hautatu zuten ordezko (IAA, 1719. k., 14. zk.).

[10] OUA, Kaparetasunak, 5.

[11] DEHA, Ordizia, P-05, eta OUA, Kaparetasunak, 5.

2. JOSE ASZENTSIOREN AITA

Lorentzo Otxoa Arin Ordiziako eskribau izan zen hogeita hamaika urtean, 1661-1692 bitartean [1]. Bere bizitzako gorabehera gehienak, haatik, garai beretsuko (1667-1699) eta herri bereko beste eskribau baten, Lorentzo Senpertegiren, agirietan jasotzen dira.

Agirion arabera, Lorentzo Otxoa Arin Ordiziako alkate eta 'Vera Cruz' kofradiako buru izan zen 1663an eta 1697an; baita Batzar Nagusietan Ordiziako eta Beasaingo diputatu ere (1671n); eta hainbat baserritako errentak jasotzeko ardura ere izan zuen: 1671n, adibidez, Segurako eta Zegamako Gorospe, Aitamarren, Arrabidia Goikoa, Arrabiola Azpikoa, Olaberria auzoko Loidiola ... baserrietako zorrak kobratzen ibili zen, alkatearen botereaz [2]. Bestalde, Buenabentura Isasaga aberatsak, Indietara abiatu zenean, Lorentzoren eta Martin Alkainen [3] eskuetan utzi zuen bere ondasunak zaintzeko ardura. Ardura honek auzi luze eta korapilatsua sorrarazi zuen bion artean, eta, azkenean, 1672an, Martin Alkainek hogeita bost bat mila errealeko zorra ordaindu zion Lorentzo Otxoa Arini [4].

Lorentzo Otxoa Arin, 1692an, Ordiziako eskribautzari utzi, testamentua egiteko boterea emazteari eta Jose Aszentsio semeari eman eta Madrila joan zen.

---

[1] GAO, PT, IPT, 2925 (1661-1665 urteetako paper-sortak), 2926 (1666-1674), 2927 (1675-1682) eta 2928 (1683-1692).

[2] GAO, PT, IPT, 2934. paper-sorta, 36-37 orr.

[3] Martin Alkainek (Jose Ignazio Gerrikoren, Mutiloko apaiz benefiziatu idazlearen herenamonaren anaiak) XVII. mendearen erdialdera Mutiloan sortutako kaperautza kolatiboa hutsik geratu zen eta 1766-05-22an Gerrikoren eskuetara pasa zen (IAA, 2015. k., 6. zk. Halaber, Aranburu eta beste batzuk 1995: 23. or.). Alkainen Ordiziako beste bi kaperautza Jose Felix Amundarainek, Mutiloko bikario idazleak, eskuratzen ditu 1778an eta 1780an (IAA, 2308. k., 10. zk. eta 2322. k., 3. zk. Halaber, Aranburu eta beste batzuk 1998: 32. or.). Goierriko idazle klasiko bion bizitzan azaltzen zaizkigun Martin Alkain eta Otxoa Arinenekoa, ziurrenik, pertsona bera dira.

[4] GAO, PT, IPT, 2934. paper-sorta, 18-88, 94 eta 118. orr.

Gortean zazpi urtean Karlos II.a erregearen idazkari izan zen. 1699ko ekainean, Cádizko portuan Indietarantz itsasoratu zen, Lorentzo Antonio, hogeita bat urteko semearekin batera, Hondurasetako Atitan (Atitlan?) hiriburuko gobernadorekarguan jardutera. Baina, hara iritsi eta berehala hil zen: 1699-12-08an ehortzi zuten Oaxacan. Heriotzaren berri izatean hileta-elizkizunak egin zizkioten Ordizian, eta Jose Aszentsio seme bikarioak heriotza-agiri hau utzi zigun:

> " ... Jose Ochoa de Arin ... Certifico que D. Lorenzo Ochoa de Arin mi padre, Secretario de Su Magestad, partió de ella (Madrildik, alegia) en compañia de D. Lorenzo Antonio Ochoa de Arin su hijo, y mi hermano legitimo por Junio del año de mil seiscientos noventa y nuebe para Cadiz a embarcarse, como en efecto se embarcó para Indias al uso y exercicio del Govierno de la Ciudad Atitan en la Provincia de Onduras, en que le honrró el Señor Rey Carlos Segundo (que goza de Dios), y el ultimo mes de Maio rezibí carta del expresado D. Lorenzo Antonio Ochoa de Arin mi hermano, su fecha en la Ciudad de Oaxaca en Indias de veinte y quatro de Henero del año proximo passado de mil y setecientos, dandome noticia de que el dicho D. Lorenzo Ochoa de Arin su padre y myo, haviendo enfermado y rezibido los Santos Sacramentos de la Penitencia, Eucharystia, y Extremauncion falleció en la dicha Ciudad de Oaxaca, y fue enterrado su cadaver en el Convento de los Religiosos del Carmen Descalzo de ella el dia ocho de Diciembre del referido año de mil seiscientos y noventa y nuebe. Y con esta noticia yo el Vicario hice en esta dicha Iglesia Parroquial en sufragio del Alma de dicho mi padre los Oficios, y Funerarias ..."[5] .

[5] DEHA, Ordizia, P-05.

3. ORDIZIAKO BIKARIO (1697-1743)

Jose Otxoa Arin 1696an, artean apaiz egiteko, Itsasondoko benefiziatu zen. Ordiziako bikarioa, Antonio Lazkaibar Balda, 1696-02-26an hiltzean, herriko elizaren arduradunek (udaleko alkateak eta eliz kabildoaren ordezkariek), 1696-03-22an, Pedro Ezeiza benefiziatua aurkeztu zuten ordezko; eta Iruñeko apezpikutegiak halaxe izendatu[1]. Baina, handik gutxira, bikario berriak, gaixo antzean zebilelako aitzakian, utzi egin zion karguari. Eliz arduradunek, oraingoan, Jose Otxoa Arin apaiz berria aurkeztu zuten, eta Iruñeak onartu egin zuen aldaketa. Apezpikutegiko fiskalak, ordea, iruzurra sumatu zuen Ordiziako elizaren arduradunen jokabidean eta auzitara eraman zituen: Ezeiza benefiziatuaren hautaketa eta segidako erialdia aitzakia hutsa baino ez bide zen izan, bitartean Otxoa Arinek, artean gazteegi, apaiz egin ahal izateko aukera izan zezan eta horrela bikario-kargua eskatu. Ohiko probak eta azterketak ('ad curam animarum') egin eta gainditu ostean, 1696ko ekainaren 6an egin zen apaiz Jose Otxoa Arin, Iruñeko Toribio Mier apezpikuaren aurrean eta honen jauregiko kaperan.

---

1 IAA, 1353. k., 13. zk.

'Benefiziatua' egungo 'koadjutorearekin' pareka dezakegu, hots, parrokiako bikarioaren agindupeko apaizarekin. Dena den, garai haietan, 'benefiziatu' izateko ez zegoen apaiz izan beharrik.

'Parrokoei' leku batzuetan 'erretore' esaten zitzaien, eta beste batzuetan 'bikario', Ordizian kasu.

Elizaren Zuzenbide zaharrean eliza baten sortzaileek zenbait betebehar eta eskubide zuten. 'Patronatu' deituriko sistema honetan elizaren 'patronu' edo zaindarien eskubideetako bat beren ardurapeko elizako postuetarako gizon egokiak apezpikuari 'aurkeztekoa' zen. Gipuzkoan hiru motatako eliz patronatuak zeuden: erregearenak; jaun edo zaldun partikularrenak (Lazkaoko Jauna, adibidez, Goierriko eliza askotako patronu zen: Zumarraga, Ataun, Lazkao, Olaberria, Idiazabal, Mutilokoa). Dena den, Gipuzkoako parrokia gehienak herriaren eskumenekoak ziren. Eta herritarren ordezkariek (udal eta eliz ordezkariek) herriko elizako apaizak, bikarioa zein benefiziatuak, apezpikuari 'aurkezteko' eskubidea zuten, honek 'izendatzen' zituelarik. 'Aurkezpen' honetan zenbait eskubide eta lehentasun oso kontuan izaten ziren: apaiza herritarra izatea, etab.

Gipuzkoako eliza zaharrari buruzko informazioa: Larramendi 1969: 121-125 orr. eta Gorosabel 1972: II, 361-600 orr.

Fiskalaren aurkako auzia irabazirik, 1697ko maiatzaren 29an izendatu zuen Iruñeak Ordiziako Santa Maria parrokiako bikario [2]. Eta kargu horretan heriotzara arte, 1743 arte, iraun zuen, tartean, urte askoan, herritik kanpora ibili bazen ere.

Bikario kargua hartu eta oso gutxira, 1697-06-20an, idatzi zuen bere lehen sakramentu-partida:

> "Digo yo Don Joseph Ochoa de Arin Vicario de la Parroquial de la Villa de Villafranca que tomé posesion de la dicha Vicaria a veinte y nuebe de Mayo del año de mil y seiscientos, y noventa y siete, y prometo de hasentar como lo hacian mis predecesores, en este libro, los que se casaren, y velaren; y firmé de mi nombre ..." [3].

Berrogeita sei urtean izan zen Ordiziako bikario. Eliz kabildoa bikarioak eta lauzpabost benefiziatuk osatzen zuten. Otxoa Arinen garaikoak dira Pedro Arrue, Ignazio Baztarrika, Frantzisko Aiesta, Martin Zalbaio, Martin Abaria, Juan Ignazio Etxeberria, Jose Andres Lizarraga, Jose Ignazio Senpertegi, Antonio Aldabalde, Pedro Ezeiza, Juan Jose Ipenza benefiziatuak; baita Jose Ignazio Otxoa Arin sakristaua, bikarioaren anaia, ere. Itxura guztien arabera, ondo konpondu ziren elkarren artean, ordezkapenak eginez, hainbat auzitan elkarri lagunduz ...

1703an udalak salatu egin zituen apaizak Iruñeko apezpikutegiaren aurrean: ez zituztela igandeetako jai egunetako meza nagusiak ematen edota, beren nahira, aldatu egiten zutela ordutegia; bezperatara ere ez zirela azaltzen eta irakurtzen ere ez zekien mutiko bat bidaltzen zutela ordezko; urtebetetzeko mezak ere ez zituztela diakonoarekin eta subdiakonoarekin ematen, elizaren fundatzaileen aginduari muzin eginez ... Apaizek, noiz edo noiz horrelakorik gertatu bazen ere, ezinbestean izan zela ihardetsi zuten. Iruñeak ez zuen auzi honi buruzko epairik eman [4].

1706-09-19an Ordiziako Santa Maria parrokiako 'Konkordia' hitzarmena zertu zen, XV. eta XVII. mendeetako hitzarmen zaharrak berrituz, eguneratuz eta elizaren inguruko partaide guztien (udal eta eliz kabildoen, patronuen, bikarioaren, benefiziatuen) egitekoak, eskubideak eta betebeharrak zehaztuz eta xedatuz. Hitzarmenean, elizaren aldetik, Otxoa Arin bikarioak eta Pedro Arrue eta Ignazio Baztarrika benefiziatuek eta, udalaren izenean, Joan Raimundo Vozmendiano Arteaga Lazkanok, Jose Zabalak eta Lorentzo Lasa Aristizabalek

---

[2] IAA, 1353. k., 13. zk. eta DEHA, Ordizia, P-05. Bikario egin zuten urtean, bere aita Lorentzo zen Ordiziako alkate eta eliz arduradun.

[3] DEHA, Ordizia, P-05.

[4] IAA, 1368. k., 6. zk.

hartu zuten parte. Ordiziako parrokiak bazuen 1412az gero Iruñeko Lancelot apezpikuaren 'Carta Partida', latinez idatzitako hitzarmena. Geroago, 1645ean, hitzarmen zaharra berritu egin zen: XVII. mendeko hitzarmen berrituan Ordizian hamasei benefizio zirela ageri da. Benefizio erdiaren jabe zen sakristauaren egitekoetako bat hiribilduaren harresiez kanpo hildakoen gorpuak parrokiara eramatea zen[5]. 1706ko hitzarmen berrituan, aurreko biak onartzeaz gain, hainbat gairi buruzko xedapenak ezarri ziren: Ordiziako patronatuaren egitekoak zehazteko eta aurrerantzean sor zitezkeen arazoak, norgehiagokak eta auziak ekiditeko, hiru patronu izango zituen elizak: bikarioa, benefiziatu osoa eta alkatea. Hauek hiruna hautagai 'aurkeztuko' zioten Iruñeko apezpikuari. Eta honek, hautagaien dohainak azterturik, egokiena izendatuko zuen[6]. Aurrerantzean, bikarioak ez ezik, benefiziatu osoak ere aitor-entzule izan beharko zuen; eta horretarako, apezpikuak moraleko azterketa egingo zien hautagaiei [7] [8].Ordiziako 'Konkordia' hitzarmen hau eredu bihurtu nahi izan zen herrialdeko beste parrokietarako; horrela, Batzar Nagusiek, 1708ko Ordiziako batzarrean, beste herrietan ere hitzarmen zaharrak eguneratzeko deia egin zuten[9].

Jose Otxoa Arin 1714-1722 bitartean parrokiatik kanpo ibili zen, geroago aipatuko ditugun arrazoiengatik[10]. Bitarte horretan ezkontzak egiteko baimena

---

[5] Garai haietan Ordizia hiribildu harresitua zen; eta egun Lazkaoko diren hainbat baserri ere: Maizak, Maizaundi, Iztuetak, Ibarralaburu, Izagirrek, Intxaurrondo, Komendradi ... bere eskumenean zituen. Egoera honek hainbat istilu sorrarazi zuen bi herrien artean, udalen zein elizen artean (besteak beste, EGIPVko DEV XXXIV, 278-280 orr.).

Ikus, halaber, 1. ataleko 8. oharra: Frantziska Antonia Otxoa Arinek Komendradi inguruko lursailak Ordiziako parrokiari utzi zizkion.

[6] Ikus 1. oharra.

[7] Gorosabel 1972: II, 514-521 orr.: " ... Parece ser que en lo antiguo los beneficiados de las iglesias de esta provincia no tenían obligación de ser confesores, por considerarse, seguramente, semejante ministerio propio del cura párroco ...". Hauxe izan zen denbora luzean herritarren (eta Batzar Nagusien) eskabideetako bat, aitor-entzuleen premia gorria baitzegoen.

[8] IAA, 1416. k., 1. zk.: 1412ko, 1645eko eta 1706ko konkordia edo hitzarmenak.

[9] Egaña 1992: 362. or.: "Conforme a estos principios, y con deseo de evitar los inconvenientes y gastos que ocasionaba la multiplicidad de votos en los pueblos donde los vecinos proveen dichos beneficios y por cortar el abuso de admitirse servientes forasteros ... acordó la Junta General de Villafranca de 1708 que las citadas Repúblicas procurasen ajustar sus Concordias, reduciendo a un número corto y fijo de votantes la facultad de la presentación para que de esta suerte sea menos embarazosa y expuesta a solicitudes e inteligencias, y menos las ocasiones de gastos y disputas ...". Halaber, Larramendi 1969: 121-125 orr. eta Gorosabel 1972: II, 514-521 orr.: Batzar Nagusiak aspalditik ari ziren elizaren antolamenduaren berrikuntza eskatzen: 1678an, 1707an, 1750ean, 1779an ... XVIII. mendearen azken herenean 'Plan benefizial' izeneko berrikuntzak egin ziren eliza asko eta askotan. Gerrikoren garaian Mutiloan burututakoa eredu bihurtu zen herrialdeko eliza askotarako (Aranburu eta beste batzuk 1995: 23-24 orr.).

[10] 1714an apezpikuaren artzain-bisitaldia izan zuten Ordizian. 1714-03-27koa da Otxoa Arinen lehen apaiz aldi honetako azken sakramentu-agiria. Eta bikarioak berriro sinatutako hurrena 1722-08-27ko bataio-agiria (DEHA, Ordizia, P-06). 1726an beste apezpiku-bisitaldi bat izan zuten.

eta boterea Martin Zalbaio benefiziatuari eman zizkion [11]. Bikario-ordezko, berriz, Frantzisko Aiesta jarri zuen. Baina benefiziatu honek aitor-entzule izateko baimenik ez eta udalak kargutik ken zezala eskatu zion Iruñeko apezpikuari. Kabildo osoa, Otxoa Arin eta Pedro Arrue buru zituela, Aiestaren alde atera zen, aitortzak egiteko lana bere gain hartuz. Iruñeak, haatik, 1717an udalari eman zion arrazoia, Aiestaren ordez, apaiz-gaitasun osoa zuen besteren bat hautatzeko eskatuz [12].

Otxoa Arin bikarioak zorrotz defendatu zituen bere parrokiaren eskubideak. Horietako bat 'Jus seppulturae' ('Hilobi-eskubidea') zen. Eskubide honi buruzko eztabaida eta auzi ugari azaltzen dira bikarioak idatzitako heriotza-agirietan: Antonia Zeberio serora, jatorriz ordiziarra, Lazkaoko karmeldarren komentuko hilerrian ehortzi zutenean, Otxoa Arinek 'Jus seppulturae' exijitu zion karmeldarren buruari (hamabi dukat: sei, hileta-elizkizunengatik eta beste sei, ehorzketako prozesio edo segizioagatik). Iruñeko apezpikutegiak eta Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiaren Kongregazioak Ordiziako elizari eman zioten arrazoi [13]. Auzi gehiago ere izan zituen Lazkaoko karmeldarren priorearekin. Baita Beasaingo kabildoarekin ere, Ordiziako parrokiako heriotza-partida luzeetan agertzen denez.

Otxoa Arinen garaian bazen Ordizian (eta herri gehiagotan: Ataunen ...) 'Sancta Vera Cruz' izeneko Kofradia, 1609an sortua eta 1746 arte iraun zuena. Lorentzok 1692an egin zituen Kofradiako kide bere hiru seme-alaba: Jose Aszentsio, Lorentzo Antonio eta Maria Manuela. Kofradiak, jakina, helburu erlijiosoak zituen, baina arduradunak sekularrak izan ohi ziren; urteko alkatea, normalean. Jose Aszentsioren aita bera ere izan zen Kofradiako buru (1663an, 1697an ...). Lazkaoko Jauna ere bai, urte askotan. Kofradiaren egiteko batzuk hauek ziren: Corpus eguneko eta biharamuneko eta Gurutze Santuaren egunetako (maiatzaren hiruko eta irailaren hamalauko) prozesioak antolatzea eta bertan erretzen zen argizaria ordaintzea; Corpus ondoko igandean, herriko haserreak konponbidetzea; Ostegun eta Ostiral Santuko elizkizunak antolatzea; Kofradiako kideen hiletetako gastuak ordaintzea ... Hiru diru-iturri zituen: sarrerakoa, urterokoa eta hiletetakoa [14].

[11] DEHA, Ordizia, P-05: " ... doi comision a Don Martin de Zalbajo para que en mi ausencia y enfermedades hasista a los matrimonios que se contrajeren en esta Parroquia ... asi bien los asientos en este libro ...".

[12] IAA, 1416. k., 1. zk.: Aiestak aitor-entzule izateko obligaziorik ez duela dio; eginkizun hori benefiziatu titularrari dagokiola; bera ordezko baino ez dela. Otxoa Arinek eta Arruek: " ... continua enfermedad habitual de D. Pedro de Eceiza ..." (ikus azpiatal honen hasieran) eta " ... y la ausencia también continua de D. Juan Jose de Ipenza ... " aipatzen dute 1716-01-06ko Aiestaren aldeko txostenean.

13 IAA, 1532.k., 21. zk.: 1729ko epaia. DEHA, Ordizia, P-05: Otxoa Arinen hiru orrialdeko heriotza-partida. Halaber, DEHA, GAN, A, 3, b, 281-286 orr.

14 OUA, 'Cofradia de la Sancta Vera Cruz, 1609-1746 ...' liburutxoa.

Ordiziako bikarioaren sakramentu-partidak (heriotzakoak, batez ere) txit bereziak dira: Agiriotako ohiko estilo labur, lakonikoa albora lagata, Otxoa Arinen heriotza-agiri asko eta asko oso luzeak dira, hildakoen (handikien, atzerrikoen ...) bizitzako gorabeherez, hainbat datu eta dataz oparo hornituak. Garai haietako zenbait pertsonaia ospetsuren 'biografiak' dirudite. Bataio eta ezkontza-agirietan ere azaltzen da makina bat ñabardura eta zertzelada bitxi, orduko Ordiziaren eta ordiziarren historia hobeto ezagutu ahal izateko lagungarri polit izan daitezkeenak. Beharbada, arrazoi honengatik ezarri bide zuen Jose Ignazio Senpertegik Jose Aszentsio Otxoa Arinen heriotza-agirian: "sugeto de mucha literatura" esaldia.

Otxoa Arinen garaiko elizako obrak: 1656an egin zuen Bernabé Corderok aldare nagusiko erretaula barrokoa. 1720-1722 bitartean Pedro Quintanak aldatu eta berritu egin zituen erretaula nagusia eta albokoak, bere semeak, Aszentsio Apaolazak, Jazinto Istak eta Lorentzo Antonio Baztarrikak lagundurik. Oñatiko Domingo Zumaldek Andre Mariaren eta Santa Anaren irudiak egin zituen. Mateo Arias donostiar zilarginak Andre Mariaren koroa egin zuen. Erretaulen urreztatzea, berriz, Agustin Condek burutu zuen, Jose Pérez eta Felipe Caraiaren laguntzaz [15].

[15] Cendoya 1992: 206-207, 278-280 orr.

4. GIPUZKOAKO ARTZAPEZ BARRUTI NAGUSIKO DIPUTATU

Otxoa Arinen garaian Hego Euskal Herriko eliza bi barrutitan banatua zegoen: Iruñekoa, Nafarroa eta Gipuzkoa gehiena hartzen zituena, eta Kalagorrikoa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren mendebaldea, Leintz aldea, hartzen zituena. (Banaketa hau erromatarren garaiko euskal leinuen eremu geografikoaren araberakoa zen, gutxi gorabehera). Ordizia, beraz, Iruñeko apezpiku-barrutikoa zen.

Iruñeko apezpikuaren menpeko Gipuzkoa bi Artzapez Barrutitan banatzen zen: Artzapez Barruti Nagusiak (GANek) herrialde gehiena hartzen zuen, eta 'Korriedo' edo bailaratan banatua zegoen. Hiru motatako korriedoak zeuden: Osoak (lau botu), erdiak (bi botu) eta laurdenak (botu bat). Ordiziako korriedo erdia Ataunek, Lazkaok, Olaberriak (Lazkaoko Jaunaren eskumenekoak hiurak), Garinek, Beasainek eta Ordiziak berak osatzen zuten. 1675-10-26ko Tolosako bileran xedatu zen korriedoen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko araudia, eta Erromak 1678-02-09an onetsi zuen. Artzapez Barrutiko apaizen (bikario edo erretore eta benefiziatuen) ordezkariak, diputatuak, unean bitan bildu ohi ziren Kongregazio edo Batzarrean, Tolosan zein Azpeitian, beren arazoak eztabaidatu eta konpontzeko. Diputatu Nagusia eta Idazkaria hautatzen zituzten, bileratik bilerara bitarteko auziak izapidetzeko, apaizen arteko koordinatzaile izateko eta Apezpikutegiarekiko harremanak bideratzeko. Unean uneko arazoak sortzean, Aparteko Batzarrak ere egiten zituzten.

Artzapez Barruti Txikia Hondarribia aldeak osatzen zuen. Oñatik bere Bikariotza zuen, eta Eibar aldea, berriz, Durangoko Artzapez Barrutikoa zen [1].

---

[1] Larramendi 1969: 121-125 orr.: " ... En Guipúzcoa tienen jurisdicción dos señores obispos, y son de Calahorra y de Pamplona. Mejor fuera que Guipúzcoa tuviese su obispo y particular ... Los lugares que tocan al de Calahorra son solamente Eibar, Elgoibar, Vergara, Plasencia, Oñate, Elgueta, Arechabaleta, Escoriaza y Salinas y las anteiglesias de Léniz. Toda la marina y el resto de Guipúzcoa hasta Irún son del obispado de Pamplona. Ninguno de los obispos tienen diezmos ni parte de ellos en Guipúzcoa ... El clero que pertenece al obispado de Pamplona está dividido en dos arciprestazgos, mayor y menor. El mayor comprende toda la marina, desde Motrico hasta San Sebastián inclusive, y desde Segura por una parte y por otra desde Legazpia hasta Astigarraga

Jose Otxoa Arin, 1700etik aurrera, urte askotan izan zen GANeko Kongregazioko diputatu. Normalean, Ordiziako korriedo erdiko ordezkaria parrokia horretako apaizen bat izaten zen; baina batzuetan, Lazkaoko Jaunaren eraginaz edo, beste parrokiek ere bidali zuten beren diputatua. Izan ere, Lazkaoko Jauna baitzen, goraxeago aipatu dugun bezala, Ataun, Lazkao eta Olaberriako parrokietako 'patronu'. Halere, GANeko Kongregazioak Ordiziak hautetsia lehenetsi zuen beti, bigarren ordezkaria, ez-ohikoa, bileretatik egotziz. Iruñeko apezpikuak ere Ordiziari aitortu zion legezko lehentasuna [2].

1700-1740 bitarteko Ordiziako korriedo erdiko diputatuak aipatuko ditugu jarraian:

1700-04-27an Tolosan, 1700-10-19an Azpeitian, 1701-01-10ean Tolosan eta 1701-04-13an Azpeitian: Otxoa Arin bikarioa. Azken bilera horretan Ordiziako bikarioak lau dukat jaso zituen, GANen izenean apezpikuaren Ataungo artzain-bisitaldian izateagatik.

1702-1707 bitartean: Pedro Arrue benefiziatua.

1708-03-06an Tolosan eta 1708-09-13an Hernanin: Otxoa Arin.

1709an ez zen Ordiziako ordezkaririk izan.

1710-04-29an Tolosan, 1710-10-01ean Azpeitian, 1711-04-21ean Azpeitian, 1712-04-23an Tolosan, 1713-04-26an Hernanin eta 1714-02-23an Azpeitian: Otxoa Arin. Azken bilera horretara Ataungo Andres Maiza bikarioa ere azaldu zen, baina batzarkideek, istilu ugariren artean, diputatu-boterea ukatu egin zioten, eta bileratik egotzi.

1715ean ez zen Ordiziako ordezkaririk izan.

1716-04-29an Tolosan: Otxoa Arin eta Beasaingo Migel Arrue.

1716-07-15ean Tolosan eta 1717-07-28an Azpeitian: Ordiziako Pedro Arrue benefiziatua.

1718-04-27an Tolosan: Ordiziako Antonio Aldabalde eta Beasaingo Migel Arrue benefiziatuak.

---

inclusive ... El menor comprende solamente a Fuenterrabia, Irún, Oyarzun, Pasaje de allende (Jaizkibel), Lezo, Rentería. El arciprestazgo mayor tiene su diputado general y secretario, que son nombrados en congregación plena por los congregantes junteros y poderhabientes de todos los cabildos eclesiásticos del arciprestazgo. El diputado es el que despacha en nombre del clero todo lo conducente a su buen gobierno ... Tiene junta o congregación regular todos los años, ya en Tolosa, ya en Azpeitia, y también congregaciones extraordinarias en otros lugares, según las necesidades que ocurren, más o menos urgentes. En ellas examinan sus dependencias, memoriales, pretensiones, quejas ... se reparten los gastos, se toman las cuentas, etc. ... Este clero y su congregación la componen solamente los curas y beneficiados en propiedad ...".

[2] Besteak beste, DEHA, GAN, A, 3, b, 155-170 orr.: 1714ko Azpeitiko Batzarreko Aktan adierazten denez, Ordiziak zuen lehentasun historikoa, 'por sentencia arbitraria' ebatzi eta erdietsia.

1719-04-26an Azpeitian: Martin Abaria benefiziatua.

1720-04-20an Tolosan, 1721-04-29an Azpeitian eta 1722-04-29an Tolosan: Otxoa Arin.

1723-04-28an Azpeitian eta 1724-04-29an Tolosan: Joan Ignazio Etxeberria benefiziatua.

1725-04-29an Azpeitian: Martin Abaria benefiziatua.

1726-05-08an Tolosan, 1727-04-23an Azpeitian eta 1728-04-28an Tolosan: Joan Ignazio Etxeberria. Azken bilera horretan Otxoa Arin ere izan zen, baina Bozueko diputatu legez[3].

1729-05-05ean Azpeitian, 1730-05-26an Tolosan, 1731-11-15ean Hernanin, 1732-04-29an Tolosan eta 1732-10-08an Hernanin: Otxoa Arin.

1733-04-02an Azpeitian: Joan Ignazio Etxeberria benefiziatua.

1734-05-05ean Tolosan: Otxoa Arin eta Joan Ignazio Etxeberria.

1735-04-27an Azpeitian, 1736-04-24an Tolosan eta 1736-09-04an ere Tolosan: Otxoa Arin.

1737-05-07an Azpeitian: Martin Abaria benefiziatua.

1738-04-29an Tolosan, 1739-04-28an Azpeitian eta 1740-04-27an Tolosan: Otxoa Arin[4].

---

[3] Bozueko korriedo osoa Amezketak, Abaltzisketak, Baliarrainek, Gaintzak, Zaldibiak, Aramak, Altzagak, Itsasondok, Legorretak, Ikaztegietak, Alegiak, Altzo Goikoak, Altzo Behekoak, Ugartek eta Bedaiok osatzen zuten. Otxoa Arin, Ordiziako bikarioa, Itsasondoko benefiziatu ere bazen eta, agian, horregatik izan zen hautatua Bozueko diputatu.

[4] Datu guztiok: DEHA, GAN, A, 3, b.

5. ELIZAREN INMUNITATEAREN DEFENDATZAILE

XVIII. mendearen lehen partean eta, batez ere, 1710-1737 bitartean, egundoko sesio, liskar, istilu eta borrokak izan ziren Gipuzkoako agintari zibilen (Batzar Nagusien, Aldundiaren, Korregidorearen, alkateen) eta Artzapez Barruti Nagusiko (GANeko) apaizen artean, herrialdeko Foru Zaharren iraupena eta bizia bera ere kinka larrian jartzerainokoak. Gatazka garratz, zital horretan Iruñeko Apezpikutegiak, Burgosko Auzitegiak, Gaztelako Errege Kontseiluak eta Erromak berak ere esku hartu zuten, batzuen zein besteen alde eta aurka.

Gatazkaren azterketa xeheari ekin aurretik, eta auzia ulerterrazago egiteko asmotan, garai hartako gertaera eta gorabehera sozio-politiko garrantzitsuenen aipamentxoa egingo dugu.

XVII. eta XVIII. mendeetan ugaritu eta areagotu egin ziren gizarte-istiluak, matxinadak eta hasierako arazo ekonomikoak (zerga berriak, bizimoduaren garestitzea, ohiko aduanak lekuz aldatzea ...) arazo politiko ere bihurtu ziren: 1601ean 'Milioien' zergaren ingurukoa eta 1631-1634 bitartean 'Gatzaren Estankoarena' Bizkaian; 1661ean Matalasen matxinada Zuberoan; 1717-1722 bitartean Bizkaian eta Gipuzkoan; 1739an Azpeitian; 1755ean Bergaran; 1766an Gipuzkoa osoan barrena ...

1682an Donostiako Kontsulatua eta Kontratazio Etxea sortu zuten, hiriaren merkataritza eta itsas interesen defentsarako. Berrogeita sei urte geroago, 1728an, 'Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas' sortu zen Donostian, Amerikarekiko harreman komertzialak sendotzeko.

1696an herrialdeko Foruen bilketa eta argitaratze berria egin zen, zaharrak eguneratuz eta berriak sortuz.

1701-1714 bitartean 'Ondorengotza Gerra' gertatu zen: Karlos II.a, Austriako Etxeko azken erregea, 1700ean hil zen. Frantziako Luis XIV.aren biloba, Felipe Anjoukoa, gerora Felipe V.a (1700-1746), Espainiako lehen errege Borboia izango zena, izendatu zuen bere ondorengo. Austriako Karlos artxidukea ere tronurako lehian hasi zen eta 'Ondorengotza Gerra' piztu zen. Espainia eta Frantzia Ingalaterra, Austria eta Probintzia Batuen aurka borrokatu ziren.

Utrech-Rastatteko Itunekin amaitu zen gerra. Espainiak Gibraltar, Menorca eta Herbeheretako, Italiako eta Luxemburgeko lurraldeak galdu zituen. Frantziak, euskal arrantzaleen kalterako, Ternuako bakailaoaren arrantza-tokiak Ingalaterrari laga zizkion. Kataluniak, Valentziak, Mallorcak eta Aragoik beren Foruak, Pribilegioak eta Konstituzioak galdu zituzten, Felipe erregearen aurka altxatzeagatik (1707-1716). Aduanak Ebrotik itsas portuetara eta Frantziako fronterara aldatu ziren (1717). Horren ondorioz, Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde batzuk matxinatu egin ziren (1718). 1719an tropa frantziarrak Penintsulan sartu ziren.

Dinastia berriak, Borboiak, hasiera-hasieratik, zentralismoaren aldeko eta herrialde historikoen Foru Zaharren aurkako jarrera nabaria azaldu zuen; historian aurrera, areagotu egin zena.

Herrialdeko agintariek, beldurrak airean, Penintsulako beste herrien Foruen galera eta mugako frantziar gudarostearen inbasio-arriskua aurreikusiz, errege berriari gogotsu lagundu zioten. Tentuz, zuhurtzia handiz jokatu beharra zegoen eta, jokatu ere, horrelaxe jokatu zuten: begikotasuna eta lausengua erabili zituzten erregea bera Gipuzkoatik pasa zenean (Ordizian ere egin zuen geralditxo bat); diruaz eta Madrilgo euskaldun boteretsuez baliatu ziren 1704an Foruen berrespena lortzeko; egin ahal guztiak egin zituzten 'fideltasunari' eusteko; 'Ondorengotza Gerran' diruz (zerga berriak zintzo bilduz) lagundu zioten; esanekotasuna (baita setakeria ere) erabili zuten 1717an aduanak tokiz aldatzean ...

Horren guztiaren ondorioz, XVIII. mendeko urterik zailenak gainditzen asmatu zuten gipuzkoarrek, Foruei murrizketarik ekarri gabe. Halere, urte arriskutsu horietan, herrialdeko agintari zibilak eta elizakoak ika-mika garratzetan itsuturik ibili ziren, tamalez [1].

Gatazkaren oinarriak, funtsezko ardatzak, laburbilduz, hauexek izan ziren:

1.- Errege Borboia, 'Ondorengotza Gerra'ko gastuak arintzeko, gainerako herritarrei bezala, apaizei ere diru-laguntzak (zergak) exijitzen hastea. Bestalde, 1705ean, zentsuen interesen beherapena ezarri zen. Zentsuak, mezak emateko edota elizkizun berezietarako baserriko ondasun eta fruituen gain ezartzen ziren 'zorrak', elizgizonen diru-iturri ederra ziren. Zentsuen interes-beherapen horrek apaizen egonezina eta haserrea sorrarazi zituen, beren diru-sarrerak aski murriztuak gertatuko baitziren.

2.- Agintari zibilen erabakiak, bando bidez, elizan pulpitutik aldarrikatu beharra. Antzinako ohitura zen, herrialdeak zein apaizek eta apezpikutegiak (1575ean Antonio Manríquez Valencia apezpikuak) onartua, Batzar Nagusien, Aldundiaren, Korregidorearen eta Alkateen erabaki garrantzitsuenak apaizek

[1] González 1995: 9-10 orr.

igandeetako mezetan pulpitutik aldarrikatzekoa; huraxe baitzen, komunikabide egokiagorik ezean, herritar gehienak beren agintarien xedapenen jakinaren gainean jartzeko unerik aproposena[2].

3.- Foruen XXVII. Tituluaren ingurukoa, hots, bataio, eztei, hileta eta meza berrietako jan-edanetan eta oparietan egiten ziren demaseko gastu eta bestelako gehiegikeriei buruzkoa[3]. Foruek betidanik arautu izan zituzten zeinahi herrita-

---

[2] González 1995: 217. or.: " ... una antigua disposición dada, en 1575, por el Obispo D. Antonio Manríquez y Valencia. En ella se ordenaba a los sacerdotes de la Provincia que comunicaran a sus fieles las disposiciones emanadas de las autoridades provinciales y locales, "siendo cosas tocantes al buen gobierno y que necesariamente convenga se sepan por todos", siempre que no se opusieran a la inmunidad eclesiástica. Se trataba de una costumbre ya entonces antigua en Gipuzkoa, justificada en la facilidad para informar de las disposiciones de gobierno a una población dispersa, aprovechando la asistencia de todos los vecinos -la mayoría analfabetos- a la misa dominical y el respeto y la atención con que se seguían las pláticas desde el púlpito ...".

[3] Foruen XXVII. Titulua: "De las Misas nuevas, mortuorios y funerales, bodas y bateos. Capítulo primero: ... Por cuanto esta Provincia ha tratado siempre de quitar los malos abusos y excesos que se hacen en las villas, alcaldías y valles de esta dicha Provincia, se ha reconocido que los mayores y que necesitan más remedio son los que se hacen en los tiempos que se cantan la Epístola, Evangelio y Misa por los hijos que se ordenan de esta dicha Provincia, porque las suelen cantar solemnemente y hacen excesivos gastos en comidas y banquetes, convidando a ellos, no solamente a sus deudos y parientes y personas de sus lugares sino también a los de los lugares circunvecinos, ocasionando con el convite a que les hagan muchas y grandes ofrendas; y viendo los que no pueden mucho que los más poderosos las hagan muy excesivas, por no parecer menos, procurando igualarles en ellas, con gran pérdida de sus casas y hacienda y muchas veces vendiendo o dando lo que han menester para el sustento de sus casas y decencia de ellas y de sus personas; mirando al bien común de las repúblicas, por vía de buen gobierno y en confirmación de otras leyes y ordenanzas de esta Provincia: Ordenamos y mandamos que de aquí en adelante, ninguna persona de cualquier calidad y condición que sea, no de ningunas comidas, almuerzos, meriendas ni cenas al tiempo y cuando se cantaren la Epístola, Evangelio ni Misa que dijeren los eclesiásticos de esta dicha Provincia, ni después, por razón de lo susodicho, en las casas de los Misa-cantanos, ni en otra ninguna, y los que voluntariamente fueren a la Misa primera, no excedan en lo que ofrecieren de un real de plata, y lo mismo al tiempo de la Epístola y Evangelio, sin que se dé otra cosa alguna de otro equivalente valor; excepto se permite se pueda convidar a los hermanos y parientes hasta el tercer grado y a dos padrinos que le han de asistir tan solamente, los cuales puedan ofrecer lo que quisieren. Lo cual se cumpla y ejecute inviolablemente, y ninguna persona vaya contra el tenor de esta ley, pena de cada veinte ducados por cada vez que se contraviniere, y las Justicias ordinarias, haciéndose lo contrario, reciban información y remitan a la Diputación, dentro de ocho días después que se ofreciere el caso, para que se ejecute la dicha pena, y no lo cumpliendo así, se les saque cincuenta ducados a cada uno de los dichos Alcaldes para gastos de la Provincia. Capítulo II: ... Habiéndose reconocido que en los entierros, novenos y cabos de año, terceros y novenos que se hacen por los difuntos, los herederos hacen grandes gastos en banquetes y comidas, llamando para esto a muchos sacerdotes forasteros, a quienes, además de su estipendio, se da de comer y beber espléndidamente y a todos los demás convidados parientes, no parientes o forasteros, de manera que durante las honras y novenarios no se trata de otra cosa que de banquetes y de regalar a los llamados y convidados, siendo como es tan incompatible con los actos funerales, y con la diversión de comidas y convidados no hay quien se acuerde de encomendar a Dios al difunto, y tal vez su hacienda y herederos quedan pobres con los gas-

rren, sekular nahiz elizgizonen, jokabide pribatua eta portaera morala (1583ko eta 1696ko Foru Bildumetan, 1678ko Batzar Nagusietan ...). XVII. mendearen bukaeran, haatik, areagotu egin zen interbentzionismo hori. Batzar Nagusiek berariaz xedatu eta murriztu nahi izan zituzten elizgizonen ohiturak eta pribilegioak. Apaizak, beren ohiko 'eskubideak' galzorian ikustean, haserre bizian jarri ziren. Foruen eta Batzar Nagusien agindu horiek, jakina, xede ekonomikoa ere bazuten, herritar anitz arras txirotzen baitzen horrelako ospakizun harroxkoetan.

4.- San Ignazio bezperako baraua. 1609-07-27an aitortu zuten santu Loiolako Ignazio. Gertaera hori handikiro ospatu zen Gipuzkoa osoan (Azpeitian, bereziki, Antonio Venegas Figueroa apezpikua bertara etorri zelarik). Hurrengo urtean, 1610ean, Azpeitiak bere zaindaritzat hartu zuen herriko seme santua eta aurrerantzean, urtero, uztailaren 31 jai egitea erabaki. Herrialdeak hamar urte geroago, 1620-05-10ean, erabaki bera hartu zuen. Baina uztailaren 31 jai egitea gutxiegi zen. 1710-05-15ean, Batzar Nagusiek uztailaren 30a, Santuaren jaiegunaren bezpera, barau-egun ezarri zuten. Lehendik ere baziren bi barau-egun berezi: Andre Mariaren jaiotza bezperakoa, irailaren 7koa (1638-11-13an Juan Queipo de Llano apezpikuak onartua) eta San Migel bezperakoa, irailaren 28koa (1643-04-22an apezpiku berak onartua)[4]. Baina oraingoan, aurreko bietan ez bezala, egundoko hanka sartzea egin bide zuten Batzar Nagusiek: hain erabaki garrantzitsua, funtsean Elizari baino ez zegokiona, hartzerakoan, ez zuten herrialdeko apaizekin kontsultatu, ez zituzten hauek kontuan izan. Agintari zibilen hutsegite larri hauxe izan zen jadanik hasia zen gatazka gordina zakarragotu zuena[5].

Gatazka nagusiaren erdian maila apalagoko beste batzuk ere izan ziren. Ordiziari dagokionez, korriedoko diputatuen lehentasunari buruzkoa eta 'Jus

---

tos que hacen, de tal modo que no pueden hacer decir Misas por el sufragio de las almas de dichos difuntos y conviene se excusen semejantes abusos: Ordenamos y mandamos que en las honras y cabos de año, días terceros y novenos de ellas, no se dé de comer ni beber en casa de los difuntos a ninguna persona de los que concurriesen a ellas, ni en otra casa, sino que tan solamente se les de a los eclesiásticos del lugar o villa donde muere el difunto, el estipendio acostumbrado, excepto a los parientes hasta el tercer grado, que con estos se dispensa se les pueda dar de comer, y a los eclesiásticos forasteros que vinieren llamados por las partes del difunto a la concurrencia de estos funerales, se les dé su estipendio a cada uno, y a los que voluntariamente concurriesen sin ser llamados, no se les dé cosa alguna: todo lo cual se cumpla y ejecute inviolablemente, y ninguna persona vaya contra el tenor de este acuerdo, pena de veinte ducados por cada vez que se contraviniere; y las Justicias ordinarias, haciéndose lo contrario, reciban información y remitan a la Diputación dentro de ocho días después que se ofreciere el caso, para que ejecute la dicha pena, y no cumpliendo así, se les saque cincuenta ducados a cada uno de los dichos Alcaldes para gastos de la Provincia ...". Hirugarren kapitulua, eztei eta bataioei buruzkoa, aurreko bien antzerakoa da, baina zigor gogorragoak ezartzen dira: 10.000 marabediko isuna eta bi urteko atzerriratzea.

4 IAA, 1435. k., 3. zk., 29-32 orr.

seppulturae'rena aipatu behar: Otxoa Arin maiz azaltzen zaigu Lazkaoko Jaunarekin (korriedoko hainbat elizatako 'patronuarekin') eta Lazkaoko karmeldarren priorearekin borrokan eta auzitan.

1678an, lehenago ere sarritan bezala, Batzar Nagusiak erabat kezkaturik azaldu ziren hiletetan, meza berrietan eta gainerako ospakizunetan egiten ziren gehiegizko jan-edan eta gastuak zirela eta. Arazo larri hori konpondu nahian, erabaki zorrotzak hartu zituzten: Foruen XXVII. Titulukoa betearaztea; erabakia igandeko mezan aldarrikaraztea; alkateei herrietan gerta zitezkeen gehiegikeriak kontrolaraztea; Nuntzioari erabakiok onesteko eskatzea ...

Agintarien erabakiok, ordea, kleroak ez zituen onartu; legez kontrako praktika izan arren, ohitura txit errotua baitzen hura. GANek garratz eta erronkan erantzun zien herrialdeko agintariei. Hiletetara hurbiltzen ziren behartsuek, otordutxo baten truke, hildakoaren alde otoitz egiten zutela; elizgizonentzat ere laguntzatxo bat zirela otordu eta opariok, hamarren guztiak edo gehienak 'patronuek' jasotzen zituztenez, eliza askotako diru-sarrerak oso urriak baitziren [6]; herritarren txirotzearen arrazoia ez zirela gastu eta otorduok, agintarien utzikeriaren erruz, herrialdean hain ugari ziren eskale eta arlote-andanak baizik ... Agintariena zen, bada, errua, eta erantzukizuna; gaizkileak atxilotuz gero, izango zen herrialdean zer jana eta ohiko diru-laguntzak emateko behar adina.

Halere, gauzak ez bide ziren askorik aldatu. 1693an, 1694an, 1703an ... Batzar Nagusiek eskaera berdinak egiten jarraitu zuten. Baina, alferrik! Agintarien eta elizgizonen arteko ika-mikak, berriz, ugaltzen ari ziren [7].

1705ean, zentsuen interesen beherapena ezarri zen, diru-sarreren murrizketa honek apaizen haserrea eragin zuelarik.

1706-03-30ean, Iruñeko apezpikuak, Jose Antonio Etxenagusia diputatu nagusiaren eta Jose Hernandosoro idazkariaren bidez, Erregeak, gerra-gastuetarako, egindako diru-eskaeraren berri eman zion GANi: Bostehun dobloiren (30.000 errealen) eskaera. GAN 337 apaizek osatzen zuten; beraz, laurogeita bederatzina erreal zegokien ordaintzea. 1706-05-26an antzeko eskaera jaso zuen Errezilgo erretoreak, Ernio Mendizerrako korriedoari zuzendua (16 kide zituen

---

[5] González 1995: 218. or.: " ... La Provincia había cometido el error de no invitar al clero a sumarse a un acuerdo que tan claramente le afectaba ...".

[6] Larramendi 1969: 121-125 orr.: " ... estos patronatos están obligados en conciencia a dar la congrua suficiente al cura y beneficiados y atender con decencia a las necesidades de la parroquia y del culto divino. En esto, en muchos de ellos, hay graves descuidos, pues desatendiendo a esta obligación y al fin santo por que se dan los diezmos, o los llevan todos, o dejan tan poca parte de ellos para los beneficiados, que murieran de hambre si la piedad de los pueblos no les franqueara de qué vivir, en entierros, honras y otras funciones ..." (1756 aldera idatzi zuen Larramendik "Corografía de Guipuzcoa").

[7] González 1995: 214-216 orr. Halaber, Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 327. or.

korriedo honek; beraz, 23,75 dobloi zegokion ordaintzea). Errezilgo erretoreak, GAN kontuan izan gabe, bere kabuz jokatzea erabaki zuen. 1708-01-11n eta 13an Aldundiko eta 03-13an Apezpikutegiko gutun berriak jaso zituen GANek, diru-laguntza eskatuz. 1708-03-06an, Tolosako Kongregazioan, Otxoa Arin diputatua ere bertan zelarik, erregearen eskaerari uko egitea erabaki zen, Elizaren inmunitatearen kontrakoa zela eta horrelako diru-bilketak egin ahal izateko Erromaren baimena ezinbestekoa zela argudiatuz [8]. Oso haserre hartu zuten herrialdeko agintariek apaizen erabakia, eta gogor erantzun zieten [9].

Otxoa Arin jadanik gatazkaren buruetako bat legez nabarmentzen ari zen. Horrela azaltzen digute Iruñeko apezpikutegiko, DEHAko eta GAOko agiriek. GAOko dokumentu batean, "Relación sencilla de los pleitos entre la Provincia y su Clero desde su orixen, 1710-1737"n:

> " ... con agenas plumas el Cura de Villafranca persuadió al más noble miembro de la Provincia de este Arciprestazgo Maior Guipuzcoano a que consultase duda tan indecente (Erregearen diru-laguntzak elizgizonei ere exijitzeari buruzkoa) por medio de dos Diputados suios al Señor Obispo Arnedo ..." [10].

1708-09-13an, Hernaniko Kongregazioan, Erregeari 6.000 errealeko (eskatutakoaren bosteneko) laguntza ematea erabaki zen [11].

1709an, Orioko erretoreak herrialdeko agintarien bando bat, soldaduen erreklutamenduari buruzkoa, pulpitutik aldarrikatzeari uko egin zion, ordaindu ezean. 1710ean gauza beretsua egin zuen Hondarribiko parrokoak. Agintariek Iruñera jo zuten, Apezpikuari 1575eko Manríquez apezpikuaren xedapena berresteko eskatuz. Iruñeak 1710-06-05ean berretsi zuen Batzar Nagusien erabakia [12] .

---

[8] DEHA, GAN, A,3, b, 79-101 orr.

[9] González 1995: 216. or.: " ... Se trataba de una disculpa (apaizena) poco consistente, que fue muy mal recibida por la Provincia, donde ya la actitud del clero comenzaba a irritar. ¿Cómo iba a comunicarse al Rey que la parte más numerosa del clero guipuzcoano no quería contribuir? La respuesta fue dura: "no puede dejar de ... admirar que un ánimo tan docto y celoso como el del clero se rinda a este escrúpulo, a vista del justificado gobierno de nuestro grande y católico Monarca, de las razones y estilo con que pide este socorro y ... del liberal ejemplo de sus obispos y prelados que siendo los principales celadores de la libertad eclesiástica esparcen sin reparos el Real Decreto ...". A la Provincia no le quedaría más remedio que notificar al Monarca "esta determinación tan ajena a la confianza de la Provincia, como menos esperada de la esperada galantería del clero" ..." (GAO, JD, AM, 1708-03-08ko Aldundiaren Akta).

[10] GAO, JD, IM, 4/2/9, 1. kaxa, 3. zk., 24. itema. Herrialdearen eta GANen arteko gatazkaz lau kaxakada dokumentu daude GAOn: aktak, gutunak, dekretuak, txostenak ... Otxoa Arinen jarduera behin baino gehiagotan aipatzen da bertan.

[11] DEHA, GAN, A, 3, b, 1708-09-13ko Hernaniko Aparteko Batzarra.

[12] González 1995: 216-217 orr.: Aldundiaren 1709-08-02ko eta Batzar Nagusien 1710eko 2. bilerako Aktak.

Enfrentamendu larriagoa izan zen Zizurkilgoa: 1709an, herriko alkateak, Erregearen borondatezko zerbitzurako soldaduak erreklutatzerakoan, egun hartan bertan meza berria eman zuen Migel Andiazabal Amasako benefiziatuari bazkaritan sobera geratutako ardoa eskatu zion, herrialdeko Erregimentuko gizasemeen artean banatzeko. Apaizak ukatu egin zion, eta alkateak indarrez kendu zion ardoa. GAN, Jose Antonio Aialde Aiako erretorea, Jose Etxenagusia diputatu nagusia eta Otxoa Arin buru zituela, apaizaren alde atera zen, Elizaren inmunitatea defendatuz. Herrialdeko agintariak, aldiz, alkatearen alde azaldu ziren, horrelako gonbitak debekaturik zeudela argudiatuz. 1710-04-29an, Tolosan, GANeko Kongregazioak Zizurkilgo arazoaz eztabaidatu zuen. Guztiak Migel Andiazabalen alde azaldu ziren eta alkatea Iruñeko Auzitegiaren aurrean salatzea erabaki zuten, Elizaren inmunitatea hausteagatik [13].

1710erako idatzia zuen Otxoa Arinek Kristau Doktrina.

1710ean, Zumaian, Batzar Nagusiek hiru erabaki garrantzitsu hartu zituzten:

1.- Apaizek bandoak pulpitutik aldarrikatzeari uko egiten jarraitzen zutela eta, Iruñera jotzea, antzinako ohitura berresteko eskatuz. Iruñea Batzar Nagusien erabakiaren alde atera zen eta 1710-06-05ean 1575eko Antonio Manríquez y Valencia apezpikuaren Dekretua berretsi egin zuen [14].

2.- Foruen XXVII. Titulukoa ez zela betetzen (Zizurkilgo meza berrikoan ikusi zen bezala) eta Iruñeko apezpikutegiari bere eskumeneko apaizei herrialdearen Foruak betearazteko eskatzea. Joan Ignazio Iñigez Arnedo (1700-1710) hiltzean, Aulkia 1710-1713 bitartean hutsik egon zenez, Pedro Martínez Artieda gobernadore eta bikario nagusiak 1710-06-07an igorri zituen herrialdeko agintariak eskatutako zentsurak, Foruak bete ezean, zigor gogorrak ezarriz: eskomunioa eta 50 dukateko isuna [15]. Kalagorriko Apezpikuak ere berdin jokatu zuen.

3.- San Ignazio bezpera, uztailaren 30a, barau-egun ezartzea; herrialdeko herri guztietan, hilabeteko epean (maiatzaren 15erako), Batzar Nagusien botoa berrestea eta berrespenaren ziurtapena Aldundira igortzea, honek Iruñeko eta Kalagorriko Apezpikuei ere beren berrespena eska ziezaien [16].

Kalagorriko apezpikuak Gipuzkoako bere eskumeneko herrietarako 1711-03-05ean berretsi zuen barau-botoa. Leintz aldeak eta Artzapez Barruti Txikiak

---

[13] González 1995: 216-217 orr.: " ... El conflicto fue ya imparable.".

[14] IAA, 1496. k., 1. zk. (103 orriko kartoi honetan 1710-1721 bitarteko GANen eta herrialdeko agintarien arteko gatazkari buruzko dokumentazioa jasotzen da). Eta GAO, JD, IM, 4/2/8 (Zumaiako Batzar Nagusien erabakiak).

[15] IAA, 1749. k., 6. zk. Eta GAO, JD, IM, 4/1/33.

[16] IAA, 1435. k., 3. zk., 1710-1715 urteak; eta 1712. k., 14. zk., 1715-1736 urteak. (194 eta 131 orriko kartoi biotan San Ignazio bezperako barauari buruzko auzia eta dokumentazioa jasotzen dira).

(Hondarribia aldeak), hasieran haserre antzean baina, onartu egin zituzten Batzar Nagusien eta Apezpikuen aginduak. GAN, ordea, kontra jarri zen, eta Bikario Nagusiarengana jo zuen. GANen oposizioa gogorra (eta zakarra) izan zen, bertako apaizak hobeto antolatuak, organizatuak baitzeuden. Horrela hasi zen mende laurdena baino gehiago luzatu zen herrialdeko bi komunitateen, zibilaren eta elizakoaren, arteko gatazka istilutsua.

1710-10-01ean, Azpeitiko Soreasuko San Sebastianen parrokiako sakristian 19 ordezkari, diputatu, bildu ziren Aparteko Kongregazioan. Batzar Nagusien hiru erabakiak aztertu zituzten puntuz puntu:

1.- Bandoak pulpitutik aldarrikatzeko ohitura jadanik zaharkiturik zegoen, apaizak pregonaritzat hartzea lotsagarri zen ... [17].

2.- Foruak agintzen zuena betearaztea legez kontrakoa zen, Elizaren Sinodoen kontrakoa, hitz batean, apaizen eta Elizaren inmunitatearen kontrakoa [18].

3.- Barau-botoa baliogabea zen, agintari zibilek ez baitzuten eskubiderik eliztarrei horrelakorik ezartzeko, inposatzeko; inolaz ere onartezina zen Elizari bakar-bakarrik zegozkion gaietan botere zibilak 'muturra' sartzea. Gainera, arras mingarria eta iraingarria: Agintariek ez zituzten apaizak gonbidatu hain erabaki garrantzitsua hartzerakoan; herrialdeko agintariek egundoko erdeinua egin zieten GANeko apaizei [19].

Eta, azkenik, GANek Iruñera bi ordezkari bidaltzea erabaki zuen, Jose Antonio Aialde Aiako erretorea eta Jose Etxebeste Orioko benefiziatua, Batzar Nagusien erabakien aurka GANen araudia defenda zezaten eta beharrezko irizten zieten auzibideei ekin ziezaieten.

Agintarientzat apaizen jokabidea txit larria zen, Foruen balioa ukatzen baitzuten, beren arau partikularrak herrialdekoen gainetik jarriz. Are gehiago, ara-

---

[17] González 1995: 218. or.: " ... el Obispado había confirmado un "anticuado mandato del Sr. Obispo D. Enrique", en total oposición "a tan repetidos establecimientos canónicos que excluyen a los eclesiásticos de semejante empleo cuando en el vulgo secular se practican por bandos públicos y ministros más inferiores". Es decir, los clérigos no eran unos pregoneros, oficio bajo e indecoroso al que no podía rebajarse un sacerdote.".

[18] González 1995: 218. or.: " ... Las censuras para el cumplimiento del título 27 de los Fueros eran totalmente ilegales, pues se oponían al capítulo 27, del libro 3 de las Constituciones Sinodales, que permitían dar de comer a los sacerdotes que fueran a entierros y aniversarios. Se había producido, pues, una derogación completamente irregular de una disposición que sólo podía ser anulada por otro Sínodo y, además, sin citación del clero. En definitiva, se atentaba contra la inmunidad del clero, respecto a la que la Provincia no tenía autoridad ninguna.".

[19] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 100. or.: "Era una clara intromisión del poder civil en cosas meramente espirituales. No se trataba de un voto en abstracto, sino emitido en un contexto anticlerical, como lo prueban los otros acuerdos relativos a convites ... y a la lectura de bandos en las iglesias ...".

zoa auzitara eramanez gero, Foruak epai bidez baliogabetzeko arriskua zegoen. Aldundiak ere, 1710-10-07an, Iruñera jotzea erabaki zuen [20].

Herrialdeko agintariek, 1711-02-20an, berriro, barau-botoa berresteko erregutu zioten Bikario Nagusiari. Apaizek, 1711-02-23an, agintarien eskaeraren berri emateko eskatu zuten. Eskaera esku artean izatean, Iruñeari abstenitzeko eskatu zioten (1711-02-28an), apaizen iritzia kontuan izan gabe hartutako erabakia izan zela argudiatuz.

Apaizek apezpikuek lehenago emandako zentsurak (bandoak aldarrikatzeari eta hiletetako otorduei buruzkoak) baliogabetzea erdietsi zuten. Eta, garaipenaz harro, Foruak zaharkituak geratu zirela, erlijioaren kontrakoak zirela, elizgizonek lege zibilak interpretatzeko eta aldatzeko eskubidea zutela, etab. zabaltzeari ekin zioten.

Agintariak kleroaren arrazoiak deusezten ahalegindu ziren, baina honek barau-botoa ezartzerakoan ez zutela herritar gehienek parte hartu ihardetsi zuen.

Aldundiak, apaizen erasoetatik defendatzeko, zenbait iritzi-txosten bildu zituen. Besteak beste, Aita Salvador de Ribadeo adituarena. Fraide honek bandoak pulpitutik aldarrikatzea eta Foruak berak ere ez zirela Elizaren inmunitatearen kontrakoak defendatu zuen. Txostena herri guztietara banatu zen, arerioen kanpainari aurre egin nahian. Gainera, apaizek beren ohiko oturuntzekin jarraitzen zutenez, indarrean zegoen legeria hausten zuten guztien kontra jokatzeko agindu zorrotza berritu zuen. Langintza honetarako Antonio Idiakez eta Agustin Ignazio Agirre Eleizalde izendatu zituen. Agintarien arrazoiketa argia zen: Herritarren bat oturuntza hauetara joaten bazen, meza berrietan opariak egiten bazituen, baimenduta zeuden baino apaiz gehiago ekartzen bazituen edota ostalariren batek otorduak ematen bazituen, zigortua izango zen. Ez zen, bada, zuzenean, elizgizonen aurkako erabakia, herritar gaizkileen aurkakoa baizik, eta hauen gain agintari zibilek (eta Foruek) bazuten aginpidea. Horrela, herritarrei

---

[20] González 1995: 219-220 orr.: " ... La Diputación decidió actuar también en Pamplona, alarmada "por la disonancia de que unos sacerdotes hijos de la Provincia y respetados en toda ella ... se resuelvan a impugnar públicamente sus Fueros confirmados y las disposiciones de su Junta" ... los sacerdotes ... se dedicaron a calificar de impíos los Fueros ante sus feligreses y llegaron a imprimir un papel, sin firma ni fecha, en el que venían a afirmar que "los fueros de su patria se desusaron y se hicieron caducos y se oponen a la piedad cristiana y al mantenimiento de los eclesiásticos y al sufragio de las ánimas ... y que el eclesiástico puede interpretar y corregir las leyes civiles ...". La Diputación, desbordada por la gravedad de la situación, "y con el fin de disponer la justa defensa de esta extraña provocación, con que el clero contradice la disposición de unos Fueros confirmados por S. M.", solicitó varios informes ... en un intento de contrarrestar la campaña de los clérigos opositores, que ya habían conseguido que muchas personas desobedecieran abiertamente las disposiciones forales, dando banquetes de bodas, bautizos y funerales ...".

Halaber, Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 101. or.

aginduak betearaziz, Foruak errespetaraztea lortuko zen, apaizekin ika-mika antzuetan jarraitu beharrik gabe.

Aldi berean, Aldundia GANekoekin negoziaketetan aritu zen. Diputatu Nagusiari hauxe proposatu zion:

1.- Herrialdeko agintariak, barau-botoaren kontuan, gaizki jokatu zutela aitortzeko prest zeuden; ez zituztela apaizak aintzat hartu, eta Iruñeko berrespen-eskaerarekin bat egiteko gonbita luzatzen zieten.

2.- Apaizek Foruen XXVII. Titulukoa onartuko zuten.

3.- Pulpitutik bandoak aldarrikatzen jarraituko zuten apaizek, bandook Elizaren inmunitatea hausten ez zuten eta guztien onerako ziren heinean.

Hasieran, bazirudien gauzak konponduko zirela, Diputatu Nagusiak behin-behineko oniritzia eman baitzuen, baina negoziaketak porrot egin zuen apaiz suhar eta buruberoenen eraginagatik.

Bestalde, 1711-04-21ean, Azpeitian, GANek Iruñeko auzian aurrera jarraitzeko batzordea berritu zuen, Otxoa Arin ere izendatuz. Zizurkilgo apaizaren aldeko auzia zela eta, egindako gastuak, 50 ezkutu (500 erreal), denen artean ordaintzea erabaki zuten. Errezilgo bikarioaren jokabidea, 1706an Erregeak eskatutako diru-laguntzaren kontuan, GANekin kontatu gabe, bere kabuz jokatzekoa, alegia, gaitzetsi egin zuten [21].

Agintariek Erregearengana ere jo zuten. Txostenean, besteak beste, hauxe zioten:

> " ... El dicho Rector de Aia revolvió el Clero para oponerse como se opuso a estas zensuras y obtubo y manexo a su poder en todo el pleito a una con D. Josseph de Echenagusia Diputado General del Clero (Tolosa), y Don Josseph de Ochoarin Vicario de Villafranca que son los que más sobresalen en revolver y fomentar estas disputas ..." [22].

Erregeak, 1711-07-20an, herrialdeko agintarien erabakiak eta Foruak betearazteko xedapena eman zuen, hots, nolabait esateko, agintarien alde eta apaizen aurka agertu zen.

Apaizak, ordea, oraingoan ere, kontra azaldu ziren, eta Gaztelako Errege Kontseilura jo zuten, herrialdeari gogor eraso eginez, Foruak Erregearen beraren eta Elizaren kontrakoak zirela adieraziz. Jokabide eta adierazpen hauek zeharo mindu zituzten herrialdeko agintariak [23].

---

[21] DEHA, GAN, A, 3, b, 123-130 orr.

[22] GAO, JD, IM, 4/1/35. Karpeta honetan bertan 1712an, 1713an eta 1715ean gai berari buruz Erregeak igorritako beste hiru xedapen ere jasotzen dira.

[23] González 1995: 220. or.: " ... el clero ... contraatacó en el Consejo de la forma que más daño podía causar a la Provincia, pues señaló que los Fueros "se oponen a las Leyes Reales y a

Gaztelako Kontseilua ere herrialdeko agintarien alde eta apaizen aurka azaldu zen.

Bestalde, apaizek Foruen defentsan (eta elizgizonen 'eskubideen' kontra) azaltzen zen alkate oro Iruñera auzitara eramaten jarraitzen zuten. Adibide pare bat: Debako alkateak Arroara (Debaren eskumenekoa baitzen Arroa) hileta batzuetara joandako apaizei jaten ematea debekatu zuen. Apaizek ostatu batean bazkaldu behar izan zuten. Alkateak ostatuko etxekoandreari isuna ezarri zion, eta ondasunak bahitu. Alkateak herrialdeko arauak bete zituen; halere, apaizek Iruñeko Auzitegiaren aurrean salatu egin zuten. Mutrikun ere antzerakoa gertatu zen [24].

Giroa mingotsa zen oso. Alde batekoak eta bestekoak idazkiak (egun 'panfletoak' esango genuke) argitaratzen eta zabaltzen hasi ziren. Herri-bakea arriskuan ikustean, Korregidoreak horrelako paper gehiago ateratzea debekatu egin zien herritarrei. Gauza bera agindu zien Iruñeak ere elizgizonei.

1712—04-23an, Tolosan, GANeko kongregazioan irakurri zuten Iruñeko apezpikutegiak igorritako agindua [25]. Kleroak, berean tinko, idazki luze bat argitaratu zuen, eta 1712-10-20an parrokia guztietara banatu. Bertan, GANeko hiru ordezkariek (Etxenagusia, Aialde eta Otxoa Arinek) Gaztelako Kontseilura jo zutela adierazi zitzaien apaizei. Idazkia, agintarien arabera, erabat subertsiboa zen, iraingarria, Erregearen zein Apezpikuaren aurkakoa, eta Iruñeari lehenbailehen parte hartzeko erregutu zioten (1712-12-05ean).

1712-12-23ko Errege-xedapenak aurreko urtean erabakia betetzeko agindu zuen, eta auzia Gaztelako Kontseiluaren esku utzi zuen. 1713-06-26an Kontseiluak aldaketatxo bat ezarri zuen: eztei eta hiletetako oturuntzei buruz lehenagotik erabakitakoa betetzeko agindu zuen, baina meza berri eta bataioetako opariei buruzkoa erabakitzeke utzi zuen, eta auzitegietara jotzeko esan zien bi aldeei. Kontseiluko fiskalak, bestalde, Iruñeko apezpikutegira gutuna igorri zuen, Jose Antonio eta Lorentzo Aialde anaiak eta Otxoa Arin liskarrak eragiten eta bakea apurtzen ari zirela eta arazoa konpontzeko eskatuz.

Kleroak harro jarraitzen zuen agintarien kontra, eta elizgizonei jaten ematea debekatzen zuen Forua indargabetua izan zela zabaldu zuten herrietan. Gortean jadanik Foruen aurkako lehen urratsak ematen hasiak ziren. GANek, bere jarreraz, herrialdea eta bere Foruak hauen etsaien eskura lagatzen zituen; Foruen etsaien sopikun eta lagun bilakatu zen!

---

la Constitución Sinodal ... a la costumbre inmemorial ... y que destruyen las precisas congruas de los curas y beneficiados y que el presente empeño de la Provincia ha turbado la paz de sus naturales ..." ...".

[24] IAA, 1749. k., 6. zk. 1721 arte iraun zuten auzi biok.

[25] DEHA, GAN, A, 3, b, 131-139 orr. Eta GAO, JD, IM, 4/2/9.

Bitartean, Iruñean ere aurrera jarraitzen zuen auziak. 1713-02-04an amaitu zen prozesuaren lehen fasea, eta harat-honateko gurpil eroan sartu ziren alde biak: 1713-02-20an Metropoli Barrutiko (Burgosko) Auzitegira pasa zen auzia. Burgosek Iruñera igorri zuen. Iruñetik, berriro, Burgosera pasarazi zuten agintari zibilek. Apaizek Iruñera ekartzea eskatu zuten (1713-08-26an). Agintariek Burgosa eramatea eskatu zuten (1713-09-04an)[26].

1713-04-26an, Hernanin, GANek eskuarteko auziei aurre egiteko kuota berria ezarri zuen: bina ezkutu, bi txandatan ordaintzekoak[27].

1713-07-12an, hiru urtean hutsik egondako Apezpiku Aulkian Pedro Aguado eseri zen (1713-1716). Agintariek, Gaztelako Kontseiluak herrialdeko Foruez ebatzitako zukeenaren beldur, apezpiku berriarengana jo zuten.

Aguado apezpikuak GANen eta herrialdearen arteko gatazkan bitarteko izateko asmoa azaldu zuen. Bakezkoak egiteko, bere aurrera deitu zituen alde biak. Biok onartu zuten gonbita. Bilerak porrot egin zuen: Apezpikuak, neutral izan beharrean, 1713-09-09an, San Ignazio bezperako barau-botoa berretsi egin zuen, sekularrentzat bakarrik baina. Sekularrak uztailaren 30ean barau egitera beharturik zeuden eta apaizak, berriz, ez!

Aurretik, 1713-08-31n, Hernanin, GANeko kongregazioan, Jose Antonio Etxenagusia diputatu nagusia hil egin zenez, Jose Antonio Aialde Aiako erretorea hautatu zuten ordezko. Gorago aipatutako apezpikuaren bake-asmoei buruzko gutuna irakurri zuten. Bilerarako Diputatu Nagusi berria, honen anaia Lorentzo benefiziatua eta Otxoa Arin izendatu zituzten[28]. Goierri aldean, azken aldi hartan, beste arazo bat ere sortu zen: Lazkaoko Jaunak bere eskumeneko parrokietako apaizek GAN egiten ari zen ez-ohiko gastuak ez ordaintzea nahi zuen, eta korriedoko zenbait apaiz bereganatu egin zituen. Arazo honi buruzko kudeaketak Otxoa Arinek egin zituen, eta hauei buruzko argibideak eskaini zizkien batzarkideei: Madrilgo abokatuen arabera, Joan Raimundo Arteaga Lazkaoko Jaunak ez zuen arrazoirik.

Apezpikuaren erabaki bitxia ezagutzean, Iruñeko hiru ordezkariek gutun bat igorri zieten apaizkideei. Gutuna iraingarritzat jo zuten Apezpikuak eta agintariek. Erabat haserretu ziren. Aldundiak eskaturik, Apezpikuak idazkiko esaldi iraingarriak ezabatzeko agindu zien apaizei. Agindua bete beharrean, beste gutun bat igorri zioten Apezpikuari, aurrekoa baino iraingarriagoa, harroputz eta basatitzat tratatuz eta goragoko auzitegietara joko zutela mehatxu eginez[29].

---

[26] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 101-103, 328 orr. Eta González 1995: 220-221 orr.

[27] DEHA, GAN, A, 3, b, 140-154 orr.

[28] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 103. or.: " ... José Ochoa de Arín ... que se había distinguido en la defensa de la inmunidad del estado eclesiástico ...", eta horregatik hautatu zuen GANek Iruñerako ordezkari.

[29] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 103-104 orr.: Apaizen gutunaren zati bat: "Este Muy Ilustre

Apezpikuak, 1713-11-15ean, Gaztelako Kontseiluko buruari idatzi zion Gipuzkoako apaizek, eta bereziki hiru ordezkariek, Jainkoarenganako, Erregearenganako eta Apezpikuarenganako begirunea galdua zutela eta kexu, eta aholku hau emanez: Hiru ordezkariei Madrila hots egin ziezaiela eta bertan urte pare batean bahiturik eduki zitzala, soldatarik eta mantenurik gabe eta beren burugabekeriei eta gezurrei entzungor eginez [30]. Kontseiluak, Iruñeko iradokizunari oniritziz, hiru apaiz borrokalariei beregana dei egin zien.

1713-11-19an GANek eta 1714-01-14an Aialde anaiek eta Otxoa Arinek gutun bana idatzi zioten Apezpikuari, gutun zorrotzak, baina begirune osoz eginak, apaizekiko konfiantzarik ez agertu izanaz kexu. Gutunok GANeko Akta Liburuan jasoak daude.

1714-02-10ean eta 17an beste bi gutun jaso zituzten Iruñetik Aialdetarrek eta Otxoa Arinek, Madrilako bidaia atsegina izatea opatzen zitzaielarik.

1714-02-23an, Azpeitian, batzarra zalapartatsua izan zen oso. Hasteko, Ordiziako korriedo erditik bi diputatu azaldu ziren: Otxoa Arin eta Andres Maiza Ataungo bikarioa. Honek Ataun, Olaberria, Lazkao, Garin eta Beasaingoen ordezkaritza zuen, baina Otxoa Arini zegokion lehentasun historikoa eta legezkoa. Donostiakoek Otxoa Arinen aldeko bozketa proposatu zuten, eta irabazi egin zuten, Maiza ataundarra bileratik egotziz. Baina, hasierako bozketa horretan ikusi zen bezala, diputatuen arteko aldeak nabarmendu egin ziren eta ez zen

---

Clero ha recibido una de V.S.I., aunque duda ser de su pluma, su fecha 20 de octubre, con grande tristeza, por ver en su contexto se inclina más al estado secular, no presumiendo ni esperando sucedería esto. Pónese en la alta noticia de vuestra señoría ilustrísima, que a este Muy Ilustre Clero podrá traerle y gobernarle sólo en un pelo de bien a bien ('onez onean'); pero, de lo contrario, ha sabido y sabrá recurrir al tribunal superior, donde no hay pasión ni contemplación, aunque cada uno de sus individuos se desnude de la camisa que trae puesta, por la justicia que le asiste en los puntos que la Provincia le ha movido injustamente ... 'oportet episcopum non esse criminatricem nec superbum' ('basati eta harroputz') ...".

[30] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 104. or.: Apezpikuak Gaztelako Kontseiluari zuzendutako gutunaren zati bat: "Lo que mira a la clerecía de Guipúzcoa y de sus grandes enredos y oposición a los seglares de la Provincia, yo sólo puedo decir a V.E. que, habiendo perdido el respeto a Dios, no dudan de perderle al rey ni a su obispo. Yo les escribí la carta, cuya copia remito a V.E., para ver si los podía sosegar; y por la respuesta, que también remito a V.E., podrá conocer la verdad de lo que depongo y así, por no molestar a V.E., no le remito otra copia de sus disparates, que van esparciendo para mantener sus intentos, no pudiendo acabar de digerir que V.E. y su Consejo les haya puesto entredicho y privado de aquellas grandes borracheras, que ellos bautizaban con el nombre de sufragio por las almas. Yo ... fuera de parecer que V.E. llamase a estos tres sujetos a Madrid ... y los tuviera ahí un par de años sin oirles nada por sus desatinos y falsedades, y que esto fuese a costa de ellos, porque si hubiese de ser a costa de las iglesias, no les daría nada, y gastando de sí, se ablandarían, y con este ejemplo temerían los demás y se darían a buenas".

Halaber, GAO, JD, IM, 4/2/9, 1. kaxa, 6. karpeta. Korrespondentzia ugaria izan zuten urteetan Antonio Idiakezek eta apezpikutegiko Joan Fermin Villanueva prokuradoreak.

aurreko batzarretako adostasunik izan. Jarrera ezberdinak agertu ziren: Gehiengoak gastu ugarien ordainketak egitea, hiru ordezkarien berrizendapena eta Erromaraino jotzea defendatu eta irabaztea lortu zuen. Haatik, Azpeitia, Azkoitia, Getaria, Deba, Segura, Mutriku, Ataun, Urretxu, Zumarraga, Hernani, Astigarraga eta Ernio Mendizerrako diputatuak sesio eta liskarrak ahaztu eta Apezpikuarekin bakezkoak egitearen eta diru gehiago alferrik ez gastatzearen aldeko azaldu ziren. Bileratik egotziak izan ziren [31].

Madril aldera abiatu beharrean, hiru ordezkariak beren etxera itzuli ziren bileratik, gaixo zeudelako aitzakian.

1714-05-01ean Otxoa Arinek hauxe idatzi zuen bere parrokiako Ezkontza Liburuan:

> " ... Doi comision á Don Martin de Zalbajo para que en mi ausencia y enfermedades hasista a los Matrimonios que se contrajeren en esta Parroquial ... asi bien los asientos en este libro ..." [32].

Liburu horretako eta beste sakramentu-liburuetako partidek azaltzen dutenez, Otxoa Arin 1714-05-01etik 1722—02-16ra bitartean parrokiatik kanpo ibili zen.

1714ko uztailean joan ziren hiru ordezkariak Madrila. Han urte bukaera arte egonarazi zituzten. Errieta egin ondoren, Iruñera bidali zituzten, Apezpikuak zentza zitzan eta ongi zentzatuak izandakoan, eta beren etxera itzultzen utzi aurretik, Kontseiluari berri eman ziezaiola eskatuz. 1715eko urtarrilean heldu ziren Iruñera, eta Apezpikuak bertan gerarazi zituen. Bitartean, Apezpikuak, arerio sutsuenak artean Madrilen zirela, Gipuzkoan barrena artzain-bisitaldiak eginez, hainbat dekretu eman zituen.

1714-08-09an, Donostian, apaizak ere San Ignazio bezperako baraua egitera behartu zituen [33].

Apaizek, Donostian, Aparteko Batzarrean, dekretua zintzilik uztea eskatu zioten Apezpikuari. Eskaera egitera Asteasuko Ignazio Irarreta eta Amasako Migel Andiazabal benefiziatuak joan ziren. Iruñera iristeaz bat, Apezpikuak Elizaren kartzelara ('dorre'ra) bidali zituen. 1714-09-01ean, Donostiako bileran parte hartu zuten apaiz guztiei meza ematea debekatu zien, eta hamarna dukateko isuna ezarri. Gainera, parroko guztiei hurrengo igandeko mezan barau-botoa pulpitutik aldarrikatzeko agindu zien, eta agindua betetzen ez zutenei ere besteen zigor berdinaz mehatxu egin zien. Isunak biltzeko Joan Lizarraga izendatu

---

[31] DEHA, GAN, A, 3, b, 155-170 orr.
[32] DEHA, Ordizia, P-05.
[33] DEHA, GAN, A, 3, b, 213. or.

zuen. Honek, isunak kobratu ahal izateko, zenbait apaizen ondasunak konfiskatu eta saldu egin zituen. Elizgizonek Burgosko Metropoliko Auzitegira jo zuten. Burgosek, 1714-10-02an, prozedura osoa gerarazteko eta autoak beregana igortzeko agindu zuen.

1714-10-01ean, Azpeitian, Foruen XXVII. Titulukoa betetzera behartu zituen, sekularrak ez ezik, apaizak ere.

Burgosko auzia galtzean, Erromara jo zuten apaizek. Erromatik, 1714-11-29an, bi Bulda ailegatu ziren, Apezpikua inhibituz eta auziak Madrilgo Protonotario Apostolikoaren esku jarriz.

Erromako Buldak iristean, eta Apezpikua kanpoan zela aprobetxatuz, hiru bahituek Iruñetik ihes egin zuten, eta beren etxera itzuli.

1715ean Apezpikua Ordizian izan zen artzain-bisitaldian, baina Otxoa Arinen apaizkideek ez zioten batere harrera onik egin, nonbait:

> " ... Despreciando reparos llegó a Villafranca donde el dicho Don Josseph Ochoa de Arin Vicario de aquel lugar se hallava en el encierro que se ha dicho y los Clérigos ejecutaron la maior grosería con su Prelado que empezó a castigarlos pero al primer ruego se retiró de las severidades ..." [34].

1715-03-02an, Burgosek, alde batetik, Apezpikuaren ediktua berretsi eta betetzeko agindu zuen, eta, bestetik, apaiz bahituak aske uzteko agindua eman zuen. Ordurako, ihesi zebiltzan. Apezpikuak, Burgosko agindua betez, 1715-03-11n, berriro, parroko guztiak barau-botoa aldarrikatzera behartu zituen, eskomunioaren eta hogeina dukateko isunaren mehatxupean. Apaiz batzuek bete zuten agindua; gehienek, ordea, ez. Eta Erromara jo zuten.

Apezpikuak, orduan, bere ohiko prozeduretara jo zuen: atxiloketak, isunak, ondasunak konfiskatzea, meza ematea debekatzea, eskomunio-mehatxuak ...

1715-06-02an, iheslariak atxilotzeko agindua eman zuen. Iruñeko Elizaren kartzelara ('dorre'ra) zeramatzatela, Arrotxapean, aguazilari aurre egin eta hau laguntza gehiagoren bila abiatu zenean, ihes egin zuten hiri barrura. Apezpikuaren zerbitzariak berriro atxilotzera joan zitzaizkienean, berriro ihes egin zuten eta kaputxinoen komentuan gorde eta babestu ziren. Hirutan deitu zitzaien, baina alferrik! [35].

Lorentzo Aialdek Madrila ihes egitea lortu zuen. Han Protonotarioaren eskumenean jarri zuen bere burua eta auziekin aurrera jarraitu zuen. Nuntziaturak

---

[34] GAO, JD, IM, 4/2/9, 1. kaxa, 57. itema.

[35] IAA, 1712. k., 14. zk.

bahituak aske uzteko, ezarritako debekuak (meza ematekoa ...) kentzeko eta konfiskatutako ondasunak itzultzeko agindua ematea erdietsi zuen.

1715-07-01ean, Apezpikuak hamar apaiz gehiago atxilotzeko eta ondasunak konfiskatzeko agindua eman zuen. Hauek Iruñeko komentu ezberdinetan babestu ziren [36].

Gipuzkoako apaizen eta Iruñeko Aguado apezpikuaren arteko harremanak bortizki gogortu ziren. Madrilgo Nuntziaturak apaizei zigorrak kentzeko agintzen zion Apezpikuari, baina honek, Madrili jaramonik egiteke, berean jarraitzen zuen. Egundoko tirabirak eta enfrentamenduak izan ziren erakunde bion artean 1715eko 2. partean eta 1716ko lehenean. Adibidez, 1715-10-01ean, Nuntziaturak, apaizen alde jokatuz, Iruñeari eta Burgosi auzi guztietan inhibitzeko agindu zien, auto guztiak Madrila igortzeko, apaizei meza emateko debekua kentzeko, komentuetako ateetan (barruan babesturik zeuden apaizek ez zezaten ihes egin) zeuzkan zaindariak kentzeko ... Baina apezpikutegiak, berean itsu, guztiz alderantziz jokatu zuen: apaizak eskumikatutzat eman zituen, seinalatutako kartzeletara joateko agindu zien ... [37].

Aguado apezpikua 1716-04-19an hil zen, eta aurreko urteetan baino nahasiago laga zuen gatazka. Iruzkin hauxe egiten du Goñi Gaztambide historialariak Aguadoren jokabide eta jardueraz:

> " El obispo Aguado falleció el 19 de abril de 1716, dejando el asunto del voto del ayuno más enconado de lo que estaba al tomar posesión de la diócesis. Muy sensible en lo referente a su dignidad episcopal, se mostró ciego en lo relativo a la dignidad de personas, cristianos y sacerdotes, que tenían los eclesiásticos de Guipúzcoa, utilizando contra ellos, no la bon-

---

[36] IAA, 1504. k., 24. zk.: " ... Y porque, añadiendo delicto a delicto hicieron fuga, traendolos presos a la Torre y carcel episcopal ... mando secuestrar todos sus frutos y rentas ...".

Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 108. or.: "A todo esto se hallaban detenidos en la ciudad de Pamplona y sus arrabales Gaspar de Irazusta, vicario de Zaldivia y otros nueve eclesiásticos, a los cuales el obispo había suspendido de misa y multado en diez ducados a cada uno, cobrándolos mediante la almoneda de sus bienes, causándoles muchas costas, perjuicios, nota y escándalo. A los eclesiásticos refugiados en el convento de capuchinos y en otros conventos de los arrabales de Pamplona, les puso guardas para evitar su fuga. Su gran delito consistía en no haber publicado el edicto episcopal sobre el ayuno. Los diez detenidos suplicaron al obispo que revocase su mandato de comparecer, dictado contra ellos pena de excomunión mayor ... El obispo había despachado asimismo auto de prisión y embargo de bienes contra los dos diputados del clero (Jose Antonio Aialde eta Otxoa Arinen kontra, alegia) y contra Lorenzo de Ayalde (hau Madrilen zen ordurako), y con efecto se les embargaron los bienes ...".

[37] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 109. or.: " ... el desprecio de los despachos apostólicos era patente ... El clero guipuzcoano recibía con igual desdén las disposiciones civiles y eclesiásticas contrarias ...".

dad, la comprensión, la caridad y el diálogo, sino el recurso al poder civil, las multas y la cárcel. No tuvo en cuenta el consejo que le dieron: por las buenas obtendría todo lo que quisiera; por las malas, nada." (Apaizek 1713an, Apezpiku Aulkia hartu zuenean, egin zioten gutunekoari erreferentzia eginez. Ikus kapitulu honetako 29. oin-oharra)[38].

1716-04-29an, Tolosan: Jose Antonio Aialde diputatu nagusiak zuzendu zuen batzarra. Ordiziako korriedotik Otxoa Arin eta Beasaingo Migel Arrue izan ziren, baina ez zen eztabaidarik sortu. Auzitan jarraitzeko diru-bilketa egin zen. Madrilen zihartuen Lorentzo Aialderen txostena irakurri zuten:

"Este día se hizo relación de las violencias executadas por el Iltmo. Señor Obispo de Pamplona en los Constituientes de los Iltmos. Corriedos enteros de Herniobea y Bozue con prisiones, suspensiones, enbargos de vienes y suspensión de oficio y el M.I.C. acordó se escriva a dichos Señores dando gracias de su constancia, pundonor y celo que an manifestado el amor y crédito de M.I.C. y de su estado ..."[39].

Herrialdeko agintariek hiru apaiz bazter-nahastaileak atzerriratzeko eskatu zioten Erregeari. Honek 1716-05-08an eman zuen agindua[40]. Aialde anaiek eta Otxoa Arinek Hendaian jarri zuten egoitza, gatazka hurbil-hurbiletik jarraitzeko (eta gidatzeko) moduan. Aldekoen bisita ugari izan zuten.

1716-07-15ean, Tolosako Aparteko Batzarra Diputatu Nagusirik gabe egin zen. Deialdia Gabriel San Millan Zizurkilgo bikarioak egin zuen. Idazkariak bilera baliogabea zela adierazi zuen, Mutrikuko Martin Irigoieni, urteko Diputatuari, baitzegokion deialdia egitea eta batzarra zuzentzea[41]. Urteko Diputatuak eta beste apaiz askok, hainbeste liskar eta enfrentamenduz eta kontribuzioz nazkaturik eta zigor gehiagoren beldur, uko egin zioten ez-legezko bilera hari. Bilera, haatik, egin egin zen: Diputatu guztiei boterea kendu eta berriak hautatu ziren; Apezpikuaren dekretu berriak gaitzetsi ziren; atzerriratuei erabateko babesa eskaini zitzaien; Erregearen diru-eskaera berriari uko egin zitzaion; esku arteko auzi guztiekin Erromaraino jarraitzea erabaki zen. Madrila auzitara

---

[38] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 109-110 orr.

[39] DEHA, GAN, A, 3, b, 171-178 orr.

[40] GAO, JD, IM, 4/2/9, 1. kaxa, 72. itema: " ... lo cual hareis cumplir a costa de los vienes y rentas de los referidos tres eclesiásticos.".

[41] DEHA, GAN, A, 3, b, Tolosako Aparteko Kongregazioa.

Urtero, txandaka, korriedoz korriedo, urteko Diputatua izendatzen zen, Diputatu Nagusiak (gaixo zegoelako, kanpoan zelako ...) huts egitera, honen ordezkotza egin zezan.

IAA, 1485. k., 1. zk.: Martin Irigoinek auzitara eraman zituen legez kontra biltzartutako apaizak, baina auziak ez zuen aurrerabiderik izan.

joateko Migel Andiazabal eta Domingo Larribarrena, Amasako eta Donostiako diputatuak, izendatu zituzten.

Gaztelako Kontseiluak ordezkarion bidaia debekatu egin zuen. Baita Hendaiako bisitak ere. Apaizek herrietako alkateen kontrako auziak ugaldu egin zituzten, eta baraua aldarrikatzeari uko egin zioten.

1717-07-28an, Azpeitian: Diputatu Nagusia atzerrian zelarik, Tolosako bikarioak, urteko Diputatuak, zuzendu zuen batzarra. Pedro Arrue benefiziatua izan zen Ordiziako diputatu [42].

1718-04-27an, Tolosan: Joakin Otamendi Belauntzako erretoreak, urteko Diputatuak, egin zuen deialdia eta batzarra zuzendu. Ordiziako korriedotik bi diputatu izan ziren: Ordiziako Antonio Aldabalde eta Beasaingo Migel Arrue benefiziatuak. Korriedoko ordezkaritzaren lehentasunaz eztabaidatu zuten [43].

Hiru borrokalarien atzerriratze-zigorrak porrot egin zuela ikusirik, 1718-10-05ean, konponbide berriren baten bila, zenbait apaizi Madrila hots egin zieten, errieta egiteko aitzakian. Auziekin jarraitzeko ituna zertu zuten eta Hendaiako atzerriratuei zigorra kendu zitzaien.

1718-11-16an Nuntziaturak, Aguado apezpikuaren ediktuari zuzenetsiz, apaizen kontrako epaia eman zuen eta auto guztiak Iruñera bidaltzeko agindu.

Apaizek Erromako Erritoetako Kongregaziora jo zuten, Apezpikuen eta herrialdeko agintarien indarkeriazko jokabideak salatuz. 1719-03-11n Erromak apaizen kexak eta arrangurak jaso eta bertara helarazteko eskatu zion Apezpikuari.

1719-03-28an Apezpikuak autoa eman zuen, aurreko urteetako dekretuak berretsiz, hots, San Ignazio bezperako barauaren derrigortasuna aginduz eta, bete ezean, zigor gogorrak ezarriz: eskomunioa eta hogei dukateko isuna; batez ere, GANeko buruei eta Herniobe eta Ordiziako korriedokoei [44].

1719-04-26an, Azpeitian: Jose Antonio Aialdek zuzendu zuen batzarra. Lazkaoko Jaunarekiko arazoaz eztabaidatu zuten eta arazoa argitu eta konpontzeko Tolosako bikarioa eta Otxoa Arin izendatu zituzten.

1720-04-26an, Tolosan: Aialdek zuzendu zuen batzarra. Deba eta Mutrikuko ordezkariak ez ziren azaldu eta, horren arrazoia eskatu zitzaien. Lazkaoko Jaunarekiko arazoari buruz hitz egiten jarraitu zuten: ez zen konponketarik izan eta auzitan jarraitzen zuten [45].

---

[42] DEHA, GAN, A, 3, b, 186-194 orr.
[43] DEHA, GAN, A, 3, b, 196-206 orr.
[44] DEHA, GAN, A, 3, b, 213-215 orr. (Ikus 1. Eranskina).
[45] DEHA, GAN, A, 3, b, 213-215 orr.

1720-04-30ean Apezpikuak, berriro, baraua aldarrikatzeko eta betetzeko agindua eman zuen. Bestalde, 1721-08-12an Penintsulako auzitegi ezberdinetan harat-honat zebiltzan zortzi auziak bildu eta denak Erromara igorri zituen. Aurrerantzean, Erritoetako Kongregazioak aztertuko zituen, eta azken epaia emango.

1721-04-29an, Azpeitian: Aialdek zuzendu zuen batzarra. Lazkaoko Jaunak Otxoa Arini egindako gutuna irakurri zuen honek; bertan bakezkoak egiteko asmoak azaltzen zituen. Horretarako, berriro, Tolosako bikarioa eta Otxoa Arin izendatu zituzten.

Bando zibilak aldarrikatzeari buruzko arazoak ere bizirik zirauen. Apaizek zein bando-mota nahi zuten pulpitutik ematea esateko eskatu zieten herrialdeko agintariei. Beste askotan legez, sesio eta ika-mika luzetan ibili ondoren, azkenik, bederen, amore eman zuten apaizek eta, 1721-09-15ean, zenbait bando ematea onartu zuten, 'bakearen eta kristau-karitatearen izenean' [46].

1721ean, Zarauzko benefiziatu baten hiletetan, zenbait apaizek, agintariei iseka eta erronkan, egundoko oturuntza egin zuten. Erregeak 1721-12-12an Aialde anaiak Frantziara erbesteratu zituen berriro; baina Otxoa Arin ez zen oraingoan atzerriratua izan. Apezpikuak, berriz, gainerakoen aurka jokatzeko agindu zuen, baina ez zuen neurri zehatzik hartu, gai honi buruzkoak Erroman ari baitziren aztertzen jadanik.

1722-04-25ean Apezpikuak, berriro, barauaren dekretua eman zuen, Erromak horrela aholkaturik, baina behin-behinekotasunez. Dekretu hau 1729 arte urtero-urtero eman zen (baita Andres Jose Murillo Velarde apezpikuaren -1725-1728- garaian ere). Zenbait apaizek, haatik, ez zuten aldarrikatzen.

1722-04-29an, Tolosan: Aialde diputatu nagusia ez zen azaldu batzarrera, atzerriratua baitzegoen Hendaian. Aialdetarren atzerriratzea gaitzetsi zuten. Otxoa Arinek Lazkaoko Jaunarekin ez zela konponketarik izan adierazi zuen [47].

1723-04-28an, Azpeitian: Antonio Zubeldiak, Abaltzisketako erretore eta urteko Diputatu Nagusiak, egin zuen deialdia eta batzarra zuzendu. Ordiziako diputatu Joan Ignazio Etxeberria benefiziatua joan zen. Aialde anaia atzerriratuak etxeratzeko kudeaketak egitea erabaki zuten. Migel Hernandosoro hil egin zenez, Migel Andiazabal Zizurkilgo erretorea hautatu zuten Idazkari berri. Bi eskutitz berri iritsi ziren GANera, Toledotik eta Kalagorritik, diru-laguntzak eskatuz [48].

1724-04-29an, Tolosan: Ignazio Altzagak, Azpeitiko erretore eta urteko Diputau Nagusiak, egin zuen deialdia eta batzarra zuzendu. Berriro Joan Ignazio

---

[46] IAA, 1496. k., 1. zk., 25-92 orr.
[47] IAA, 1496. k., 1. zk., 228-234 orr.
[48] DEHA, GAN, A, 3, b, 235-246 orr.

Etxeberria azaldu zen Ordiziatik. Lazkaoko Jaunarekiko auziaren (Ordiziako korriedoko parrokien lehentasunaren) konponbidea aztertu zen. Aialde anaiei aho batezko babesa eskaini zitzaien[49].

1725-04-29an, Azpeitian: Jose Antonio Aialdek, Diputatu Nagusiak, egin zuen deialdia, baina ez zen bilerara azaldu. Gaixorik zebilela eta, kargua uztea proposatu zuen, baina batzarkideek ez zuten onartu eskaera. Ordiziako diputatu Martin Abaria benefiziatua izan zen[50].

1726-05-08an, Tolosan: Aialdek zuzendu zuen batzarra. Ordiziako korriedoko ordezkaria hautatzerakoan sortzen ziren arazoez eztabaidatu zen. GANi bizi-ki interesatzen zitzaion auzi hori behin betiko konpontzea, Diputatu Nagusi berria aukeratzerakoan, zeini aitortu behar zioten lehentasuna jakiteko, etab. Otxoa Arin ez zen batzarrean izan, Ordiziaren eta korriedoko beste parrokien arteko gatazkari buruzko auzitan baitzebilen Nuntziaturan. Haren ordez, Joan Ignazio Etxeberria benefiziatua izan zen[51].

1727-04-23an, Azpeitian: Aialdek zuzendu zuen batzarra. Idazkari zaharra hil egin zenez, Lorentzo Aialde, Diputatu Nagusiaren anaia, hautatu zuten, aho batez, ordezko. Ordiziatik Joan Ignazio Etxeberria izan zen[52].

1728-04-28an, Tolosan: Aialdek zuzendu zuen batzarra. Ordiziatik Joan Ignazio Etxeberria azaldu zen. Otxoa Arinek, oraingoan Bozueko korriedoko diputatu, Lazkaoko karmeldarren komentukoekin 'Jus seppulturae'ri buruz izandako auziaz, Ordiziako parrokiaren eskubideez eta Iruñeak Ordiziaren alde emandako epaiaz hitz egin zuen[53].

Apaizek zuzenean Aita Santuarengana jo zuten. Benedikto XIII.ak, 1729-03-26an, auzi guztiak iraungi eta xedapen zibil eta Aguado apezpikuaren ediktu guztiak, hots, barau-botoa eta Foruen XXVII. Titulukoa baliogabetu egin zituen[54].

1729-05-05ean, Azpeitian: Usurbilgo erretoreak, urteko Diputatu Nagusiak, egin zuen batzarrerako deialdia. Diputatu Nagusi eta Idazkari berriak hautatu

---

[49] DEHA, GAN, A, 3, b, 247-253 orr.

[50] DEHA, GAN, A, 3, b, 254-262 orr.

[51] DEHA, GAN, A, 3, b, 263-268 orr.

[52] DEHA, GAN, A, 3, b, 269-276 orr.

[53] DEHA, GAN, A, 3, b, 277-280 orr.

[54] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 329. or.: " ... Benedicto XIII comprobó que el asunto era digno de la intervención pontificia, y que las leyes, ordenanzas y fueros, y el edicto de Aguado lesionaban la libertad y la inmunidad eclesiástica, y eran contrarios a las Constituciones sinodales, y que resultaba totalmente impracticable que los sacerdotes, invitados a las funciones, debiesen volver en ayunas a sus casas, distantes tres, cuatro y hasta cinco millas, avocó a sí la causa, extinguió todos los pleitos, anuló las disposiciones civiles y el edicto del obispo Aguado, y mandó que si surgiese algún nuevo abuso, el obispo de Pamplona juntase sínodo y lo remediase ...".

ziren: Lorentzo Aialde eta Joan Bautista Ulibarri. Lazkaoko karmeldarren aurka irabazitako auziaren berri eman zuen Otxoa Arinek. Aita Santuaren epaia, guztiz GANen aldekoa, pozarren onartu zen:

> " ... Y en razón al pleito de Fueros declara Su Santidad por nulos los de la Provincia que disponen de mortuorios, misas nuebas, bautizos, etcetera como lesivos de la inmunidad y libertad eclesiastica y se observen las Constituciones Sinodales de los Obispos que tratan de dichas funciones, impone a la Provincia cilencio perpetuo y pena de excomunión reservada a Su Santidad igual que se oponga a esta resolución; el M.I.C. ordenó se den las gracias a los dichos poder habientes por la firmeza y constancia con que han atendido a la defensa de causas tan importantes, al decoro de dicho Clero y a la inmunidad y libertad eclesiastica y que a la primera Congregación General traigan la razon de los gastos que se han causado en los años que han durado los dichos pleitos ..." [55].

1730-1736 bitartean, GANeko aktetan azaltzen denez, auziari buruzko aipamen, Erromako berri eta korriedoen arteko eztabaida anitz izan zen. Erromako ordezkaritza eta kudeaketak Anbrosio Albizurik egin zituen.

1729-06-09an Aita Santuaren bi Buldak ('Breve'ak) Iruñetik Madrila igorri zituzten. Herrialdeko agintariek Gaztelako Errege Kontseiluan atxikiaraztea erdietsi zuten. Gainera, ez-legezkotzat jo zituzten eta Aldundiak Erromara jo zuen [56].

Ataun, Lazkao, Olaberria eta Urrestillako bikarioek, beste herri guztietan ez bezala eta Aita Santuaren aginduari jaramonik egin gabe, barau-botoa zabaldu zuten. Meltxor Anjel Gutiérrez Vallejo apezpikuak (1729-1734), 1729-11-24an, hara igorritako Buldak itzultzeko eskatu zion Gaztelako Kontseiluari, zenbait apaiz barauaren aldeko sermoiak egiten ari zela eta.

1731-11-29an eman zuen epaia Erromako Erritoetako Kongregazioak, Aita Santuaren erabakia berretsiz: barau-botoa baliogabea zen [57].

1733-04-02an, Azpeitiko batzarrean, Jose Antonio Aialde diputatu nagusi ohiak eta Otxoa Arinek 875 egun egin zituztela Frantzian atzerriratuak eta Madrilen eta Iruñean, berriz, 400 egun adierazi zen.

Frantzisko Ignazio Añoa Busto apezpiku berriak (1735-1742), hitzez eta idatziz, gatazka behin betiko amaitzeko gogo bizia azaldu zuen. Herrialdeko agin-

---

[55] DEHA, GAN, A, 3, b, 281-286 orr. Idazkera Lorentzo Aialderena da.

[56] GAO, JD, IM, 4/2/9, 2. kaxa, 2-6 zk. Herrialdeko agintarien eta Madrilgo Jose Antonio Isasiren arteko korrespondentziaren arabera, Buldak Madrilen atxikiaraztea erdietsi zuten.

[57] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 323-327 orr. :Auzi osoaren laburpena eta barau-botoaren baliogabetasunaren arrazoiak.

tariek, ordea, ezin zuten etsi porrotarekin eta 1736-06-17an, berriro, barau-botoa egitea eskatu zuten. Apaizak, denak ez, aurka agertu ziren.

1736-08-10ean gutun bana idatzi zien Apezpikuak apaizei eta Aldundiari, bere bake-asmo sendoak adieraziz [58].

1736-09-04an, Tolosako batzarrean Apezpikuaren bakebiderako proposamen-gutuna irakurri zen. Lorentzo Aialde eta Otxoa Arin izendatu zituzten herrialdearekiko auzi zaharra konpontzeko ordezkari.

Azkenik, hogeita zazpi urte luzeren buruan, 1737-05-15ean, Azkoitiko Basarteko Gurutze Santuaren komentuan sinatu ahal izan zen adostasun-hitzarmen pozgarria, herrialdearen aldetik, Frantzisko Munibe Idiakez Peñafloridako kondea eta Jazinto Agirre Eleizalde eta, apaizen izenean, Lorentzo Aialde eta Jose Aszentsio Otxoa Arin borrokalari zaharrak izan zirelarik eta arbitro-lana Apezpikuak berak egin zuelarik. Bi puntuok onartu ziren:

1.- Herrialdeak egiten zion gonbitari pozarren erantzunez, Elizak San Ignazio bezperako barauaren botoa egitea onartu zuen. Horrela, komunitate biek batera hartu zuten erabakia. Apezpikuak lau egunera, 1737-05-19an, berretsi zuen botoa eta hurrengo igandeko meza nagusian pulpitutik aldarrikatzeko agindua eman zuen.

2.- Elizak herrialdearen Foru Zaharrak onartzen zituen, baina hauek zuhurtziaz eta moderazioz interpretatuko ziren. Apaizek, aurrerantzean, meza berri, hileta eta horrelako ospakizunetako ordu arteko gehiegikeriak ekiditeko konpromisoa hartu zuten. Apezpikuak egun berean berretsi zuen erabaki hau [59].

Azkoitiko bake-hitzarmena ospatzeko, 'Te Deum' kantatu zen eta suziriak bota ziren Ordizian. 1737-06-07an Udalak bake-hitzarmenaren berri eman

---

[58] Goñi Gaztambide 1989: VII.a, 395-396 orr.: "El 10 agosto 1736 Añoa había escrito una carta al clero, en la que le exhortaba, suplicaba y pedía que discurriese los medios más adecuados para el logro de una concordia, con la cual se asegurase la unión, la paz y una buena correspondencia entre el clero y la Provincia, dando fin a las disputas que se venían altercando desde el año 1710. El mismo día dirigió una carta análoga a la Diputación.".

[59] DEHA, GAN, A, 3, b. Akordioaren kopia eta xehetasunak. Notario-lanak Joakin Oiartzabalek egin zituen. Oiartzabal Alegia eta Amezketako notario zen, baina bere agiri gehienak Azkoitikoak, Peñafloridako kondearenak hain zuzen, dira.

GAO, PT, IPT, 1184. agiri-sorta, 30-45 orr. Jatorrizko hitzarmena. Otxoa Arinen sinadura oso adierazgarria da: parrokiako partidetako idazkera dotorea jadanik galdua du; zahartzaroaren (eta itsu geratzen ari zenaren) seinale.

González 1995: 225. or.: "Se ponía, así, punto final a una controversia que surgió y se desarrolló en un período especialmente delicado de la vida provincial, pues coincidió con la ofensiva antiforal que dio lugar al traslado aduanero, Machinada e invasión francesa. En esos graves sucesos, una parte importante del clero apoyó a las tesis contrarias a los privilegios provinciales.". Kataluniak, Valentziak, Mallorcak eta Aragoik beren Foruak galdu zituzten.

zuen[60]. Hiru hilabete lehenago, 1737-03-09an, Otxoa Arin bikarioaren 1713ko 'Kristau Doktrina' herritarren artean banatzeko erabakia hartu zuen.

Hurrengo urteetako Kongregazioetan diru-kontuak eztabaidatu ziren: GANek 499.522 erreal gastatu zituen auzitan eta abarretan; Otxoa Arini 9.072 erreal zegokion kobratzea. Kobratu ote zituen?[61].

[60] OUA, Erabakiak, 1, 1736-1742 urteak: "Leyase la Carta Circular despachada por la Diputación de esta M.N. y M.L. Provincia de fecha de 20 de Mayo próximo pasado, con las copias de la escritura de transacción y ajuste otorgado entre su Diputación y los del M.I. Clero de esta Provincia, en razón del votto del ayuno de S. Ignacio y el acuerdo hecho por los Diputados de ambas Comunidades con asistencia del Obispo de Pamplona, en razón del arreglamiento de la controversia sobre la observación de los Fueros ...".

[61] DEHA, GAN, A, 3, b, 1739-04-28ko Azpeitiko Kongregazioan, besteak beste. Bertan izan zen Otxoa Arin, Ordiziako diputatu legez.

6. AZKEN URTEAK

Jose Otxoa Arin bere bizitzako azken urteetan erabat itsu geratu zen. 1735. urteaz gero, behinik behin, ikusmena murriztu egin zitzaion oso eta ez zen elizako agiriak idazteko ere gauza. Langintza honetan Martin Xabier Etxeberria Loinazek lagundu zion. Honela dio J.I. Senpertegik:

> " ... Saven que son escripturas de mano de Don Martin Xavier de Echeverria y Loynaz vecino de esta dicha Villa que oy se halla en la Ciudad de Pamplona por Oficial Maior en la Conttaduria de la Renta del tabaco del Reyno de Navarra de quien el dicho Don Joseph Ochoa en sus postrimerias que padeció el accidente de total falta de la vista, (como es publico y notorio), se valia para hacer dichos asientos, como de persona de su maior confianza y satisfacion ..." [1] .

Jose Andres Lizarraga benefiziatuak ere lagundu zion. Baita Senpertegik berak ere: 1738-11-09tik 1743-11-17ra bitarteko zortzi heriotza-agiri Senpertegik transkribatu zituen, beste koaderno batetik: " ... haviendo encontrado en un cuaderno manual precedente ...". 1735az geroko eliz partidak, Jose Otxoa Arinek sinatuak badaude ere, beste batzuek idatziak dira. 1740-09-07tik 1742-03-05era bitarteko partidetako sinaduretan, aurreko urteetako letra txit dotorearen aldean, bikario xaharraren esku-dardara nabaria da oso. Azken partidak ez zituen sinatu ere egin.

Geroago ikusiko dugun bezala, 1737-03-09an, Ordiziako Udalak bikarioak 1710ean idatzi eta 1713an argitaratutako Kristau Doktrina, ordu arte zabaldu gabea, herritarren artean banatzeko erabakia hartu zuen [2].

Itsu geratu arren, Gipuzkoako Artzapez Barruti Nagusiko diputatu hautatua izan zen, 1738-04-29an Tolosan, 1739-04-28an Azpeitian eta 1740-04-27an Tolosan parte hartu zuelarik, Ordiziako korriedo erdiko ordezkari gisara.

---

[1] DEHA, Ordizia, P-15.
[2] OUA, Erabakiak 1 (1736-1742).

1738an sute handi bat izan zen Ordizian, kale-etxeetan pilatzen zen lastoagatik edo [3].

Jose Otxoa Arin 1743ko maiatzaren 24an hil zen, testamenturik egin gabe:

> "Don Joseph Ochoa de Arin Vicario de esta Parroquial: El dia veinte y quatro de Mayo del año de mil setecientos y quarenta y tres, murio ab intestato, haviendo el dia antes veinteytres de dicho mes recivido por devoción los Santos Sacramentos de la Penitencia y Eucharistia, Don Joseph Ochoa de Arin, sugeto de mucha literatura, Presvitero y Vicario de la Parroquial de esta Villa de Villafranca, acérrimo defensor de la inmunidad eclesiastica, y su cadaver fue enterrado en la Parroquial de esta Villa en la Sepultura de Sacerdotes que está en dicha Parroquial en medio. Sus funerales, en la Cofradia entera de la Vera Cruz, hicieron mui cumplidamente, Doña Clara de Ochoarin y demas hermanas del difunto ..." [4].

Azpimarragarriak bi esaldiok: "Sugeto de mucha literatura" (Kristau Doktrinagatik? Sakramentu-agirietako estiloagatik?) eta "Acérrimo defensor de la inmunidad eclesiastica".

Jose Ignazio Senpertegi, jatorriz Tolosakoa eta urteetan Ordiziako benefiziatu izan zena, jarraitu zitzaion bikario-karguan, 1743-10-03an [5].

---

[3] EGIPVko DEV XXXIV, 280. or.

[4] DEHA, Ordizia, P-15, 90. or.


[5] IAA, 1596. k., 3. zk.




Ataungo Arin Haundi (Aranburu, P.J.)



Otxoa Arindarren Genealogi Liburuaren azala. (Aranburu, P.J.)



Doktrinaren azala. (Aranburu, P.J.)



1

IHS.

DOCTRINA CHRISTIANAREN TEXTOA.

PATER-NOSTERRA.


Math. c. 6. à ℣. 9. usque ad 13. It. Luc. c. 11. à ℣. 2. usque ad 5.

AIta geurea, Ceruetan zaudena: ſantifica tua izanbidi ceure icena. Betor ceure reinua gugana. Eguin bidi ceure vorondatea, nola Ceruan, à la lurrean. Eman eguiguzu egun gueuren egunoroco oguia. Eta barcatu eguizcutzu gueuc zorrac, gueuc gueren zordunai barcatzen diegun becela. Eta ez tentacioan eroiten eutzi oz gaizatzula. Baicican libra gaitzatzu gaitcetic, Amen.

A

Ain

Doktrinaren orrialde bat. (Aranburu, P.J.)



Dodgsonen berrargitalpenaren azala. (Aranburu, P.J.)

BIGARREN PARTEA
ORDIZIAKO DOKTRINA

Gure lanaren bigarren parte honetan Jose Otxoa Arin apaizak idatzitako Kristau Doktrinaren azalpena eta hizkuntz azterketa egingo dugu.

Parte hau zortzi azpiataletan banatu dugu:

1. Kristau Doktrina zaharrak
2. Ordiziako Doktrina
3. Lexikoa
4. Perpausaren osagaiak eta Deklinabidea
5. Aditza
6. Joskera
7. Ondorioak
8. Zati hautatuak

1. KRISTAU DOKTRINA ZAHARRAK

Euskal Herriko Eliz Barrutietan (Kalagorri, Iruñea, Baiona, Akize nahiz Oloruekoan) euskara, katekesi-alorrean ere, latinaren eta auzo-erdaren nagusitasun kulturalaren indarragatik, ez zen aintzakotzat hartua izan denbora luzean. Halere, Trentoko Kontzilioaren ondotik (1545-1563), euskal apezpikuak biziki arduratu ziren Doktrinak herriaren hizkuntzan (Eliz Barrutietako euskalkietan) argitaratzeaz. Besteak beste, 1600. urte aldera, Pedro Manso Kalagorriko apezpikuak urtero-urtero euskarazko (bizkaierazko) Kristau Ikasbideak ateratzeko agindu zehatza eman zuen; bete ez zen agindua, jakina[1].

Lehenagotik ere izan bide ziren euskalki ezberdinetako eskuizkribuak, baina gaur egun ezagutzen diren Doktrina zaharrenak XVI. mendearen erdialdetik

---

[1] Aranburu eta beste batzuk 1995: 55-56 orr.

EGIPV, Literatura I, 1978: 89-92 orr.: Lehen Kristau Ikasbideak Ahaide Nagusien arteko borrokek sortutako nahasmenduan sustraituriko gizartearen erabateko aldaketaren ondotik hasten dira loratzen, hots, Batzar Nagusiek Ahaideok erro-errotik menderatu ostean. Gure Ahaide Nagusien liskar eta sarraski grinatsuak baretu eta herrialdeak Batzarren eskumeneko bilakatzean, bake-giroa nagusitzen da Euskal Herrietako alor orotan. Hementxe kokatu behar da euskal literaturaren sorrera; baita Kristau Doktrinena ere.

Mitxelena (EIG IV) 1988: 65. or.: "Eliza katolikoa mila eta seirehun ingurutik aurrera behintzat dotrina eta gainerako erlijio gauzak irakasteaz arduratzen da, eta arduratzen denez gero, badaki neurri handi batean bertako hizkuntzan irakatsi behar dituela gauza horiek, euskaraz alegia".

Michelena 1988: 61-63 orr.: "Si un hecho en la historia moderna ha tenido una profunda repercusión en Vasconia, éste es el Concilio de Trento ... Se toman entonces medidas sistemáticas para que los sacerdotes se ocupen de una manera regular y efectiva de la instrucción religiosa de los fieles, actividad que hasta esas fechas parecen haber tenido muy abandonada en muchos lugares. Los obispos de Calahorra y Pamplona se preocuparon además de que tanto la enseñanza del catecismo como la predicación se hicieran en lengua vernácula: constituciones sinodales y mandatos de visita establecen que todos los cristianos deben llegar a saber 'en su propia lengua' la doctrina cristiana ... Desde finales del siglo XVI ... queda abundante constancia ... del constante celo con que las autoridades eclesiásticas velaron porque la numerosa población del país que no conocía prácticamente otra lengua que la vasca fuera instruída en ésta y no en otra".

Halaber, Villasante 1979: 122. zk.

aurrerakoak ditugu. Etxepare eta Leizarragaren mendean, Euskal Herrian inprenta sartzearekin, baditugu hiru bat, Nafarroan (Hego eta Iparrean) eta Bizkaian:

Denetan zaharrena, Antso Elso (Sancius de Elso) fraide naparrak, goi-nafarreraz egindako "Doctrina Christiana ... en castellano y vascuence" (Lizarra ala Iruñea?, 1561). Tamalez, ez da ale bakar bat ere kontserbatzen. (Villasante 1979: 59. zk., 12. ohar.).

Hurrena, hamar urte geroago, Beskoitzeko Joannes Leizarraga artzain kalbinistak Joana Albret Nafarroako Erreginaren aginduz prestatutako "A.B.C. edo Christinoen Instructionea" (Rochelle, 1571). Iparraldeko euskalkiez osaturiko euskara 'bateratu' antzeko landu, kultuan. (Villasante 1979: 45. zk.).

Hirugarrena, mendearen azkenaldera, Joan Perez Betolaza doktoreak, gorago aipatu Pedro Manso Kalagorriko apezpikuaren aginduz bizkaieraz egindako "Doctrina Christiana en romance y basquençe" (Bilbo, 1596). (Villasante 1979: 59. zk.).

XVII. mendean, Axular eta 'Sarako Eskola'ren garaian, Iparralde, Nafarroa zein Bizkaikoez gain, Gipuzkoako lehen pare bat ere baditugu:

1609 aldera, Martin Yañez Arrieta Azpeitiko maisuak Jerónimo Ripalda jesuitaren gaztelerazko "Catecismo, y exposición breve de la Doctrina Cristiana" argitaratu berriaren gipuzkerazko itzulpen-moldaketa egin zuen; ezin izan zuen, ordea, argirik ikusi, Batzar Nagusiek diru-laguntza (200 dukat) 'No ha lugar' hotz batez ukatu ziotelako. Honela, gipuzkerazko lehen liburua gerta zitekeena gabe geratu ginen euskaldunok. (Michelena 1988: 64-65 orr., eta Insausti 1958: 78-83 orr.).

Estebe Materre frantziskotar frantsesaren erdi Doktrina, erdi Debozio-liburu den "Doctrina Christiana" lapurteraz (Bordele, 1617). Atzerritar honek Axularrekin harreman handia izan bide zuen; honekin ikasi zuen euskara, eta beronek aztertu zuen haren lana eta argitaratzeko oniritzia eman. (Villasante 1979: 62. zk.).

Joan Beriain Uterga eta Olandaingo apaizaren "Doctrina Christiana escrita en romance y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona" (Iruñea, 1626). Lapurteraren oso antzeko goi-nafarreraz. Beriainen garaian euskarak bizirik zirauen Iruñea inguruan; Tafallaraino hedatzen omen zen gure hizkuntza. (Villasante 1979: 95. zk.).

Baionako Joannes Olze apezpikuak "Pregarioac" doktrinatxoa bertsotan argitararazi zuen, lapurteraz eta behe-nafarreraz (Bordele, 1651). (Villasante 1979: 89. zk.).

Silvain Pouvreau Bidarteko apaiz frantsesaren "Guiristinoaren Dotrina", Richelieu kardinal eta politiko frantses ospetsuaren "L´Instruction du Crestien" (Poitiers, 1621), lapurteraz (Paris, 1656). (Villasante 1979: 79. zk.).

Martin Otxoa Kapanaga Mañariko abade eta Durangoko maisuaren "Exposición breve de la Doctrina Christiana", Ripaldaren bizkaierazko itzulpena, (Bilbo, 1656). Honek Arrieta azpeitiarrarenak baino zori hobea izan zuen. Kapanagaren bizkaiera arkaikoa sakon aztertu zuten Eguzkitza eta Azkue euskaltzainek; honek bere "Morfología Vasca"n 'hizkuntz autoritate'tzat ematen digu. (Villasante 1979: 96. zk.).

1660 inguruko bizkaierazko anonimo bitxia: "Viva Iesus I.H.S. y sea para honra, y Gloria suya este Compendio, ó suma breve de la Doctrina Christiana"; sarrera salbu, euskara hutsean. (Michelena 1954: 85-95 orr., eta 1988: 65. or.).

Arnauld-François Maytie Olorueko apezpikuaren manuz, "Pronus singulis diebus Dominicis ... post Evangelium populo legendus" (1676) zubereraz. Izenburuak dioen bezala, doktrinatxo hau igandeetako mezetan, Ebanjelioaren ostean, pulpitutik herriari irakurtzeko asmoz moldatua da. (Villasante 1979: 89. zk.).

J.B. Amilletaren 'Antzuolako Doktrina' legez ezaguna dena, Gipuzkoa aldeko bizkaieraz (1678 aldera). (Michelena 1987: I. tomoa, XXIII. or.).

Nikolas Zubiaren "Doctrina Christiana en basquence" bizkaieraz (Donostia, 1691). (Michelena 1988: 65. or.).

Baionako Leon apezpikuaren manuz, "Doctrina Christiana" (Baiona, 1693 aldera) lapurteraz. (EGIPV, Bibliografía II: 292. or., eta III: 21. or.).

Eta mendearekin amaitzeko, Athanase Belapeyre apaizaren "Catechima laburra" (Pabe, 1696), zubereraz moldatutako doktrinatxoa. (Villasante 1979: 89. zk.).

XVIII. mendean, M. Larramendi jesuita andoaindarraren eraginaz gipuzkera literarioak indar hartzen duenean, askoz ere ugariagoak ditugu Kristau Ikasbideak, orijinalak zein itzulpenak; (hauek, batez ere, Asteterenak).

Gaspar Astete jesuita (Salamanca, 1537-Burgos, 1601); latin-irakasle, nobizio-maisu, konfesore, sermoilari, Burgos eta Villimarko erretore. Honen gaztelerazko "Doctrina Cristiana" (1598) Europako hizkuntza guztietara itzuli zen. Euskaraz ere itzulpen eta moldaketa ugari, ia-ia konta ezin ahala, egin ziren, hasi XVII.ean eta hiru mende luzetan zehar. Lehena jatorrizkoa azaldu eta oso urte gutxira, Iruñean, 1609an; gaur erabat ezezaguna. Asteterenaren euskal bertsioetan denetik daukagu: lan luze zein laburrak, euskara txukunean edota traketsagoan ... (EGIPV, DEV III: 161. or., eta Sorarrain 1984: 243. zk.).

Jacques Maytie Olorueko kalonjearen "Catechima", Joseph Revol apezpikuaren manuz egina, zubereraz (Pabe, 1706). (Sorarrain 1984: 180. zk.).

Eta aztergai dugun Otxoa Arinen 1713koaren osteko bi baino ez ditugu aipatuko:

Irazustarena, euskara kaskarrean (?) badago ere, bere garaian erabiliena eta

edizio ugari ezagutu zituena: "Doctrina Christiana Eguinzuana erdaraz Aita Gaspar Astete, Jesuitac. Ipinidu Eusqueraz Don Juan de Irazusta, Erretore Hernialdecoa. J.J. Martinez, Iruñea, 1739". Konta ezin ahala edizio izan dituen eta gureganaino iritsi den Doktrina ospetsu honek 'desagertarazi' bide zituen gainerako Doktrina gipuzkoarrak (Otxoa Arinena bera ere bai, beharbada). (Villasante 1979: 123. zk. EGIPV, Bibliografía IV: 410. or.: Jon Bilbaok berrogeita hamar ediziotik gora jasotzen ditu).

Eta Zegaman eta Olaberrian erabili bide zen Martin (Ignazio) Urteagaren (?) 1741eko (?) "Doctrina christianaren explicacioa Cegamaco escolan (Gaztelinaz ostean) eracustendan moduan ...". Hauxe dukegu, Otxoa Arinenaren hurrena, Goierriko bigarren Doktrina. (Ondarra 1984: 3-62 orr. Baliteke Irazustaren 1739koa baino zaharragoa izatea ere).

Goierriko Doktrina zahar hau ere maiz aipatuko dugu aurrerantzean, Otxoa Arinenarekin alderatuz [2].

[2] Atal hau moldatzeko: Aranburu eta beste batzuk 1995: 56-59 orr., eta 4-28, 66 oin-oharrak.

2. ORDIZIAKO DOKTRINA

Jose Otxoa Arin apaizak euskarazko Kristau Ikasbide bat utzi zigun: "Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan. Erri Noble onen instanciaz escrivitu ceban beraren Vicario, eta Capellau D. Joseph Ochoa de Arinec Pueblo onetaco Aurray iracasteco. Dedicatcen dio Erri illustre oni Cartilla au. Eta Villa Francaco Erriac consagratcen dio bere Patrona Soberana Maria Santissima Assumpciocoari. urte 1713. Donostian Pedro de Ugarte,ren Echean".

Izenburuak dioen bezala, Ordiziako euskaran dago idatzia eta bere helburua herriko haurrei Kristau Ikasbidea irakastea da. Herriak berak (Udalak?) eskaturik idatzi omen zuen Doktrina; honelako libururen baten premian izango zen, nonbait.

1713an argitaratua izan bazen ere, 1710erako amaitua zuen Doktrina. Sarreran hiru lizentzia edo argitaratzeko baimen azaltzen dira: Iruñeko Bikario Nagusiaren aginduz, Domingo Ibiriku fraide mesedetakoak, Apezpikutegiko aztertzaile eta zentsuratzaile sinodalak, arreta handiz begiratu eta irakurri ostean, haurren heziketarako eta apaizen lanerako lagungarri egokitzat jo eta bere oniritzia eman zuen 1710-01-17an. Hurrengo egunean, 1710-01-18an, Frantzisko Ignazio Arantzeaga bikario nagusiak, Joan Ignazio Arnedo apezpikuaren izenean, Doktrina argitaratu ahal izateko eliz baimena eman zuen. Eta 1710-05-28an, Azkoitian, Antonio Zorrobiagak, Alvaro Villegas korregidorearen izenean, argitaratzeko lizentzia zibila eman zuen.

1713an 1652 ale argitaratu ziren eta bikarioak 150 banatu zituen herrian, ziur aski berak ordainduak. Zer gertatu zen beste 1502 aleekin?

Lehenago ikusi dugun bezala, 1710-1737 bitartean egundoko enfrentamenduak izan ziren herrialdeko agintari zibilen eta apaizen artean eta Otxoa Arin bera ere borroka horretan erabat murgildurik ibili zen. Kristau Doktrinaren 1502 aleak Donostiako argitaletxean egon bide ziren zokoratuak, inork ez zituelako

ordaindu, jaso eta zabaldu nahi izan. Gainera, bitarte horretan Ugarte argitaratzailea hil egin zen[1].

1737-03-09an, bakezkoak egitean, Ordiziako Udalak bere gain hartu zuen herriko bikarioaren Doktrina ordaintzeko eta herritarren artean banatzeko ardura:

> "Reximiento de 9 de Marzo de 1737. Los Señores Alcalde Lassa, Regidores Ezpeleta, Síndicos Baztarrica, Vicuña, Lardizabal, Gaztañaga maior y menor, y Barriola: Aviendo hecho venir la Villa la Cartilla de la Doctrina Cristiana en bascuence, que con infatigable celo del bien espiritual, dispuso y dedicó a la Villa su Vicario el Señor Don Joseph Ochoa en el año pasado de 1710: acordaron sus mercedes que en nombre de la Villa pasen de este Ayuntamiento los Señores Don Nicolas de Vicuña, y Don Juan Francisco de Lardizabal a repetir al Señor Vicario las mas expresivas gracias, por obra tan del agrado de Dios, y utilidad de las Almas, y ofrezcan a la disposizion de su merced, 1502 tomos que han venido ahora, de 1652 impresos y enquadernados en todo, pues los otros 150 tomos, se hicieron venir antes de aora, y fueron distribuidos por el mesmo Señor Vicario, a lo que se ofrecieron gustosos los Señores nombrados, quienes aviendo dado cumplimiento al encargo del Ayuntamiento bolvieron a el, y le manifestaron lo mucho que el Señor Vicario havia apreciado la atencion de la Villa, y que su merced dejaba la Cartilla con su persona a la disposizion de la Villa para que hiciese con ella como de cosa suia; en cuia vista acordaron dichos mercedes: que los mesmos Señores Don Nicolas, y Don Juan Francisco expresen al Señor Vicario la estimacion de la Villa a su fineza, y que el Señor Alcalde le haga en nombre de la Villa a costa della, una demostracion de agradecimiento. Que a Eugenio de Urbiztondo vecino de San Sebastian que por muerte de Pedro de Ugarte, con quien se ajustó la Impresión, y enquadernación de la Cartilla, ha hecho enquadernar estas, y la remision de los 1502 tomos, se le acuse el recivo, y se le paguen 286 reales, y 12 maravedis de vellon, que se deben para entera satisfacción del importe de la Impresión y enquadernación de los 1652 tomos; y que se paguen tambien a Pedro de Otamendi, por la conducción desde San Sebastian de los 1502 tomos, tres pesos. Que por ahora recoja y tenga en su poder los 1502 tomos dicho Señor Lardizabal, quien se ofrecio a ello gustosso; y que el mesmo Señor Lardizabal dé a cada vezino Concejante y a mí el escribano una Cartilla graciosamente, como tambien a los señores del Cavildo y Maestro de niños."[2]

---

[1] Pedro Ugarte Donostian bizi zen eta argitaletxea zuen. 1729-05-15ean hil zen eta San Bizente parrokian egin zizkioten hileta-elizkizunak hurrengo egunean: DEHA, Donostiako San Bizente, M 406, 94. or.

[2] OUA, Erabakiak 1, 1736-1742 urteak: Eugenio Urbiztondo donostiarrak amaitu zuen, bada, Pedro Ugartek hasitako lana. 286 erreal eta 12 marabedi ordaindu zitzaizkion. Eta Pedro Otamendi garraiolariari, berriz, hiru peso. (Ikus 2. Eranskina).

1902-09-09an Edward Spencer Dodgson ingelesak Doktrinaren bigarren argitalpena eragin zion Lanberto Lantzis donostiarrari. 110 ale atera zituen, eta 260 pezeta ordaindu. Donostiara jo aurretik, Tolosako Frantzisko Mugertzari egin zion argitaratzeko eskaera, baina hau nahikoa ezkor azaldu bide zitzaion:

> " ... Aiñ ichutua dago gendea gure erri oetan Castillaco itzquerara ece, leyatzen dira ceñec baño ceñec obeto itzeguin, batere contuan iduquigabe zer gauza ederra daucagun gueren echean ... Bialdu zadazu, nai dezunean, Arin jaunaren Dotrina: eta escu arteco lan oec bucatu bitartean, pensatuco det cer modutan eguin, quenduaz erdera eta latiña deseo dezun moduan ..." [3].

Otxoa Arinen Doktrinak hedapen txikia izan zuen. 1737an Ordizian zabaldu eta bi urtera, 1739an, Joan Irazusta Hernialdeko erretorearena azaldu zen eta honek desagertarazi bide zituen gainerako Doktrina gipuzkoarrak [4] [5].

Gaspar Astete Burgosko jesuitaren "Doctrina Cristiana" 1598an azaldu zen. Harrezkero, Doktrina ospetsu honen itzulpen eta moldaketa ugari egin ziren euskaraz. Otxoa Arinena ere bertsio horietako bat da: Oraintsu arteko Doktrina gehienak bezala, 'Galdera eta Erantzuna' sistema pedagogikoan dago moldatua eta Asteterenaren egitura eta banaketa berak ditu. Lau parte eta hiru eranskin edo gehigarri ditu:

• Korregidorearen Lizentzia. Elizaren onespena. Apezpikuaren Lizentzia. Erdal Hitzaurrea. Euskal Hitzaurrea (8 orrialde).

• Otoitzak: Aita Gurea, Agur Maria, Agur Erregina. Kredoa. Hamar Aginduak. Elizaren Aginduak. Sakramentuak. Fedeko Artikuluak (1-9 orr.).

---

[3] Villasante 1979: 122. eta 454. zk.: Edward Spencer Dodgson ingelesa euskal bibliografian adituenetakoa eta euskaltzale sutsua izan zen. Besteak beste, Mikoleta, Kapanaga, Otxoa Arin, Mendiburu, Kardaberaz, Santa Teresako Bartolome, Leizarraga, Urteren lanak berrargitaratu zituen. " ... Porque sabía apreciar sin duda el valor lingüístico de éste y otros textos viejos, el vascófilo Dodgson reeditó el catecismo de Ochoa de Arín.".

"Ordisiako Doctrina Christiana de Guipustarren heuskarasko libruetatikan saarrena" eta "El libro de J. Ochoa de Arin es interesante porque se considera como el libro más antiguo impreso en Guipuzcoano" dio Dodgsonek berak.

Dodgsonek, berrargitalpenean, alde batetik, jatorrizko Doktrinako latinezko iruzkinak eta zitak kendu egin zituen, eta, bestetik, Otxoa Arinen bizitzari eta obrari buruzko zenbait ohar eskaini zizkigun (adizki hustuketa, etab.).

[4] Irazustaren Doktrinak, Otxoa Arinena baino euskara 'arinagoan', 'errazagoan' (?) idatziak, egundoko arrakasta izan zuen. Berrogeita hamar ediziotik gora aipatzen ditu Jon Bilbaok (EGIPV, Bibliografía IV: 410. or.).

[5] Gure lanerako Lazkaoko beneditarren monasterioko liburutegiko aleak erabili ditugu. 1902koa Dodgsonek berak, argitalpena egin eta hiru egunera, Belokeko beneditarren monasterioan bizi zen Basilio Joannategiri oparitua da.

• Lehen partea: Kristauak zer jakin behar duen (10-54 orr.).

• Bigarren partea: Kristauak zer orazio egin behar duen (55-59 orr.).

• Hirugarren partea: Kristauak zer egin behar duen (59-63 orr.).

• Laugarren partea: Kristauak zer hartu behar duen (63-97 orr.).

• Bizio eta bertute nagusiak. Arimaren etsaiak, ahalmenak eta zentzuak. Errukizko Egintzak. Bertute teologalak eta kardinalak. Espiritu Santuaren Dohainak eta Fruituak. Zoriontasunak (98-128 orr.).

• Kontzientzia aztertzeko eta aitortza ona egiteko aholkuak (129-175 orr.).

Guztira: 183 orrialde. Orrialdeen ertzetan eta kapituluen amaieran ohar eta iruzkin ugari (Bibliako eta Eliz Gurasoen aipamenak), latinez[6].

[6] Villasante 1979: 122. zk.: " ... este catecismo está materialmente cosido de citas bíblicas y patrísticas, puestas al margen ...".

3. LEXIKOA

XVIII. mendearen erdialdetik aurrera Larramendik eta honen hurbileneko jarraitzaileek (Kardaberazek, Mendiburuk, Ubillosek ...) Hego Euskal Herriko literaturaren (batez ere, gipuzkera eta bizkaierazkoaren) eraberrikuntza eragin zuten: Erdarakada larriegietatik garbitu zuten hizkuntza, aprobetxatu beharreko maileguak ere aprobetxatuz; ordu arteko euskalkien muga estuak gaindituz, bateko eta besteko, Euskal Herri osoko hitzak (liburuetakoak zein herri-hizkerakoak) jaso eta hedatu zituzten; atzizki lexikalen sarea eta hitz eratorrien eremua, ordu arte aski murritza, handitu zuten ..., hitz batean, hizkuntza idatzia (eta mintzatua: sermoietakoa-eta) erdararen morrontza penagarritik askatu eta nortasun berria eman zioten Hegoaldeko euskarari [1].

---

[1] Sarasola 1986: 203-215 orr.: " ... Larramendiren eragina neurtzeko ez da aski 'agerkidatu', 'jaiera' edo 'leinargiti' agertzen diren testuen bila aritzea. Beraren lana zela medio Hegoaldean (edo Gipuzkoan edo Bizkaian) hedatu ziren hitzak ere kontuan hartu beharko lirateke. Izan ere, hitz asko dira gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen baditugu ere Larramendiri eskerrak berezko eremutik at hedatu direnak ... Arazoa oro har harturik, Larramendiz aurreko eta ondoko idaztankerak dira erkatu beharko liratekeenak ... Ia erabateko eraberritze hori ez dagokio soilik hiztegi-alderdiari. Hizkuntzarekiko jarrera orokorra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erdararen mendeko eta morroi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko baliabideei begira jartzen saiatzen hasi da euskal idazlea ...".

Lakarra: 11-50 orr.

Altzibar 1992: 325-360 orr.: " ... Larramendiren Gramatika eta batez ere Hiztegia, ideia eta maisutzak bultzatutako giputz-euskara idatziaren eraberrikuntza eta apainketarekin eta ondorengo Kardaberaz eta Mendibururen liburuekin sortzen da literatur-gipuzkera. Larramendiren eraginezko eraberrikuntza hiztegira ez ezik euskara idatziaren arlo guztietara hedatzen da ... Lagundiko aipatu hirukotearen ideia eta idazkiek bideratu zuten gipuzkera idatzia ... Argi dago Larramendik hegoaldeko euskararen berrikuntza nahi zuela eta tresna batzuk eskaini zituela, batez ere hiztegia eta gramatika ... Euskara beregain nahi bide zuen kultur hizkuntz gisa eta beste hauen (erdaren) pareko. Beregain hiztegian, gramatikan, hitzordenan, ortografian e.a. ...".

Otxoa Arin Larramendi baino lehenagokoa dugu, ordea[2]; Gipuzkoako idazlerik zaharrenetakoa; gipuzkera literarioaren aitzindari[3]. Eta 'Larramenditarren' literatur 'iraultza' aurreko izate horrek muga nabariak ezartzen dizkio Doktrinari:

Zenbaiten iritzira, Otxoa Arinen (baita geroagoko autore klasiko askoren) akatsik nabarmenenetakoa maileguen erabilera itzela dateke. Doktrina, goitik beheraino, erdal eta latin hitzez josia ageri zaigu. Askok eta askok, egia esan, alfer-alferrikakoak ere badirudite ('Pueblo, Sacerdote, juntamente, solo bere vorondatez, igualac eta berdiñac, distinta edo diferente ...'). Hain lexiko (eta joskera) 'mordoiloa' erabiltzeagatik, 'garbitasunaren' ikuspuntutik 'nabarmenegiak', 'barkaezinak' bide diren erdal hitz eta joskerak erabiltzeagatik, ahaztuak, baztertuak, mesprezatuak izan dira askotan gure klasikoak. Baina, duda barik, gure idazle zaharroi (ere), erdal hitz ugari erabiliagatik, euskal sen jatorra, freskoa darie beren lanetan; gure idazle zaharrok euskara bere osotasun, oparotasun eta jatortasunean gorde diguten 'kutxa preziatuak' ditugu, zinez[4].

Bada, gainera, horrenbeste erdarakada erabiltzearen zurigarririk ere: Ikasketak erdaraz egina izatea (latina zen Unibertsitateko hizkuntza ofiziala). Esku arteko iturri bakarrak erdarazkoak izatea eta hauen itzulpen-moldaketan jardun behar izatea. Literatur tradizioaren urritasun erabatekoa ('Hiztegitxo'

---

[2] Dodgsonek Doktrinaren berrargitalpenean "El Vicario ha debido de conocer al gran Vascófilo D. Manuel de Larramendi (1690-1766)" (114. or.) badio ere, Otxoa Arinen Doktrina Larramendiren obra idatziak baino lehenagokoa da: "El Imposible Vencido" gramatika (1729) eta "Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín" (1745).

[3] Dodgsonek: "El libro de J. Ochoa de Arin es interesante porque se considera como el libro más antiguo impreso en Guipuzcoano ..." (115-116 orr.). Eta Doktrinaren azalean bertan: "Ordisiako Doctrina Christiana da Guipustarren heuskarasko libruetatikan saarrena".

[4] Villasante 1979: 122. zk.: " ... Véase el juicio tan poco favorable que hace de este catecismo el P. Juan Mateo de Zabala en su "Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi": "No merece aprecio alguno el Catecismo de Villafranca por su lenguaje sumamente malo y que está más recargado de barbarismos y solecismos que de citas, a pesar de que éstas son muchísimas". ... Ciertamente, Ochoa de Arín, al exponer la doctrina, echa constantemente mano de voces y vocablos castellanos hasta límites inverosímiles, y ésta es la única razón del veredicto condenatorio que hemos transcrito. El hecho es, por lo demás, normal en otros escritos de la época. Mérito indudable del P. Larramendi fue el haber contribuido eficazmente a liberar al vasco escrito de esta servidumbre respecto del castellano en materia lexical. Pero una vez reconocido esto, también debemos decir que este libro, como en general todos los antiguos, tienen mucho que enseñarnos como maestros de lengua, sobre todo en el dominio de la gramática, conjugación, etc. El que para exponer el catecismo echen mano del argot o léxico románico usual en los libros castellanos, no obsta para que por otro lado manifiesten a cada momento el dominio y posesión perfecta que tenían de la lengua vasca, en que vivían inmersos sus autores ... aquellos curas viejos a quienes despreciamos por sus castellanismos, pero en quienes el idioma estaba más profundamente vivo y arraigado que en nosotros ...".

Halaber, Villasante 1979: 263. zk. eta Mitxelena 1984: 18. or.

baten aukerarik ere ez izatea!). Bestalde, hitz maileguak 'kultuagoak' bide dira; herri-mailako hitz 'arruntei' falta zaien finkotasuna, zehaztasuna, 'teknikotasuna' dute latinezko eta erdarazko hitzek (Ohitura kontua ere bada hau guztia baina)[5].

Hala eta guztiz ere, badira Otxoa Arinen Doktrinan egun gipuzkeratik Mendebalderago, bizkaierara, eta Ekialderago, goi-nafarrerara eta lapurterara, mugatuak ditugun hainbat hitz. Hitz askok, gaur egun euskalki konkretu batera edo bestera murriztuak baditugu ere, lehengo garaietan hedadura zabalagoa zuten, era bateratuagoan erabiltzen ziren.

Doktrinako hitz mailegatuei buruzko zenbait ohar:

'r-' letraz hasten diren hitz mailegatuei ez die aurretik 'e-' eransten: 'razoe/razoezko (= arrazoi), Reinu, Regina, rescatadu/rescatatu, remedio, Roma/Romaco, representacio/representatu, repartitu, revelatu, recelo, reverencia, retiratu, reprensio, recebitu/recebimentu, romeria, rodeo, Religio/Religioso/Religiosa, reparatu, resolucio, respecto, Republica, rectore, resurreccio/resucitatu, rezatu ...' Salbuespen pare bat: 'regu/regutu/erregu eguin, arrabia' (ZDn ere gehienak horrelaxe: 'Reinua, regutu, redemitu, recebitu, resucitatu, razoi/razoizco ...').

't-/-t-' duten mailegu asko Otxoa Arinek ere horrelaxe egiten ditu; eta ez 'd-/-d-'rekin: 'tempora, gente, altare, virtute ...' (bizkaiera aldeko joera). Baina, 'esclabitude ...' (ZDn ere: 'tempora ...').

Zenbait mailegu, gaur egun ere bezala, '-e' erantsita: 'Rectore, virtute, esclabitude, altare ...' Baita: 'Tribunale, oficiale ...'

Latinez '-um' eta gazteleraz '-o' bukaeradun maileguak: 'cuidadu, probechu, destierru, trabaju, tormentu, justu, socorru, gradu, gozu, propositu, aciertu, cautibu, peliguru, criadu (= morroi), dañu ...' Eta: 'texto, proximo, consuelo, govierno, gusto, respecto ...' (ZDn: 'exemplu ...').

'izandu, deseguindu ...' eta honelakoez gain, aditz-partizipio mailegatu asko eta asko, gehienak, '-du'n bukatuak: 'importadu (= inporta izan), instituidu/instituitu, guardatu (= gorde), barautu, amadu/amatu, criatu, vencidu/venzutu,

---

[5] Mitxelena 1984: 14. or.

Altzibar 1992: 325-360 orr.: " ... Idazlegoaz esan behar dugu gure idazle klasikoak ez direla nornahi, ikasketa on eta bikainekoak -kanpoan gehienetan- baizik, latinez ondo jantziak ... Idazleok berek latinez edo gazteleraz ikasi eta moldatutako gaiok bihurtu beharko dituzte euskarara ... Maila apalekoentzat ez ezik jakintza gaiok erabili ez dituen hizkuntza batean beroriek moldatu edo bihurtu beharrak (hasteko, gaiotarako hitzak falta dituen hizkuntza batean) baldintzatzen du euskal idazleon idazlangintza, taiutzen testuon hizkuntzamoldea eta hizkuntza maila ezartzen ..." (332-333 orr.).

advertidu, rescatadu/rescatatu, apartadu/apartatu, esperatu, resucitadu/resucitatu, depositadu, convertidu, consentidu/consentitu, executadu/executatu, faltadu, embarazatu, suplidu, arrastradu, ajustadu, exercitadu, ezcutadu, cometidu, contentadu, efectuadu, contrahidu, juntadu/juntatu, contadu, suponitu, descubridu, obedecidu, prohibitu, proseguidu, recebitu/recibitu, conseguidu, tratadu, socorridu/socorritu, destruidu, abortadu, deleitadu, distinguidu, aprobadu ...' Bizkaierako (eta Gipuzkoako Urolaldeko) kutsua sumatzen da. (ZDn ere berdin: 'partidu, enterradu, vencidu, crucificadu, cumplidu, bienaventuradu, convertidu, padecidu, sepultadu ...').

Hona segidan, lagin gisa, Otxoa Arinen Doktrinako lexiko-zerrendatxo bat. Bertan, Goierriko hitz peto-petoen alboan, hainbat zaharkitu eta egun bizkaierara nahiz Ekialdeko euskalkietara mugatzen direnak ere kausi ditzakegu:

adimbat/adina (Zegamako Doktrinan, ZDn: ambeste)
aditu (=entzun) (ZDn: aditu = entzun)
aditcera eman
aide (=ahaide)
aintzat eduqui
aitatu
aizquen
albait (ere)
alcabuete
altare (ZDn: altara)
amorio (ZDn: amorio)
andi (ZDn: aundi)
anitz
apeiz
arquitu (ZDn: arquitu)
arraultza ('-a' itsatsia)
atortu (= aitortu)

badaric(an) ere (= halere)
bague/bagaric (ZDn: bague) (AE 1.2.10.: bage/gabe)
baice/baicen/baicic/baicican
valiatu: '-k' valiatu (= balio izan); '-z' valiatu (= baliatu)
bañan
baptismo/baptisterio; baptizatu (ZDn: baptismo; baptizatu)
barau/baru: baraurra, baraurric; barautu (ZDn: balur)
bear (= lan)
becin (= bezain) (ZDn: bequin ?)
belaun (= belaunaldi)

venzutu/vencidu
bidau; bidaua egotci
bider/biderretan: asco bider/asco biderretan

cabu edo acabera
caliza/caliz (ZDn: caliza)
captiberio
chanza
ciñatu (= Aitaren egin)
clarecia (= argitasun)
conveni (ZDn: conveni)
corde
corputz/gorputz (ZDn: corputz)
criadu (= morroi)
crutce/crutz (ZDn: cruce)
cuidadu (= kontu)

doé (= dohai) (ZDn: doe)

ebatsi
ecusi (= ikusi) (ZDn: ecusi)
ediro (= aurkitu)
edolaric(an)/edolaere (=bederen) (ZDn: edoleen)
egotci (ZDn: egotzi)
eguia: eguia au
egun (= gaur) (ZDn: egun)
Eleiza (ZDn: Eleiza)
engañio
entzuera izan
equin: bideari equin
eragotci (ZDn: eragotzi)
eraqui (= eraiki, jaso)
eratsi/erachi (= eraitsi, jaitsi)
eriotza
eroan
erraz
erroidu (=sesio, liskar)
escui(e): escuieco escua, alde escuietic (ZDn: escui)
espacioz (= astiro, lasai)
euscara
eutci (= utzi) (ZDn: eutci)

ezne; eznegauzac (= esnekiak)

gaitz artu (ZDn: gaitz artu)
gaitceritci
gajo (=gaixo)
gañeruntzaco (= gainerako)
Garaizuma/Garizuma
gracia/gratia
guardatu (= gorde) (ZDn: goardatu)
guchibana-guchibana (= pixkanaka)
gueroenean (= ondoren)
guisa/guisan

haztu (= ahaztu)
heche/eche
heri/ery (= gaixo)
hordu (ZDn: hordu)
hostirala (ZDn: ostirela)

icheden (= itxoin) (ZDn: ichoen/ichoden)
icuitu
iduqui
ifeni (ZDn: ifini)
igas eguin (= ihes egin) (AE 1.2.17.5.: iges, legor, legoi)
igilic (= isilik)
igui
ijuri (= isuri)
illuntce
imbidia
ingendratu
iracatsi
Yruñe: Yruñeco
istu (= txistu)
itaundu
izandu

jachi/jaichi/jauchi (ZDn: jachi)
jarri (= eseri) (ZDn: jarri = eseri)
jauci: contuan jauci (eta ez 'jausi')
jaurdun (= jardun)
juan (ZDn: juan)

labore (= uzta)
languin (= langile)
laurembat (= larunbat)
leenengo
legami
loi; loitu

mingaña
misseria
moeta
muga: muga onean (= garaiz)

napur (= lapur) (AE 1.2.15.: larru/narru)

oficiale
ohostu/hoostu (ZDn: ostu)
oracio eguin
oro
oroitu
ostean: onez ostean

paratu (= prestatu, egin)
peliguru
promes

seta
soñean eguin (= jantzi) (ZDn: soñean eguin)

tempora
trabaju: gosearen eta egarriaren trabajuac; trabajatu (ZDn: trabaju = neke)
trampia
tribunale

urren (= hurbil)
urriquitu (= errukitu)
urtegui (= bota, jaurti)

'Edo' juntagailu hautakaria erabiliz moldatutako sinonimo-bikoteak ugari ere ugari dira Doktrinan: Batzuetan, euskal eta erdal hitza lotzen ditu ('aguinte edo poderio') edo erdal eta euskal hitza ('sabiduria edo jaquiunde'); beste batzuetan, aldiz, bi euskal hitz ('ezagutu edo oroitu') edota bi erdal hitz ('instrucio edo

regla'). Oso teknika estimatua sinonimo-pilaketaren hauxe ondorengo (eta egungo) apaiz idazle eta sermoilarien artean ere. Hiru helburu edo dituzke idazkera eta hizkera honek: erretorikoa ('erretolika'): jaulkitzen diren hitzak eta ideiak azpimarratzea, indartzea; kultista: hizkuntza landuagoa, dotoreagoa erabiltzea, eta didaktikoa: ideien, gaiaren ulermena erraztea.

'iguy edo aborrecimentu; aguinte edo poderio; libratu edo atera; Christautasun edo Christau izatea; instrucio edo regla; vastante edo asco adina/bastante edo asco dan adimbat/suficiente edo asco dan adina/asco edo bastante' (Ez da 'nahikoa' azaltzen; ezta 'samar' ere); 'igualmente edo berdin; distinta edo diferente; figura edo ichura; inclinatu edo macurtu; significatu edo aditcera eman; revelatu edo aditcera eman; juntatu edo arrimatu; personalidade edo personatasun; izana edo naturaleza; Divinidade edo Jaungoicotasun/izate divino edo Jaungoicotasun; naturaleza humana edo guizontasun; sabiduria edo jaquiunde; principio edo asiera; cabu edo acabeera/fin edo acabera/cabu edo fin; vorondate edo nay; criatu edo sortu; encarnatu edo guizon eguin; icheden edo esperatu; resucitadu edo piztu; jarri edo eseri; apartatu edo urtegui; obratu edo eguin; instituidu edo eguin; cometidu edo eguin; participante izan edo parte izan; iruditasun edo apariencia; partitu edo zatitu; neuregan edo neurequico; caridade edo amorio; regutu edo oratcio eguin; inventatu edo componitu; eterna edo fin baguea; baptismo edo baptisterio; eman edo comunicatu; fuerza edo indar; memoria edo gogo; enfermo edo heri/ery edo gajo; eficacia edo indarra; centzu edo corde; embarazatu edo eragotci/impedimentu edo embarazo; belaun edo gradu; consorte edo compañia; ira edo vengatceco arrabia; odio edo gaitcerizte; imbidia edo iñoren onaz gaitz artcea; vengatceco deseo edo arrabia; soñean eguin edo jancia eman; peregrinacio edo romeria; consuelo edo gozu espiritual; gravedade edo anditasun/materia grave edo gauza andi/grave edo andi; damutasun edo arrepentimentu/arrepentimentu edo dolore/urriquimentu edo damutasun/dolore edo damutasun; sentimentu edo urriquimentu; especie edo moeta; prohibitu edo debecatu; gauza temporal edo corputzari tocatcen zaizcanac; conversacio edo itceguite; ezagutu edo oroitu; ezaguera edo noticia; uste edo iritci; gaitz edo dañu; pendencia edo erroidu; naigabetasun edo pesadumbre; deleite edo gusto; Rectore edo Vicario; exteriorean edo campotic; seta edo tema; soldata edo jornala; evatsi edo hoostu; causa edo motivo; lantce edo ocasio ...'

'Eta' emendiozko juntagailua ere erabiltzen du 'Edo' hautakariaren balio beretsuan, hots, sinonimoak kateatzeko: 'trabaju eta descomodidade; neque eta dificultade; motivo eta razoe/causa ta motivo; erroidu eta pendentcia; soldata eta salario; criadu eta languin; engañio eta trampia; igualac eta berdinac; lo mismo ta aimbeste; fiñean eta aizquenengo egunean; presentcian eta aurrean; guciena eta principalmente; ofenditu eta injuriatu ...' (Ikus, geroxeago, 6.1. azpiatalean, Emendiozko perpausak: Deklinabideko kasu-atzizkien erabileraz eta aditzarekiko komunztaduraz).

Beste batzuetan, berriz, hitzak alboratze hutsezko juntaduraz, koma soilez ezartzen ditu katean: 'naturaleza, essencia edo izate'; 'congregacio, unio edo multitude'; 'corde, ezaguera edo centzu' ...

Larramendik eta honen jarraitzaileek eragin handia izan zuten atzizkien aberastasunean eta hedapen literarioan ere[6]. Otxoa Arinen Doktrinako atzizki lexikalen eta hitz eratorrien multzoa urri samarra da, Larramendiren ondorengo idazleen obretakoarekin alderatuz; egun normal erabili ohi ditugun hainbat atzizki ez dira Doktrinan azaltzen.

Jarraian, Otxoa Arinen Doktrinako hitz eratorrien hustuketa eskainiko dugu:

-ari: 'pecatari'. (AE 2.1.6.1.2.)

-dade/ -date/ -tade: 'santidade, eternidade, fidelidade, generosidade, longanimidade, benignidade, enfermedade, generalidade, casualidade, maldade, castidade, bondade, descomodidade, necesidade, humildade, Christandade, gravedade, divinidade, dificultade, Virgindade, humanidade, caridade, personalidade ...' Ia beti '-dade', inoiz ez '-tate'. Gehienak maileguak izanik, euskal oinarridun bat edo beste ere bai: 'vorondate'. (ZDn ere ugari: 'humanidade, magestade, bondade ...'). (AE 2.1.6.1.1.)

-dore/-tore: 'Criadore, Salvadore, Glorificadore, borradore ..., Redemptore ...'

-dun: 'zordun, aurdun' (ZDn: 'zordun'). (AE 2.1.6.2.4.)

-(r)en: 'amarrenac' (ZDn: 'amarrenac').

-era: 'etorrera, asiera, acabera/acabeera, ezaguera, entzuera' (ZDn: 'etorrera'). (AE 2.1.6.1.7.)

-eta: 'napurreta'. (AE 2.1.6.1.7.)

-garri: 'miragarri, arrigarri: Infernua da lecu arrigarri bat' ('beldurgarri' zentzuan, alegia). (AE 2.1.6.2.3.)

-gin: 'languin'. (AE 2.1.6.1.2.)

-kide: 'adisquide'.

-kizun: 'etorquizun: Ondasun etorquizun eternoac' (hots, 'gerokoak') (ZDn: 'etorquizun', zentzu berean). (AE 2.1.6.1.6.)

-(k)unde: 'jaquiunde' (Oraindik ere Goierrin -Ataun aldean eta- erabilia, 'jakinduria' adierazteko).

---

[6] Sarasola 1986: 206-207 orr.: Berariaz azpimarratzen du Larramendiren eragina atzizki-sarearen hedapen eta finkatzean: " ... bada Euskal literatur hizkuntzaren bilakaeran ene ustez frogaharri gertatzen dena, orain arte egin zaion hutsaren hurrengo jaramona gorabehera. Euskal atzizki-sistemaren bilakaera eta aurrerabidea da. Izan ere koerlazio guztiz garaia bide dago literatur euskalki baten eratzean eta bertan gertatzen den hitz eratorrien kopuruaren artean ... Gaur erabiltzen ditugun eratorrietako asko Larramendiren eskutik heldu zaizkigu ...".

-mentu: Izen mailegatuak: 'aborrecimentu, encantamentu, obedimentu, fundamentu, cumplimentu, advertimentu, mandamentu, sentimentu, merecimentu, prometimentuac (= promesak), arrepentimentu, impedimentu, entendimentu, recibimentu, fingimentu, divertimentu ...' Ia beti '-mentu', eta ez '-mendu': 'advertimentu/advertimendu'. Ia denak izen mailegatuak izanik, euskal oinarridun bat edo beste ere bai: 'urriquimentu'. (ZDn ere ugari: 'merecimentu, mandamentu ...').

-oro/ -ro: Modua adierazteko: 'osotoro, berriro, andiro'. Denbora adierazteko: 'egunoro, asteoro, illoro'. Beti '-oro', eta ez '-ero'. (AE 2.1.6.4.)

-oso: 'paqueoso' (Oraindik ere oso erabilia). Maileguak: 'misericordioso, abundoso ...'

-tasun: 'naigabetasun (= nahigabe), zoratasun (= zorakeria), vildurtasun, leialtasun, aidetasun, liberaltasun, naguitasun, pecataritasun, bacartasun (= bakardade), adisquidetasun, damutasun, humiltasun, arguitasun (eta 'clarecia' ere bai), iruditasun (= itxura), anditasun, chiquitasun, etsaitasun, ichusitasun, garbitasun, Christautasun, Jaungoicotasun, guizontasun (= giza izaera), personatasun, betetasun'. Ia beti '-tasun'. '-dasun' atzizkidun pare bat: 'mortaldasun, ondasun' (zentzu materialean ez ezik, moralean ere bai: 'Ondasun edo on izate'; egun 'ontasun' esango genukeena, alegia). Atzizki hau da Otxoa Arinek gehien erabiltzen duena. Ez da '-keria' atzizkidunik azaltzen; honen zentzua ere '-tasun'en bidez azaltzen du: 'zoratasun (= zorakeria)'. (ZDn ere ugari: 'Jaungoicotasun, adisquidetasun, bildurtasun, aunditasun, ondasun, naguitasun, nagusitasun ...'). (AE 2.1.6.1.)

-te: 'aguinte, izate'.

-zio: 'peregrinacio, disposicio, salvacio, prevencio, imaginacio, consideracio, averiguacio, meditacio, servicio, salutacio, resolucio, representacio, demostracio, conversacio, dispensacio ...' Gehienak izen mailegatuak badira ere, euskal oinarridun bat edo beste ere bai: 'barcacio'. (ZDn ere: 'barcacio'). (AE 2.1.6.1.7.).

Bestalde, askotan, hitz eratorrien ordez, '-ko/-zko' atzizki gramatikalez (deklinabide-atzizkiez) moldatutako izenlagunez baliatzen da. Eta, batez ere, maileguak erabiltzen ditu barra-barra: '-ble, -al, -oso ...'

Eta azpiatal hau amaitzeko, hona segidan Doktrinako hiruzpalau esamolde polit: 'escuco diru promptoan pagatu'; 'llaneza sobratuan ibili': '(Ezkongaiak) ibili ote diraden alcarrequin llaneza sobratuan legitimamente ezcondu baño leenago'; '(Infernuan), non condenatu guciac daude, eta egongo dirade beti, ta beti, bein ere fin bague, penaz ta tormentuz beteric'; 'gaiztoac juango dirade infernura corputz ta anima erretcen an egotera'.

Eta dvandva pare bat: 'saldu erosian; tratu contratuac'.

4. PERPAUSAREN OSAGAIAK ETA DEKLINABIDEA

4.1. Oinarri morfologikoa eta deklinabideko atzizki-sistema gipuzkerazkoa da, egungo beterrierako zenbait ezaugarrirekin. Besteak beste, partitiboaren, ablatiboaren eta motibatiboaren kasu-atzizkiei '-an' eransten die ia beti: 'acabe-erarican; emendican; cergatican'. Egungo goierrierako '-tio' ablatibo-atzizkia ('etxetio'), ordea, ez da inoiz azaltzen (Bai Gerrikoren Doktrinan: 'oraindio').

4.2. Lotura morfo-fonetikoak: Hitz-erroaren eta deklinabide-atzizkiaren lotura egiteko ez darabil apostroforik, ez marratxorik; ezta izen nagusien kasuan ere. Ia beti juntuan idazten ditu. Dena den, '-gatik' motibatiboa, pluralean, hitz-oinetik aparte idazten du sarritan.

• Hitz-erroak '-a' itsatsia duenean, absolutu mugatu singularra egiteko, maiz, '-e-' tartekatzen du, bizkaieraz ez ezik, Goierrin ere hain ohikoa den eran: 'eriotcea, calicea, animea, gaucea, criaturea, fortalecea, templantcea, pobrecea, Doctrina Christianea, Santea ...' (Zegamako Doktrinan (ZDn) areago: 'Aitearen eta Semearen ..., Doctrina Christianea, Eleiza Catholiquea, Apostoliquea, Virginea, Bedeincatea, Santea, examinea, personea, animea, eriotcea, esperant-cea ...'). (Maileguen genero femeninoaz, ikus geroxeago). (AE 1.1. 3.1. eta 2.1.11.).

• 'a + e' lotura, batzuetan, 'ae' eta ez 'e': 'obraetatic, personaetatic, entra-ñaetan ...'. Gauza beretsua erlatiboan ere: 'Jai guardatu bear diradenaen ...'. (Berdin ZDn ere; baita Gerrikok, Amundarainek, Lardizabalek, eta autore klasi-ko askok ere). Dena den, lotura-mota hau ez da batere argi ikusten kasu asko eta askotan; izan ere, 'aen (= haien)' erakuslea aurreko hitzari lotua idazten due-nez, 'misterioaetan' = 'misterio aetan (= misterio haietan)' dateke.

• 'a/e' bokalak luzatzea: 'faltaac, edaateco; acabeera ...'. Eta, batez ere, aditz-izenetan: 'arceen, quentceen, galtceen/galtceeco ...'. '-rako' destinatibo edo xedezko atzizkia ere luzatu egiten du maiz: 'bere animaren salvaciorarаco ...' (Ikus 6. atalean, 'Aditz-izena'ren puntuan).

• '-au/-au-': 'au/ab/aub/beraub, gaba/gauba, auba (= ahoa), lab (= lau),

amalaub, Christauva/Christava ...'. (ZDn ere bai: 'aub, laub, amalaub, Christaub/Christauba, gauba/Gabon gaba, auba/aubtic, ardau/ardaub ...') (Ikus, zabalago, 5. atalean: 'deu/deb ...').

• Ergatibo, datibo eta soziatibo mugatu pluralak '-ak', '-ai', '-akin' egiten ditu, Mendebaldeko euskalkietako eran, eta ez '-ek', '-ei', '-ekin': 'Santu guciac (= guztiek) eguin cituzten penitencia guciac ...'; 'onay, gaiztoay, guciay, zordunay ...'; 'guere beguiaquin, ilceaquin (= iltzeekin), obra virtutezcoaquin ...'. (Berdin ZDn ere). (AE 2.1.12.).

• Halaber, batzuetan, genitibo-kasuan: ' ez ceban inoizere izan guizonan (= gizonen) artetic inorequin ere parteric batere', 'pecatu mortalan (= mortalen) gañean', 'pecatu venialan (= benialen) pregunta aec ...'. (Berdin ZDn ere: 'bere peccatuan examinea, Mandamentuan contra, illan artetic, peccatuan satisfacioa ...').

4.3. Partitiboa: Oso dotore; izenak, partizipioak, aditz-izenak, erlatiboak ... ederki baino ederkiago deklinatzen ditu; ia beti Beterri aldeko aldaera erabiliz: 'gaitcican eta misseriarican, semerican, eguinican, zaitualarican, baicican ...'.

4.4. Ablatiboa: Hiru aldaera azaltzen dira: Oso urri: 'alde ezquerretic ...'. Ia beti: 'bitatican, emendican, andiagotican, erritican, ciranetican, becoquitican, gabaren erditican ...'. Behin edo behin: 'bere sustanciati edo naturaleza bertati ...'. (Horrelaxe egiten du, tarteka-marteka, Amundarain zegamarrak: 'churiti eta gorriti'; baita Frai Bartolome Santa Teresa bizkaitarrak ere: 'bateti, besteti, guztietati ...'). (AE 2.1.15.1.).

4.5. '-z': Batez ere mugagabea erabiltzen du: 'penaz ta tormentuz beteric; clemenciaz, piedadez ta missericordiaz beteric; omisioz edo descuido gueieguiz ...'.

Singular mugatua ere bai: 'guchienaz; confessio generala eguitera daude necesidadeaz obligaturic ...'. Batez ere, partizipioekin: 'jaquinaz, artuaz, esanaz ...'.

Modua adierazteko, '-z'ren ordez, soziatibo-atzizkia sarri erabiltzen du (gehiegi?); ohitura errotua, antza: 'Credoa atencioarequin esan; confianza osoarequin neure viotza Jaungoicoagana alchatu; confianza osoarequin escatcea; damutasun andiarequin eta modestia guciarequin confessatu; diligencia eta cuidadu andiarequin memoriara ecarri ...'. (Batez ere, izena izenondoaz lagundurik doanean).

'-ri buruz': Beti '-ren gainean', klasiko gehienek bezala: 'pecatu mortalan gañean ...'.

'Jaungoicoaz ostean; onez ostean ...'.

Gogor antzekoak: 'Certzaz edo cer gauzarequin regutcen zayo?; Corputza certzaz estali ...'. (Egun 'Nola/Zerez' esango genuke).

Hona hemen esamolde polit bat; deklinabideko atzizki-markarik gabe: 'Onac juango dirade corputz ta anima Cerura'; eta ez 'gorputzez eta animaz' edo horrelakorik.

4.6. Genitiboak: 'barcacioaren escatcea' (Ekialdeko euskalkietako era); baita 'etorrera santuaren ichedeten ceuden anima justu aez'. 'Jaungoicoaren missericordia esperantza' ('missericordia' deklinatu gabe).

Izenlaguna izenaren atzetik ezartzea guztiz normala da gure klasikoen artean; baita gaur egun ere: 'Villa Franca Guipuzcoaco onetan; Maria Santissima Assumpciocoari; uso razoezcora; Pazcoa Resurrecciocoetan; Jaungoico eta Guizon eguiazcoa; pena seculacoa; pecatu dudazcoac; itz divina consagracioco aec; Acto Fedecoa, Esperantzacoa, eta Caridadecoa; alde ezquerretic alde escuiera' (Eta ez 'ezkerrekotik/eskubikora'. 'Ezker/Eskui' izenondo adjetibo dira, izenlagun baino areago); 'bost beatz escuieco oetan; estadu graciazcoa; Sacramentu Baptisteriocoa; Sacramentu Eucharistiacoa, ceñari deritzan Altarecoa, edo Comuniocoa; Sacramentu Confessiocoa, ceñari deritzan Penitenciaco Sacramentua' (Eta ez 'Sakramentu Penitentziakoa'); 'gauza importanciazco; propositu eguiazcoa; paque espiritucoa; begui missericordiazcoac; obra virtutezcoaquin; Bulda Cruzadacoa; Acto Caridadecoa edo Amoriozco Actoa' (Eta ez, hemen ere, 'Akto Amoriozkoa'); 'pecatu mortal sacrilegiocoa; voto castidadecoric eguinic; arrepentimentu eguiazcoarequin ...'. (ZDn berdin: 'Sacramentu Comuniocoa; itz consagraciozco; baquea espiritucoa; uso razoezcora; alde escui ...').

4.7. Edozein: Izenondo zehaztugabe hau, normalean, izenlagun gisan erabiltzen du, '-ko' erantsiz, eta 'ere' indargarria tartekatuz (?): 'edoceinereco alimentu; edoceinereco moduz; edoceinereco confessore; edoceinereco criatura; beste edoceinereco armaren batez; beste edoceinereco pecatu moeta; beste edoceinereco acto torpe aenen batean; beste edoceinereco jateco eta edaateco gauzaric dan guchienic ere; morroyac, nescameac, eta beste edoceinereco personac; Juezac, Ministroac, edo beste edoceinereco Oficiale diranac ...'. Egun 'edozein' soilik edota 'edonolako/edonongo' erabili ohi dugu. (ZDn ere: 'edoceineco obra ...').

4.8. Prolatiboa: Egun, tamalez, hizkuntza mintzatuan bederen hain urri eta trakets erabiltzen den deklinabide-kasu hau Otxoa Arinek maiz eta dotore asko erabiltzen du 'xedea' nahiz 'ustea' adierazteko eta atzizki berezi honi dagozkion

oinarrizko aditzez baliatuz: 'apartatutzat declaratu; pecatutzat juzgatu; justutzat ezagutu; alcabuetetzat servitu; deseguindutzat eman, ciertotzat eman, ofenditutzat eman; senartzat recebitu, emaztetzat recebitu, gauzatzat recebitu; venialtzat confessatu; mortaltzat ifeni; mortaltzat eguin; Eleizaren burutzat eutci; Fedeco eguiatzat sinistu ...' (EGLU I: 446-451 orr.). Eta perpausaren menderagailu-atzizki bitxi, polit hau: ' ... ondasunen bat conseguidu seguientzat ...' ('zegien + tzat = kontsegituko ote zuen/kontsegituko zuelako ustean'). (AE 2.1.17.).

4.9. Norekiko: 'proximoarequico fedea eta fidelidadea; proximoarequico tratu eta conversacio ...'. Baina hurrengo honetan ez da izenlagun, 'neure baitan' edo horrelako zerbait baizik: 'artutcea neuregan edo neurequico esperanza firmea'. (Gerrikok ere zentzu berean: 'berequico bacarric, fundamentu eguiazco bague, motivo bague'. Amundarainek beste ñabarduratxo bat ere ematen dio: 'nerequico ez dezute ucatuco egui au' ('nire ustez')).

4.10. Bizidunen deklinabidea: Bizidunen kasu-markak ia inoiz ez ditu edutezko genitiboari erantsita eratzen, ezta pluralean ere (Ikus hurrengo puntuan): 'Espiritu Santuagan, Criadoreagan, bategan ...' (Salbuespenak: 'neuregan, gueurengan'); 'famagana, pecatuagana, temerarioagana, gugana ...'; 'corputzagandic, temerarioagandic, norgandic ...' (Salbuespena: 'Adanengandic').

Bestalde, bizidun/bizigabe kontzeptuen arteko muga ez da hain zehatza: 'anima corputzagandic apartatcea'. Baina geroxeago: 'Anima Santua Corputz Santutic apartadu'. 'Apartatceco pecatuagandic eta pecatuaren videtic; famagana daducan derechoa; pecatuagana odioa; da gauza diferentea juycioagandic; juycio temerarioagandic sospecha temerarioagana dijoan diferencia andia ...' (Ikus EGLU I: 70. or.).

4.11. Motibatiboa: Kasu-marka, izenari itsatsita nahiz aparte, inoiz ez dio edutezko genitiboari eransten, ez singularrean, ez pluralean, baizik eta absolutiboari; oso joera normala da hau idazle zaharren artean: 'beragatic, bategatic, emateagatic, cergatican, murmuratuagatican, zanagatican ...'; 'beracgatic, ceñacgatic, pecatuacgatic, viciacgatic eta illac gatic, Santuac gatic, pecatariocgatic ...' (ZDn ere berdin: 'merecimentuac gatic, pecatarioc gatic ...') (Ikus EGLU I: 434. or., eta EGL 1993: 486. or.). (AE 2.1.16.).

4.12. Elkarkariak: Bi forma azaltzen dira: 'Corputza eta Anima alcargandic apartaduric, alcarri, alcarrequin, alcargana ...'. 'Batac bestearen aidearequin, bata besteagandic diferentea dana, bata bestearen ondasun espiritualetan ...' (EGLU I: 107-112 orr.).

4.13. Erakusleak eta Leku aditzondoak: au/aub/ab, onec, oni/oniri, onen, onez, onela, onetan, onetaco, onetatic, onegandic, onegatican ..., oec, oenic, oey, oen, oentzat, oez, oetan, oetatic..., emendican, oneraño ...; ori, orrec, orrez, orrela, orretan, orretatican, orregatic/orregatican ..., oriec, orien, orietan ...; ura, arc, aren, alaco, artan, artara, argan, argatican ..., aec, aey, aen/aenen, aenic, aentzat, aez, aetan, aetara, aetatic/aetatican ..., an, andic, aruntz ...'. (AE 2.1.1.).

4.14. oenic, aenic, aenen: Etengabe erabiltzen ditu erakusle forma bitxi hauek: 'hauenik, haienik, haienen', gaurko 'hauetakorik/honelakorik, haietakorik/halakorik, haietakoren/halakoren' izenlagunen ordezko gisara: 'pecatu moeta oenic beinere ez eguiteco (= pecatu honelakorik/hauetakorik)'; 'eguin ote deban, edo ez ote deban delitu, edo maldade aenic (= maldade haietakorik/halakorik)'; 'beste pecatu moeta itsusi eta arrigarri aenic (= pekatu halakorik/haietakorik)'; 'beste edoceinereco acto torpe aenen batean (= haietakoren/halakoren batean)'; 'trabajatu ote deben Jai guardatu bear diraden aenen batean (= haietakoren/halakoren batean)' ...

4.15. Izena + Erakuslea + guztia: 'obra miragarri au gucia; gauza criatu oec gucioc; ecer ez artara bertara itzuli ditzaque gauza oec guztiac; articulu edo sentencia breve aec guztiac; anima justu aey guciay; misseria orien guztien remedioa; esan degun modu oez gucioz; tempora orretan gucian; oetan gucietan; orietan gucietan; aetan gucietan; au guciau ...'. Gaur egun, tamalez, nahikoa ordena traketsean erabiltzen da: 'denbora guzti horretan'. (Ikus Euskaltzaindiaren Arauak I, 4, 15. or., 1994-10-28ko araua).

4.16. Plural hurbila: Maiz erabiltzen du eta oso jator, gainera: 'bere seme guztioi; pecatariocgatic ...'.

4.17. Izenordain indartuak, berrindartuak eta bihurkariak: 'neuronec, neure, neuregan, neurequico ...; gueuc, guere/gueren/gueure/gueuren' (Lau aldaera, laurak nahikoa nahasian. Dena den, ondoko izena singularra denean, izenordain izenlagunari '-n' erantsi gabe: 'gueure eriotzaco horduam ...'; plurala denean, berriz, '-n' erantsita: 'gueuren zorrac, gueren zordunai ...'; baina ez beti: 'guere beguiaquin; eman eguiguzu egun gueuren eguneroco oguia ...'), 'gueurengan, gueugana ...; ceuri, ceure/ceurorren, ceurequin, ceugana ...'.

Bihurkarion gehiegizko erabilera (?): Horretaz jabetzeko aski da Doktrinaren hasierako Otoitzak irakurtzea: 'Aita gueurea, santificatua izanbidi ceure icena, betor ceure reinua, eguin bidi ceure borondatea, eman eguiguzu egun gueuren eguneroco oguia, barcatu eguizcutzu gueuren zorrac, gueuc gueren zordunai barcatcen diegun becela ...'. Egun honelako 'puztuketa' sumatzeko bizkaierara edo jo beharko genuke.

4.18. Erakusle indartuak, berrindartuak eta bihurkariak: 'gauza ori bera; escu au beraub; instante artan bertan; ecer ez artara bertara; corputz artara bertara; orregatic beragatic; emateagatic beragatic ...; Semea bera, eta ez besteric; Jaungoico bat bera danac; persona bacoitzac bere animaren salvaciorarac jaquin bear debana; bere Persona Divinoari berari; tentacioa beregandic quendu; batec beregan artcea siniste osoa; beregan bat dudan guelditcea ..; Christoren beraren Vicarioa; Crutce Santuarequin eta beraren virtutean; Doncella aren beraren sabel virginalean; aren Magestadearen beraren Odol vicia ...'.

'haren/beraren/bere' edutezko genitiboen (eta horien gain eratutako kasuen) arteko bereizketa egiten du: 'Erri Noble onen instanciaz escrivitu ceban beraren (Herri haren) Vicario Ochoa Arinec eta Villa Francaco Erriac consagratcen dio bere (Herriak bere) Patronari'; 'Christauvac certan gueiena eta principalmente exercitatu bear deu Jaungoicoari agradatceco beraren (Jaungoikoaren) servicioan, eta bere (Kristauak bere) animaren salvacioa alcanzatzeco?'; '(Kristaua) ofrecituric dago beraren (Kristoren) Mandamentuac guardatcera'; 'Crutcearen virtutez bere (Kristaua bere) animaren etsaietatic defenditceco'; 'Guizonac mundu onetan serbitu ceguian aren (Jaungoikoaren) Magestade divina eta guero goza ceguian bera (Jaungoikoa bera) betico Ceruan'; 'Redimitu guinduzan aren (Kristoren) Magestadeac'; 'Crutcean vencitu cituan aren (Kristoren) Magestadeac gueure etsay guciac'; 'Nic sinisten det Jaungoico Aita guciz poderosoagan, eta aren (Aitaren) Seme bacar, gueure JesuChristo Jaunagan' ... (Auzi honetaz ikus EGLU I: 147-157 orr.).

Pluralean beti 'eurac ...': 'Bienaventuraduac negarrez daudenac, cerren eurac izango dira consolatuac; Gurasoac euren semeay, nagusiac euren criaduay, eta Juezac euren republican arquitcen diraden aey ...' (AE 2.1.3. 3.).

4.19. 'Bi' zenbatzailea: Izenaren atzetik: 'razoe bi, mandamentu bitan, beatz biaz, beatz oec bioc, naturaleza bi, gauza bi diferenteac, persona bi, napur biren erdian, impedimentu bietatic, suerte bitatican bat ...' (ZDn: 'beatz birequin, modu bitan ...'). Erabilera hau gaur bizkaierazkoa bakarrik bada ere, antzina euskararen eremu zabalagoan aurkitzen zen. Gerriko, Amundarain, Iztueta, Lardizabal goierritarrek ere, normalean, izenaren atzetik ezartzen dute 'bi' zenbatzailea. Gaur egun ere oso normalak dira: 'hitz bitan; esku biez; egun biz bat ...'. (Ikus EGL 1993: 94. or.). (AE 3.1.).

4.20. 'Bat' zenbatzailearen gehiegizko (?) erabilera, '-a' mugatzailearen ordez: Izen zenbakaitzei ere 'bat' zenbatzailea eransteko joera handia du Otxoa Arinek. Dena den, izen kontaezinok, maiz, adjektiboren batez lagunduak agertzen dira: 'Da Gracia izan divino bat gueure animari vicitza ematen digona; ematen ere dio socorru andi bat ...; ematen dio Gracia bat corroboratcen debana

Fedean; ematen dio Gracia bat, ceñac garbitcen dion Anima ...' (EGLU I: 173-183 orr., eta EGL 1993: 91-92 orr.)[1].

4.21. Singular Mugatua/Mugagabea: Egun mugagabean egiten ditugun hainbat sintagma Otxoa Arinek singular mugatuan eratzen ditu: 'urte ascoan; ogueita amairu urtean ...'. (Ikus, bestalde, zenbakien idazkera: 'ogueita amairu', hots, hogeikoari '-ta' erantsi eta hurrengo zatia aparte. Ez, haatik, ZDn: 'oguehi eta amairu urtean'). Beste mugatuok gogorregiak ere badirudite: 'itz guchian, lab aldiaz, amar aldiaz ...'. (Dena den, '-z' kasu-atzizkia singular mugatuan egiteko joera aipatu dugu gorago ere).

4.22. Generoa: Zenbait hitz (izen eta izenondo) femeninoan erabiltzen ditu, baina gazteleraren arauak zorrotz jarraitzeke eta, egia esan, irizpide zehatzegirik gabe: 'religioso/religiosa; santu/santa' (baita 'santea' ere. Ikus azpiatal honen hasieran); 'Maria Santissima; Patrona Soberana; Eleiza Santa Catholica; Magestade Divina; personalidade humana; Gracia divina; bondade infinita; llaga preciosa; vicitza eterna; misseria humana; materia necessaria; necessidade extrema ...; Jaungoicoaren Ama Santua; Humanidade Santua; Crutce Santua; Fede Santua; anima eterno; pena eterno ...; Eleiza Ama Santu/Santa/Santea; Eleiza Esposa Santu/Santea; Trinidade Santu/Santissima; Doctrina Santua/Christiana; itz divina/santu/poderoso; Persona divina/distinta/divino/humano; naturaleza divina/humana/divino/humano; confessio sacrilega/sacrilego ...'. Bistan da jaso ditugun hitz guztiok maileguak direla; eta, gaur egun ere, honelako hitz dexente horrelaxe erabiltzen ditugula, hots, erdarazko femeninoan. Izan ere, Otxoa Arinek 'etorrera santua ...' dio, jakina, eta ez 'etorrera santa/santea'. (ZDn ere etengabe azaltzen dira izenondo maileguzko izenondo femeninook: 'anima sacratissima/desdichada; bondade eta missericordia infinita ...'. Halere, 'Humanidade santua; naturaleza divinoa eta humanoa ...').

4.23. Hainbat ñabardura:

Izena + arren: 'Christo Jaungoicoa dan partearren da Seme Eternoa, bañan guizona dan partetic ...'. (Ez dugu bakar hau besterik aurkitu).

'-racotz': Aditz-izenarekin: 'Ez dirade confessatu bear contuac eta historiac pecatua eguiteracotz passatu ciranac ...' (denbora zentzua). Izenondoarekin: 'Descubritu ote deban gauza graveric secretoa danic, ondasun publicoracotz conveni etzalaric, edo importatcen ez cebanic' (xede zentzua). (Ez dugu biok besterik aurkitu).

---

[1] Besteak beste, Goenaga 1980: 85-87 orr.

Banatzaileak: 'bat banaca ...'.

Zenbakiak, '-r-' tartekaturik: 'irurac, zazpirac ...'. Berdin ZDn ere.

Izenordain galdetzaileak: 'nun, nundic ...'. (AE 1.1.6.1.2.). Eta forma plurala ere bai: 'Ceintzuec dirade illac eta viciac?' ZDn ugariago: 'ceinzuec/ceinzuac, norzuac ...'.

5. ADITZA

Otxoa Arinen Doktrinako aditz-formak XVIII. mendearen hasieran Ordizian (Goierri osoan?) erabiltzen zirenak bide dira. Horregatik, Doktrina hau euskal aditz laguntzaileek azken mende hauetan izan duten bilakaera aztertzeko lekuko interesgarria dugu, zinez.

Honela dio J. Oregik: "Euskal aditzari buruzko teoria oso bat oraindik egin-kizun daukagu ... Aditzaz egin ditzakegun galderarik funtsezkoenak, hots, fle-sio-zatien sorburu eta aldakuntzekikoak, zitezkeen sistemetan egin diran auke-ren zioak, erantzunik gabe diraute ... Otxoa Arinen Dotrinak Goierriko hizkerak eta, bereziki, aditzak bi mende eta erditan egin duen aldakuntza zehatz ikasteko bide egoki bat eskeintzen digu ... Eta Gipuzkoako euskerak eta bereziki aditzak azken mendeetan izan dituzten aldakuntzen alderdi batzu ikasteko aukera ema-ten digu" [1].

5.1. Geure azterketari ekin aurretik, **ohar batzuk**, sarrera gisa:

• Aditz nagusia eta laguntzailea batzuetan lotuta, hitz batean idazten ditu ('itceguitendan'); beste batzuetan, berriz, aparte ('escrivitu ceban'). Halaber, laguntzailea eta beronen inguruko, aurreko zein atzeko, zenbait elementu ('al, ote, ere, ez ...'). Berdin, aditz nagusia eta 'eraguin' ('artueraguin'). Berdin, aditz-esapideak ('alcitean, beardeb'). 'Ez' eta aditz laguntzailearen lotura egitean, oso gutxitan errespetatzen ditu arau fonetikoak ('ezta'; baina normalean: 'ezda, ezbada'). (AE 1.2.3.).

• Azentua ere erabiltzen du; baina, gure ustez, irizpide zehatzegirik gabe. Batzuetan, badirudi, ahoskatzean bezala, bokala luzatzeko edo dela. Baina: 'die/dié (=die); die/dié (=dizkie); citúen/cituén (=zituzten)'. Adizki bera, batzue-tan, azentuatu egiten du; beste batzuetan, ordea, ez; edota adizki berari batean leku batean ezartzen dio azentua, eta hurrengoan beste batean. Azentuazio are

[1] Oregi 1972: 353, 366 orr.

xelebreagoak ere baditu: 'digúé'. Egia esan, nahikoa nahaste-borraste edo dudamuda sumatu dugu alor honetan.

• Adizkiaren eta atzizki gramatikalaren arteko lotura, Mendebaldeko euskalkietan bezala, '-a-' da, eta ez '-e-'. (AE 1.1.3.2.).

• Iraganaldiko marka, Mendebaldeko euskalkietan bezala, '-an' da, eta ez '-en'.

• Aditz-izena, askotan, partizipiotik sortzen du, eta ez oinetik: 'asitcen, ausitcen, acitcen, eutcitcen (=uzten), eratsitcen, deseguindutcen, jaichitcen/jauchitcen, piztutcen, saldutcen, artutcen, sinistutcen, galdutcen, sartutcen, sortutcen ...'

• Baditu zenbait aditz-izen bizkaiera-itxuran egiten dituenak: 'erorten, etorten, irteten, ifenten (=ipintzen) ...', hots, 'n/r'ren atzetik, '-tzen'en ordez, '-ten'. Honelako formak Goierri aldean ere (Segura-Zegamatan) erabili ohi dira. Bestalde, gogor samar hau: 'jaurduntcea (=jardutea)'. Geroxeagoko 'Zegamako Doktrina'n (ZDn) ere berdin: 'erorten, etorten, jarteco, ecartea ...'; baina: 'siniscen'.

• Ahaleran, Subjuntiboan eta Aginteran aditz nagusiaren partizipioa erabiltzen du, Mendebaldeko euskalkietan bezala; eta ez aditz-oina. Berdin 'eraguin' aditz arazlearekin ere. (AE 2.2.10.).

• 'Izan' aditzaren partizipioa, sarri, '-du' erantsita egiten du: 'izandu'. Berdin ZDn ere. Ez dugu 'egondu' eta horrelakorik aurkitu. Baina bai: 'deseguindu, importadu (=inporta izan) ...'.

• 'Irten' eta 'igo'ren komunztadura 'Nor-Nork' da, eta ez 'Nor': 'irteten degu; igo ceben (=zuen) Ceruetara ...'. Berdin ZDn ere: 'igo ceban Ceruetara'. Bizkaieraz ez ezik, Goierrin ere horrelaxe egin ohi dugu. Hernialdeko Irazustaren Doktrinan, ordea: 'igo zan Ceruetara; irteten gueradenean'. (AE 2.2.15-16).

• Ezezko esaldietan ere, askotan, adizki laguntzailea nagusiaren ondotik ezartzeko joera nabari zaio, hau da, baiezkoetan egin ohi dugun bezalaxe: 'concebitu ez ceban; Christoc artu ez ceban; guardatu ez cituén; ecin contuan jauci bada; ecin salvatuco naizana; nai izandu ez ceban ...'. Aditzaren ordena hau oso normala zen duela gutxi arte, batez ere idazle gipuzkoar eta bizkaitarren artean. Gaur egun ere horrelaxe egiten ditugu erlatibozkoak, zenbait harridurazko, etab.[2].

---

[2] Altube 1929: 66. zk.: Adibide mordoxkatxoa eskaintzen digu: Kapanaga, Larramendi, Añibarro, Otxolua, etab.enak.

EGLU II: 493. or.: "Hain aspaldiko ez diren idazle batzuk, hegoaldekoak batez ere, nagusiaren ondotik ematen dute laguntzailea ezezkoetan ere ... Ordena hori bera gordetzen da, egungo egunean ere, harridura tankerako moldea duten zenbait ezezko erretorikotan: 'hilda gelditu ez da ba! ...'.

- 'Nor Gu/Zu/Haiek' sailetan '-de' eransteko joera du: 'guerade ...'.
- 'Nori Haiei' sailetan '-te' eransteko joera du: 'zate (=zaie) ...'.
- 'Nork Haiek' sailetan, aldiz, '-te' kentzeko joera du: 'ditue (=dituzte) ...'.
- '-zki-' pluralgilea jateko joera du: 'die (=die); die (=dizkie) ...'.
- Iraganaldiko 'Gu/Guk/Zuk' adizkietan '-nd-' tartekatzen du: 'guenduan ...'.
- Baldintzaren Ondoriozko eta Ahalerako 'Nor' saileko adizkietan '- ke' egiten du: 'lizate; lite ...'.
- 'Egin' eta 'Ezan' aditz laguntzaile biak erabiltzen ditu 'Nor-Nork' eta 'Nor-Nori-Nork' sailetan. 'Nor-Nori' sailetan ere maiz erabiltzen du 'Egin' laguntzailea, 'Edin'en ordez.
- Egun bizkaierara mugatzen diren aditz-forma ugari azaltzen dira: Indikatiboko, Baldintzako eta Baldintzaren Ondoriozko 'Nor-Nork' sailetakoak eta Ahalera, Subjuntibo eta Aginterakoak.
- Indikatiboko 'Nor-Nori-Nork' sailean egun Iparraldera mugatzen diren aditz-formak ageri dira.

Eta sarreratxo honen ondotik, Otxoa Arinen Doktrinako adizkien hustuketa egin eta multzoka azalduko ditugu (ezkerreko zutabeetan). Horretarako, Euskaltzaindiaren sailkapena (EGLU II) jarraituko dugu. Beste hiru lantxo ere (Dodgsonen, Oregiren eta Yrizarren ekarpenak) kontuan izan ditugu [3].

Halaber, 'Zegamako Doktrina'ko (ZDko) adizkien hustuketa egin dugu; eta hauek Ordiziako Doktrinakoen alboko zutabeetan ematen ditugu, hots, erdiko zutabeetan. Honela, Goierriko bi Doktrina zaharrenon arteko erkaketatxo bat egin ahal izango dugu, berdintasunak eta aldeak aztertuz. Lan honetarako

---

[3] Dodgson 1902: 99-107 orr.: Otxoa Arinen Doktrinaren berrargitarapenaren ostean, bertako adizki guztien hustuketa eskaintzen digu, adizkion atzizki gramatikal eta guzti; ordena alfabetikoan, aditz-forma bakoitzaren kopurua eta azaltzen deneko orrialdea ere zehaztuz eta, tarteka, iruzkintxoren bat edo beste eginez.

Oregi, 1972: 353-369 orr.: Adizkiak sailkatuak eskaintzen dizkigu, forma bakoitzaren kopurua eta atzizki gramatikalak ere zehaztuz. Sail bakoitzeko zenbait iruzkin egiten ditu; batez ere, Gipuzkoako Goierriko forma zaharron eta bizkaierako zein Iparraldeko formen arteko erlazioa, lotura azpimarratuz.

Yrizar 1983: 683-687 orr.: Bizkaieraren eta gipuzkera zaharraren (eta egungoaren) arteko lotura trinkoa azpimarratzen du: "Gauza jakina da bizkaiera eta gipuzkera, alkarren ondoko euskalkietatik, alderik handiena dutenak dirala. Baino, hala ere, bizkaierako eta gipuzkerako adizkiak ez dute danak muga bakarra: aditz-joko bakoitzak bere muga du; isoglosak ez dira danak batera etortzen. Gainera badira adizki batzuek, bizkaieratik gipuzkerara poliki-poliki aldatzen diranak. Bizkaierako eta gipuzkerako adizki hutsaren tartean badira beste aditz-joko bitartekoak ...". Otxoa Arinen Doktrinako adizkien bilakaera komentatuz: "Mende hartan, aditz-joko horiek Ordizian egiazki erabiltzen bazituzten, beraien mugak, ordundik honera, bide luzea egin dute, sartalderuntz eta baita ere iparralderuntz ...". Eta Koldo Mitxelena aipatuz: "Egoera horren sustraiak Larramendigan aurki daitezke, gorago ez bada ..." (683, 687 orr.).

Ondarraren ASJUko argitalpena erabili dugu esku artean[4].

Halaber, Hernialdeko Joan Irazusta apaizaren Doktrina famatuko adizkien hustuketa egin dugu; eta hauek eskuineko zutabeetan eskainiko ditugu. Irazusta Tolosa-Beterri aldekoa dugunez (eta, denbora aldetik, Otxoa Arinen hurbilena), Goierriko aditz-formak eta alboko eskualdekoak alderatu ahal izango ditugu eta diferentziak (eta berdintasunak) ikusi. 1739ko edizioa erabili dugu.

Bestalde, XVIII. mendearen hasierako Otxoa Arinen aditz-formen eta XIX. mendearen hasierako Gerrikok eta Amundarainek erabiltzen dituztenen arteko erkaketatxo bat egiten ere ausartu gara; idazle biok baitira, mende bat geroagokoak direlarik ere, Ordiziako apaiz zaharraren hurbileneko idazle goierritarrak[5].

Joxe Migel Azurmendiren "Ataungo Euskara" ikerlana ere kontuan izan dugu: AE 2.2.1.: Ataungo adizki laguntzaileak.

5.2. Indikatiboa, Nor

Ordiziako Doktrina (OD)	Zegamako Doktrina (ZD)	Irazusta
naiz	naiz	naiz
da	da	da
guerade	guera	guerade/guera
cerade	cerade/cera	cerade/cera
dirade/dira	dirade/dira	dirade
zan	zan	zan
ciraden/ciran	ciraden/ciran	ciraden

Adizkiaren eta atzizki gramatikalaren arteko lotura '-a-' da, Mendebaldeko euskalkietan egin ohi den legez: 'naizana, dana, dirala ...'. Behin bakarrik azaltzen da '-e-': 'paratu oi den cuydadua' (inprentako hutsa-edo ez ote?). Berdin ZDn: 'naizala ...'. Berdin Irazustak: 'naizanean ...'. Berdin Gerrikok eta Amundarainek ere.

Iraganeko marka '-an' da, Mendebaldeko euskalkietan bezala: 'zan, ciran'. Berdin egiten dute besteek ere.

Loturak, normalean, arau fonetikoak errespetatu gabe egiten ditu: 'ezda, ezbada, eztzalarican ...'. Oso gutxitan: 'ezta, eztanic, etzalaric ...'. Honetan zehatzagoa eta txukunagoa da Irazusta.

---

[4] Ondarra 1984: 5-62 orr.: Doktrina (15-62 orr.) eta aditz-formez (9-13 orr.).

[5] Aranburu eta beste batzuk 1995; eta Aranburu eta beste batzuk, 1998: Segura-Mutiloko Gerrikori eta Zegama-Mutiloko Amundaraini buruzko ikerlan biotatik jaso ditugu adibideak.

'Gu' subjektuaren adizkiari '-de' eransten dio: 'guerade' . Irazustak eta Amundarainek bietara egiten dute, nahasian: 'guerade/guera'. ZDn eta Gerrikok ez: 'guera'.

'Zu' subjektuaren adizkiari '-de' eransten dio. Gerrikok ez. Besteek bietara egiten dute, nahasian.

'Haiek' subjektuaren adizkien bi aldaera azaltzen dira, erabat nahasian: 'dirade/dira; ciraden/ciran'. Dena den, '-de' erantsitakoak ugariagoak dira. Berdin ZDn eta Gerrikok eta Amundarainek ere. Irazustarenean 'dirade'; 'ciraden' bakarrik azaltzen dira.

5.3. Indikatiboa, Nor-Nori

OD	ZD	Irazusta
naitzaco	naizaco	naitzayo
zat		
zayo	zayo/zaco/zaca	zayo
zaizco/zaizca/zaiozca	zaizca	zaizca/zaitza
zacu	zacu	
zaizcu		
zate (=zaie)	zatea	zate
zaizte (=zaizkie)		
citzaion/citzacon/citzacan	cizacon	
citzaizcon/citzaizcan		
citzaten (=zitzaien)	cizatean	

Adizkiaren eta atzizki gramatikalaren arteko lotura '-a-' da: 'citzatealaric ...'. ZDko 'zatea' formaren akaberako '-a' adizkiarena berarena bide da: 'Cergatic etsaten zatea misericordiazcoac?' Iraganaldian, ordea, 'cizaten' ala 'cizatean'?: 'unitu cizateala ...'.

Loturak, normalean, fonetika-arauak errespetatu gabe egiten ditu: 'eztzaizcan, ezbazate ...'.

'Haiei' saileko adizkietan '-te' eransteko joera nabari da: 'zate, zaizte; citzaten'. Berdin egiten dute besteek ere. Baita Gerrikok eta Amundarainek ere.

"Niri' eta 'Guri'ren ezaugarrien aurreko '-i-' jateko joera du; Goierrin, egun ere, egin ohi den legera: 'zatan, zacuna ...'. Berdintsu jokatzen dute Amundarainek eta Gerrikok ere. Ez, ordea, 'Hari' eta 'Haiei' sailekoetan, 'naitzaco/naizaco/naitzayo' hirukotea barne. 'Haiei' sailean '-te'k irentsi egiten du '-i-': 'zate; citzaten ...'.

'-t' ezaugarria, adizkiaren erdian gertatzean, '-ta-' da, eta ez '-da-': 'zatan ...'; aurreko '-i-' irenstearen ondorioz, jakina. Gauza berdintsua gertatzen da '-

gu' ezaugarriarekin ere: 'zacu, zaizcu ...'. Forma hauek badute bizkaierakoen ('jat, yat, xat ...') antzik.

'Hari' saileko adizkietan hainbat aldaera azaltzen da: Orainaldiko 'Hura' atalean: ZDn 'zaio' formarekin nahasian 'zaco/zaca' ere azaltzen dira. Baita Gerrikoren eta Amundarainen lanetan ere. Forma erabiliak, egun ere, Goierri aldean. 'Haiek' atalean: Guztiek darabilte 'zaizca', beste zenbait aldaerarekin batera. Iraganaldian ere aldaera ezberdinak ikusten dira. Berdin egiten dute Gerrikok eta Amundarainek ere. Forma hauek ere badute bizkaierakoekin loturarik ('jako ...').

'naitzaco': 'Ni pecataria confessatcen naitzaco Jaungoico guciz poderosoari'. Forma hau ere aurrekoen multzoan kokatu behar dukegu.

'-zki-' pluralgilearen hainbat aldaera eta murrizketa ('-z-') ageri da: 'zaizco/zaizca/zaiozca; zaizcu ...'. Berdin egiten dute Gerrikok eta Amundarainek ere. Irazustarenean 'zaitza' bat azaltzen da.

5.4. Indikatiboa, Nor-Nork

OD	ZD	Irazusta
det (AE 1.1.5.1.)	det	det
zaitut	zaitut	zaitut
ditut	ditut	ditut
nab-: nabela (=nau)	nab-: nabela	
deb/debe/dabe/deu	deb/debe/deub	du/deb-: deban
gaitu	gaitu	
zaitu	zaitu	
ditu	ditu	ditu
degu	degu	degu
zaitugu		
ditugu	ditugu	
		nazu
dezu	dezu	dezu
dituzu		dituzu
dezue		dezue
nabe (=naute)	nabe	
debe/debea/dabe (e) (=dute)	debea	due/debe
	gaitue	gaytue
	zaitue	
ditue/dituzte	ditue	ditue
neban		

ceban/ceben	ceban/ceben	zuan/ceban
guinduzan (=gintuen)	guinducen/guindutcen	guinduan
		cinduan (=zintuen)
cituan/cituen	cituan	cituan
guenduan	guenduan	guenduan
cenduan		cenduan
ceben/ceban/cebean (=zuten)	cebean/zuen	zuen/ceben
cituen/cituzten	cituen	cituen

'-t' ezaugarria, adizkiaren erdian gertatzean, 'Nor-Nori' sailean ez bezala, '-da-' egiten du: 'dedan, zaitudan, ditudan ...'. ZDn, haatik, 'deran, dituran ...' ere azaltzen dira.

Adizkiaren eta atzizki gramatikalaren arteko lotura '-a-' da: 'eztebalaric, deban, debean, gaituana, zaitualarican, dituana, nabean ...', Mendebaldeko euskalkietan bezala.

Iraganaldiko marka '-an' da: 'neban, etceban, cituana ...', Mendebaldeko euskalkietan egin ohi den legez.

Iraganaldiko 'Gu/Guk/Zuk' adizkietan 'nd-' tartekatzen du, Goierrin hain ohikoa den eran: 'guinduzan, guenduan, cenduan ...'. Amundarainek ('guinducen, cinducen, cinduzten, guenduan, cenduan, cenduten ...') eta Gerrikok ('guinduzan, guenduan, cenduan ...') ere berdin-berdin egiten dute.

'Nork Haiek-Nor Haiek' saileko adizkietan '-te' ezaugarria murrizteko joera du, Goierrin egin ohi den eran: 'ditue, cituen (=zituzten)'. Dena den, normalean, ondo bereizten dira 'Nork Hark' eta 'Nork Haiek': 'dituan (=dituen)/dituen (=dituzten); cituan (=zituen)/cituen (=zituzten) ...'. Gerrikok ere, ia beti, eta Otxoa Arinek berak baino askoz ere zabalago, '-te' ezaugarria jan egiten du: 'due, gaitue, cigüen ...'. Amundarainek, ordea, ez: 'dituzte, cituzten ...'.

'Nork Haiek-Nor Ni/Hura' sailetan '-be-'k irentsi egiten du '-te'. Horregatik, batzuetan ez dira ondo bereizten 'Nork Hark' eta 'Nork Haiek': 'nabe (=nau: nabela, nabeana ...)/nabe (=naute: Ni agrabiatu nabean aec guciac), debe (=du)/debe (=dute), ceben (=zuen)/ceben (=zuten) ...'.

'-b(e)-'dun adizkiak azaltzen dira, hots, oinarrian '-(a)u/(e)u-' dutenak: Orainaldiko 'Hark Ni/Hura' eta 'Haiek Ni/Hura' eta Iraganaldiko 'Nik/Hark/Haiek Hura' subjektuen adizkiak dira. Egun Hego Euskal Herriko Mendebaldera (bizkaierara eta Gipuzkoako Urolaldera eta kostaldera) baztertu-rik ikusten ditugun forma hauek Otxoa Arin zaharrak, Ordiziako euskaran ari delarik, barra-barra erabiltzen ditu; XVIII. mendearen hasieran Goierri alde honetan ere erabiltzen ziren seinale, beraz. Auzi hau txit interesantea dateke 'Ukan' aditz laguntzailearen erroaren azken mendeotako bilakaera aztertzeko. Amundarainek ere erabiltzen ditu apurtxo bat: 'nabe/naue/naute ...'. Baita

Irazustak ere: 'deban, debe; ceban, ceben ...', 'du, due; zuan, zuen ...'ekin nahasian. Baina Gerrikok ez[6].

Bestalde, iraganaldiko adizkiak Mendebaldeko bizkaieran hasierako 'z-' gabe dira: 'eban, ebean ...'. Baina, Gipuzkoa aldeko bizkaieran, Urolaldean, etab., gure ordiziarrak (eta ZDn eta Irazustak ere bai bakanxeago) egiten duen bezala, hasieran 'z-' eransten zaio: 'zeban, zeben ...'.

Otxoa Arinen Doktrinan 'dodan' bakar bat ere azaltzen da. Bizkaierako forma da hau ere, jakina. Hala ere, ez ote idazteko hutsen bat edo?

5.5. Indikatiboa, Nor-Nori-Nork

OD	ZD	Irazusta
diot	diot	diot
		diozcat
dizut	dizut: dizuran	dizut
dirautzut/diutzut (=dizkizut)		
diet		diet
dit	dit: diran	dit
dirauzt (=dizkit)		diuzt: diuztala
dio/digo/diago?	dio	dio
dirautza/diozca (=dizkio)		diuzca
digu	digu	digu
dirauzcu (=dizkigu)		diuzcu
die	die	die
die (=dizkie)		
diogu	diogu	
dirauzcagu (=dizkiogu)		
	dizugu	
diegu	diegu	diegu
		diuztegu (=dizkiegu)
didazu	dirazu	didazu
dirauztazu (=dizkidazu)		diuztatzu/ diuztazu
	diozu	

[6] Yrizar 1983: 686-687 orr.: Mitxelena aipatuz: "XVII. mendean 'debe' esan oi zan Gipuzko geienean ...". Eta geroxeago: "Eremuz eta jendez neurtzen bada, esan daiteke besterik gabe 'due (debe)' dela gipuzkeraz gehien erabiltzen den adizkia. Hau, ordea, aho hizkerari dagokio soil-soilik. Idazkietara jotzen badugu, 'dute' ageri da nagusi. Egoera horren sustraiak Larramendigan aurki daitezke, gorago ez bada ...".

		diozcatzu (=dizkiozu)
	diezu	diezu
		diuztezu (=dizkiezu)
digoe (=diote)	diobe	
digue (=digute)	digue	digue
diete/dizate		
ciran (=zidan)		ciran
cion/cigon	cion	
cirauzcan/ciozcan (=zizkion)		
cigun	cigun	cigun
cirauzcun (=zizkigun)		ciuzcun
cien	cien	
cigoen (=zioten)	cioben	

'Nor' plurala honela da: 'dirautzut/diutzudan, dirauztan, dirautza, dirauzcu, dirauzcagu, dirauztazu, cirauzcan, cirauzcun ...': Forma hauek Ekialdeko euskalkietakoak dira, gaur egun zeharo galduak Mendebaldekoetan; baina, dirudienez, XVIII. mendearen hasieran Goierri alde honetan erabiltzen zirenak. Irazustak ere badarabiltza, tarteko '-ra-' gabe: 'diuztala, diuzca, diuzcu, diuztegu, diuztazu, diuztezu, ciuzcun ...'. Otxoa Arinek berak ere behin tarteko '-ra-' gabe darabil: 'diutzut'. Puntu hau ere arras interesantea bide da 'Ukan' aditz laguntzailearen 'Nor-Nori-Nork' saileko adizki pluralen bilakaera eta eremu-murrizketa ikertzeko.

'diozca, ciozcan ...' aldaerak ere oso erabiliak dira, itxura guztien arabera, gorago jasotako formen alboan. Irazustaren Doktrinan ugariago. Amundarainen eta Gerrikoren lanetan ere etengabe azaltzen dira. Gaur egun ere oso entzunak Goierriko bazterretan.

'-zki-' pluralgilea jateko joera nabari da: 'die (=die)/die (=dizkie)'. Plurala, batzuetan, azentuatu egiten du, baina irizpide zehatzik gabe. Plurala jatea oso normala da Goierrin. Gerrikok eta Amundarainek ere antzeratsu egiten dute.

'-te' ezaugarria murrizteko joera ikusten da: 'digoe, digue, cigoen ...'. ZDn eta Irazustak ere berdin: 'digue ...'. Murrizketa hau oso normala da Goierrin. Gerrikok ere berdintsu jokatzen du. Amundarainek, aldiz, gutxixeago: 'dizue/dizute ...'.

ZDn bakarrik azaltzen da '-be' '-te' plural ezaugarriaren ordez: 'diobe, cioben'. Otxoa Arinek: 'digo, digoe, cigoen': '-i-' eta '-o-' bokalen artean '-g-' herskari ozena tartekatzen du maiz; egungo '-y-' ('diyo') edota '-x-' ('dixo') baino gogorragoa. Ez da horrelakorik azaltzen Gerrikoren eta Amundarainen lanetan, ezta egungo goierrieran ere. Otxoa Arinen '-g-' gogorrak '-be/-te' irentsi egiten du: 'digoe', eta ez 'digobe/digote'; 'cigoen', eta ez 'cigoben/cigoten'.

'Nori Niri'ren ezaugarria adizkiaren erdian geratzean: 'ciran (=zidan)'; baina 'didazu ...'; ZDn, haatik, 'dirazu'. Amundarainek: 'dirate (=didate), didazute ...'. Gerrikok, berriz: 'dirazue (=didazue) ...'.

'dizaten': 'Debecatu ote dizaten hoostutcea, edo consentidu eta disimulatu ote dizaten napurretaric eguitea': Testuinguruaren arabera, 'dieten' da; eta ez ahalerako 'diezaieketen', ezta subjuntiboko 'diezaieten' ere.

5.6. Ke alegiazko baldintzak

OD	ZD	Irazusta
baliz		baliz
balira/balirade		balirade
baleu/baleb (=balu)		
balitu		balitu
		balue (=balute)
	baguinduz (=bagenitu)	
baderi (=badadi/baledi?)		

'Baldin' partikula maiz erabiltzen du.

Baldintzari ez dio inoiz '+ ke' eransten. Amundarainek eta Gerrikok bai: 'balizaque ...'. Egun Goierrin maiz erantsi ohi zaio.

'baleu/baleb': Bizkaiera kutsuko horrelako formei buruz gorago ere aritu gara. Baita 'Nor Haiek' subjektuaren adizkiei '-de' eransteko joeraz ere.

Aditz-izena aspektu burutugabean ('-tzen/-ten') maiz erabiltzen du: 'Cumplitcen baliz, izango lizate pecatu mortal berria'. Gaur egun, ia beti, partizipio pasiboa ('kunplitu/kunplituko') erabili ohi dugu, Hegoaldean bederen.

'baderi': 'Baldin oroitu al baderi': Aurretik 'ahal' eransten dio. Amundarainek eta Gerrikok ere badituzte egun galduxeak ditugun alegiazko baldintza aspektugabe batzuk; eta beti aurretik 'ahal' erantsita.

5.7. + ke orainaldikoak, alegiazkoak eta iraganak

OD	ZD	Irazusta
lizate		lizateque
ciratean		
litzaio	litzaio	
	neuque	nuque
leuque		
dirate-		
liza-		
leb-		

Ia beti '-ke' gabe egiten du. Horrela ziren forma zaharrak. Gerrikok ere, askotan, berdin: 'lizate, guiñate ...'. Ez, haatik, Amundarainek: 'lizaque ...'. Ezta Irazustak ere.

'leuque, neuque ...': Egun, gorago jardun dugun eran, bizkaierako formak dira.

'Cembat ote diratean guchi edo asco (=diratekeen)'; 'Dan chiquiena lizalarican ere (=litzatekeelarik ere)'; 'Cerren cumplitcen lebánac, eguingo leuque pecatu (=lukeenak)': Egun galduxeak edota erabat galduak (Orainaldikoak salbu: 'dateke ...') dauden forma hauek ez-errealtasuna, alegiatasuna eta, gainera, inpertsonaltasuna edo subjektu zehatzik eza azpimarratzen dute. Gaur egun, forma zaharkituon ordez, Indikatiboko, Baldintzaren Ondoriozko nahiz Ahalerako adizkiak erabili ohi ditugu.

5.8. + ke aspektugabeak

OD	ZD	Irazusta
dite/diite (=daiteke)	date	diteque
ditezque		
lite/liite/leite/leique	lite/liteque	
litezque		
citean/ceitean (=zitekeen)	citean/ceitean	
		dezaquet
daique/daguique/dezaque	dezaque	dezaque
		gaitzaque
ditzaque		
daiquegu (=dezakegu)		
dezaquete		
leique	lezaque	
	cinzaque (=zintzake)	
ceiquean (=zezakeen)		
cizaquela		
cezaqueten		
deiqueo/diozaque/dizoco (=diezaioke)		
neiqueo (=niezaioke)		
leiqueo (=liezaioke)		

Lotura '-a-' da: 'ditean, ditezquean, leitean, liitean, litezquean, daiqueana, dezaquean, aldaguiquealaric, leiquean ...'.

Iraganaldiko marka '-an' da: 'citean, ceitean, ceiquealaric ...'.

'Nor' saileko singularreko adizkiak '- ke' dira: 'dite, lite, citean ...'. Egun bizkaieraz bezala. Irazustak, Amundarainek eta Gerrikok beti '+ ke' egiten dute: 'diteque, liteque, citequean ...'. ZDn bietara, nahasian.

Mendebaldeko euskalkietan bezala, aditz nagusiaren partizipioa erabiltzen du, eta ez oina: 'suceditu dite; ezagutu daique Christauvac ...'. Behin edo behin aditz-oina: 'ezcutuan arqui litezquean ...' (beti ere, '-tu' bukaeradun partizipioekin).

Baiezko esaldietan, maiz, 'ahal' gehitzen du adizki laguntzailearen aurretik: 'imaginatu al ditean; desseatu alitezquean; aldaguiquealaric; alceiquealaric ...'. Ezezkoetan, beti, 'ezin' erabiltzen du: 'ecin izan dite; ecin izan ceitean; ecin il ceitean; ecin icusi daiquegun; ecin quendu leiqueo ...'. Gerrikok eta Amundarainek ere berdin.

Ezezko esaldietan ere, askotan, adizki laguntzailea nagusiaren ondotik ezartzeko joera azaltzen du: 'ecin izan dite; ecin quendu leiqueo; ecin icusi daiquegu; ecin il ceitean ...' (ikus azpiatal honen sarreran).

'Nor-Nork' eta 'Nor-Nori-Nork' sailetan 'Ezan' eta 'Egin', aditz laguntzaile biak erabiltzen ditu. Amundarainek eta Gerrikok ere bai. Eta, egun ere, bizkaieraz ez ezik, Goierrin txit normala (normalena) da 'Egin' errodun adizkiak erabiltzea. ZDn eta Irazustarenean 'Ezan' baino ez da azaltzen.

'Nor' sailean ere azaltzen da 'Egin' erroa: 'leique (=legike)'. Amundarainek eta Gerrikok ere berdin egiten dute. Horrela, 'liteke' eta 'Nor-Nork' saileko 'lezake' nahastu egiten dira, bizkaieraz ez ezik, Goierrin eta Gipuzkoan barrena ere nahastu ohi diren bezala.

5.9. - ke aspektugabeak

OD	ZD	Irazusta
dadin/didin/dirin	dirin	didin/dedin
gaitecen/gaitean	gaitecen/gaitetcen	gaitecen/gaitetcen
	zaitean	zaitecen
	ditean (=daitezen)	ditecen
guindecen (=gintezen)		
daquion/daguiocan	daquion	
	daquigun	
cequion		
		dezadan
zaitzatan (=zaitzadan)		
daguian/daguien	dezan	dezan
	gaitcen	gaitzan
	zaitzan	zaitzan

ditzan	dizan	
daigun/daguigun/dezagun	dezagun	dezagun
ditzagun		ditzacun
daguizun	dezazun	
gaitzatzun		
dezaten	decean	deceen
		zaitzaela (=zaitzatela)
	ditcean	ditzaen/ditceen (=ditzaten)
ceguian/ceguien (=zezan)		
		diazadala (=diezadala)
deigun (=diezagun)	deigun/deguigun	diazagula/deguigula
		diatzaitzula (=diezazkizula)
diozagun (=diezaiogun)		
		deguiozula (=diezaiozula)

'-nd-' adizkeraren erdian: 'guindecen ...'

Ezezko esaldietan aditzaren ordena, sarritan, hau da: 'inor il ez dezagula; erori eztidin; erorten eutci ez gaitzatzula; inori jaso ez diozagula; pecaturic eguin ez dezagula; ohostu ez dezagula; deseatu ez dezagula ...'. Baita: 'ez dezagula eguin ...' (ikus azpiatal honen sarreran).

Normalean, aditz nagusiaren partizipioa erabiltzen du eta ez oina: 'alabatu dirin; salvatu guindecen; santificatu ditzagula; honratu ditzagula; serbitu ceguian ...'. Baina, tarteka-marteka, aditz-oina ere bai, Ekialdeko euskalkietan bezala: 'guarda ditzan; ecusi eta goza ceguian ...'. (Beti ere, '-tu' bukaeradun partizipioekin).

'dadin/didin/dedin' (azken adizki hau Irazustak): Zehaztasun falta sumatzen da. Gerrikok eta Amundarainek: 'dedin'. 'dirin': '-d-' bokal artean gertatzean, '-r-' bilakaturik.

'gaitecen/gaitean': Bigarren forma, egun, bizkaierakoa da. Amundarainek ere biak erabiltzen ditu nahasian: 'gaitecen/gaitean, gaiteala, zaiteala ...'. ZDn ere bai: 'zaitean, ditean ...'.

'Nork Haiek' sailean, Otxoa Arinek 'dezaten' erabiltzen du; baina ZDn eta Irazustak: 'decean, deceen, zaitzaela, ditcean, ditzaen/ditceen', hots, '-te' marka murriztua.

'daguicoan': 'Batere ezcutaduric guelditu ez daguicoan moduan'. Aditz laguntzailearen erroan 'Egin' nabari da.

Ahalerako adizkietan bezalaxe, Subjuntiboan ere 'Ezan' eta 'Egin' aditz laguntzaile biak erabiltzen ditu, nahikoa nahasian gainera. Berdintsu jokatzen dute Amundarainek, Gerrikok, Iztuetak, Lardizabalek ... Goierri aldean eta Gipuzkoan barrena ere (bizkaieraz bezalaxe) oso normala da erroan 'Egin' duten adizkiak entzutea; batez ere, 'Nor-Nori-Nork' sailekoak. ZDn eta Irazustarenean, 'Nor-Nork' sailean 'Ezan' bakarrik azaltzen da; baina, 'Nor-Nori-Nork' sailean, 'Egin' ere bai: 'deigun/deguigun, deguiozula'. (AE 2.2.1.7. eta 2.2.6.).

'-n/-la' bukaerak: Biak erabiltzen ditu: Helburuzko perpausetan, '-n'; agindua, desira, etab. azaltzeko, '-la'. Agintea adierazteko ere erabiltzen ditu Subjuntiboko adizkiak, jakina.

5.10. Aginte adizkiak

OD	ZD	Irazusta
bidi	bidi	bidi
		zaite/zaitez
	zaquitzo (=zakizkio)	
beza		
bitza		
eguizu. eiquezu	ezazu/etzazu	ezazu/eguizu
gaitzatzu/gaizatzu	gaizatzu/gaitzatzu/gaizazu/gaitzezu	gaitzatzu
eguitzazu/eguitzatzu/eguiztzu	izazu/itzazu/itzezu	itzatzu/itzazu
beze (=bezate)		
beguio (=biezaio)		
eguidazu (=iezadazu)		eguidazu
eguiztazu/eguiztatzu (=iezazkidazu)		
	eguiozu (=iezaiozu)	eguiozu
eguiguzu/eiguzu (=iezaguzu)	eguiguzu	eguiguzu
eguizcutzu (=iezazkiguzu)	eguizguzu/eguizcuzu	eguiuzcutzu

Normalean, aditz nagusiaren partizipioa erabiltzen du, eta ez oina: 'artu eguizu; eracutsi eguizu; libratu gaitzatzu; barcatu eguizcutzu; eracutsi eiguzu ...'. Behin edo behin: 'libra gaitzatzu; confessa bitza ...' (beti ere, partizipioaren bukaera '-tu' denean).

'bidi': 'izan bidi; eguin bidi ...'. Amundarainek: 'bedi/bez'. Gerrikok: 'biz'.

'beze (=bezate)'. 'Haiek' pluralaren '-te' ezaugarria murriztua.

'Nor-Nork' saileko adizkien erroa, batzuetan, 'Egin' da. Bizkaieraz ez ezik, Goierrin ere oso normala: 'regutu eguizu; eracutsi eguizu; artu eguizu; itzuli eguitzatzu ...'. Irazustaren Doktrinan 'eguizu' bat azaltzen da. ZDn ez. Amundarainek eta Gerrikok 'Ezan' erabiltzen dute.

'Nor-Nori-Nork' saileko adizkien erroa, beti, 'Egin' da. ZDn, Irazustak eta Gerrikok bezalaxe. Amundarainek, haatik, 'Ezan' erabiltzen du. (AE 2.2.6.).

'eiquezu': 'Crutce Santua adoratcen dezunean, esan eiquezu: Adoratcen eta bedeincatcen zaitugu ...': 'eguizu + ke = egikezu' nahiz 'ezazu + ke = ezakezu'. Geroaldiko (eta alegiazko) agintera zaharra, egun desagertua [7].

---

[7] Oregi 1972: 361-362 orr.: "Añibarrok (Esculiburua) aginte-era bi bereizten ditu: 'Egizu, Egidazu, Egiozu ...: Gauzea ordu berean egin bearra danean; Eikezu, Eikedazu, Eikiozu ...: Geroagogarrenean egin bearko danean'. Bigarren hau darabil Otxoa-Arinek flesio ontan".

5.11. Jokaera trinkoak

Eduki: daduca/dauca, daduzca, daducagu, naducazu, daducazu. ceducan. leducaque. 'Eduki' aditzaren erroko '-d-'ri eutsi egiten dio. ZDn: dauca/dauque/daduca, dauzca/dauzque/daduzca, dauquegu, dauquea (=daukate). batzenduca (=bazeneuka). Irazustak: daducat, daduca, dauzca, gauzcate. Gerrikok: dauque, daducagu ... Eta Amundarainek: dauca ...

Egon: nago, dago, gaude, zaude, daude. cegoan, ceuden. 'Nor-Nori' sailean: daguicoan (=dagokion). Gerrikok eta Amundarainek: dagoca/dagoquio. ZDn: dago, gaude, zaude, daude. cegoan, ceuden. Irazustak: dago, gaude, zaude, daude. ceuden.

Ekarri: dacaz(e) (=dakartza. Gerrikok ere: dacaz. Baina Amundarainek: dacarce), dacarde (Gerrikok eta Amundarainek: dacarte).

Eroan: daroagu. (Egun bizkaieraz baino ez. Gerrikok eta Amundarainek: daramagu).

Esan (*Ion): diot.

Etorri: dator, gatoz, datoz. betor. ZDn eta Irazustak: dator. betor.

Iraun: diraute.

Iritzi: deritzo/deritza/deriza, deritzoè ('-te' ezaugarria laburturik). ZDn: deritzo/deriza. Irazustak: deritza/deitza.

Jakin: daquit, daquitzat (Oraindik ere Goierrin -Ataunen eta- oso entzuna), daqui, daquiè ('-te' ezaugarria laburtuaz). ciaquian (Gerrikok eta Amundarainek: cequian). Eta 'Nor-Nori-Nork' saileko bitxi hau, egun galdua: diaquit: 'Nere proximoac ez badiaquit neri cer juicio gaizto eguin dodan beraren contra ...'. ZDn: daqui, daquigu. Irazustak: daqui, daquizu.

Joan: dijoa/dixoa/dijea/digea (Amundarainek: dijoa. Gerrikok: dijoa/doa), dijoaz/dijeaz/digeaz. cigeacen. Eta 'Nor-Nori' sailean: dijoaca (Gerrikok: dijoaquio. Amundarainek: dijoquio). ZDn: dijoa, dixoaz. Irazustak: dijoa. balijoa. guacen (=goazen). (AE 2.2.2.).

5.12. Arazi

Normalean 'Eragin' erabiltzen du; gure aldean oso zabal: 'artueraguin ote dion estaduren bat; galdueraguin; mudatueraguin/mudaeraguin; botaeraguin; ecusieraguin ...'. Behin edo behin, 'Erazan': 'sartuerazaten debanac ...'. Gerrikok ere, normalean, 'Eragin' erabiltzen du: 'illeraguin; adi eraguin; galdu eraguin;

Halaber, EGLU II: 353. or.: " ... euskara zaharrean badirudi bazegoela geroaldiko halako agintekera bat edo, hizkuntzan desagertu egin zaiguna ... etorkizunezko adizki horiek '-ke' hartzen dute ...".

pagatu eraguin; ausi eraguin; icasieraguin ...'; oso gutxitan 'Erazo': 'illerazo; aserre erazo ...'. Amundarainek, aldiz, ia beti 'Erazo' erabiltzen du: 'aztuerazo; artuerazo; eguiñerazo; gorde erazo; iraunerazo; joerazo; jan erazo ...'. Behin edo behin: 'jausi eraguin ...'.

Aditz nagusiaren partizipioa erabiltzen du, eta ez aditz-oina.

Partizipioa eta 'Eragin', normalean, lotuta.

'-ra-' artizkiaz osatutako aditz ugari: 'iracatsi, eragotzi, erachi ...'.

5.13. Erregistro bereziak

Otxoa Arinen Doktrina erregistro neutroan dago idatzia. Ez da hikako, ez berorikako tratamendurik azaltzen.

Doktrinan haurrak apaizari zuka egiten dio: 'Galdezen dizut: Aurra cerade Christauva? Erantzuten dizut Jauna: Ni Christauva naiz ...'. Mende bat geroago, Gerrikoren Doktrinan herri xeheak apaizari berorika egiten dio: ' ... eracutsi beguigu (berorrek) ...'. Amundarainek ere Migel Zumalakarregi ministroari berorika egiten dio: '¿Nori besteri berorri baicic ...?'

6. JOSKERA

Hizkuntz joskerari dagokionez, kritika gogorrak jaso dituzte gure klasikoek: Nahikoa traketsak omen dira, erdal joskerari lotuegiak ... Batzuetan, euskal sen jatorra izan arren eta, gure aldean, erdarak gutxi kutsatuak egonagatik, garaiko 'moda', apaizen artean besteak beste, oso errotua jarraitu 'nahiak/beharrak' eraginda, erdal joskerarako joera nabarmena ageri da Otxoa Arinen Doktrinan, eta garaiko nahiz geroagoko idazle asko eta askorengan. Ikasketa guztiak erdaraz egin izanaren eta beren lana erdarazkoen itzulpena izatearen ondorioz, noski. Halere, esan behar da 'erdal estilo' delako hau euskal herri xumeak aski ezaguna (eta, beharbada, 'estimatua') zuela, doktrina eta sermoietan hainbat bider entzuna eta errepikatua izaki. Ustezko erdarakada, 'mordoilokeria' hauei buruz aritu gara Lexikoaren azpiatalaren sarreran.

Jarraian, Doktrinako joskeraz edo sintaxiaz jasotako hainbat egitura eta adibide eskainiko ditugu.

6.1. Emendiozkoak

'eta/ta': Izen-sintagmak nahiz perpausak lotzeko: 'viciac eta illac', 'Festac eta Jay egunac', 'izandu zan crucificatua, illa eta sepultatua', 'pecatuaren vide ta ocasio gucitic', 'gauzaric ta haciendaric', 'igo cebana Ceruetara, ta dagoana jarriric ...'. Ez dugu 'da' aldaerarik aurkitu.

'ere': Lokailu honen aldaera eta kokapen ezberdinak: a) Aditz nagusiaren eta laguntzailearen erdian: 'ematen ere dio socorru andi bat', 'barcatcen ere dirautza pecatu venialac', 'ecin arquitu ere daique ...'; b) 'X ere': 'iduqui ere bear du siniste firmea', 'bere buruari edo inori ere besteri', 'inor ere salvatu ote diite ...'; c) 'Baita X ere': 'venciduco ditugu demonioa, mundua, eta gueren apetitu gaiztoac, baita gueure gorputceco osasunean gaitza eguin nay digun edoceiñereco criatura ere', 'badaquit bestela ecin salvatuco naizana, eta baldin neure culpaz ez badaquitzat, baita nagoana ere pecatu mortalean'; d) 'X ere bai': 'ezcutuan arqui litezquean aec guciac ere bay', 'barcatceco ere bai'; e) 'X ere ez': 'ez ceban inoizere izan guizonan artetic inorequin ere parteric batere'; f) 'Ez X ere':

'ez da izango temerarioa, eta ez pecatu ere', 'nola ez dan Jaungoicoaren poderioarentzat imposibleric eta dificultaderic, eta ez nequeric ere'. (Ez dugu 'Ezta ... ere' aldaerarik aurkitu). (EGLU III: 50-51 orr.).

'-z gainera', '-z kanpora', '-z ostean': 'eta orrez gañera jaquitea memoriaz', 'bere vicia emanaz gañera', 'Esan degunaz gañera', 'instrucio edo regla aez campora, eta concienciaren examinaz campora', 'Credoan encerraturic dagoanaz ostean', 'Jaungoicoaz ostean, iñorc ere bestec criatu, edo sortu ote daique gauzaric?', 'onez ostean, emen entzutera ematen dan gauza da', 'onez ostean, bear deu', 'orrez ostean ere' ... (EGLU IV: 110-111 orr.). (ZDn: '-z ostera'. Amundarain zegamarrak: '-z gañera/-z langara/-z ostean').

Aurkaritzako edo emendiozko lokailuak batera: 'Juramentu ab ez solamente da bigarren Mandamentuaren contraco pecatua, bañan baita zortzigarren Mandamentuaren contracoa ere', 'eta ez solamente mundu onetan, bañan baita Ceruan ere', 'ez solamente bear dirade osotoro confessatu, bañan baita ...', 'ez solamente da virtutearen contraco pecatua, bañan baita orrez ostean ere dator izatera ...'. Ikusten denez, lehenengo perpausa beti ezezkoa da; ('ez solamente', zehatzago). Esaldi-mota hauek, aurkaritzakoak baino areago, emendiozkoak dira: Geroxeagoko autoreen (Gerrikoren, Amundarainen ...) lanetan bai, Baina Otxoa Arinen Doktrinan azaltzen ez den 'ez eze (= ez ezik)' lokailua erabili ohi dugu egun: 'Juramentu hau bigarren Mandamentuaren kontrako pekatua ez ezik, zortzigarren Mandamentuaren kontrakoa ere bada'. (AE 3.8.).

'Eta' juntagailua sinonimo-kateak egiteko erabiltzeari buruz jardun dugu lehenago, Lexikoaren azpiatalean. Azter dezagun orain, hitzok lotzerakoan, nola erabiltzen dituen deklinabidearen kasu-atzizkiak eta aditzarekiko komunztadura:

Deklinabide-atzizkiak: Ia beti hitz bakoitza markatua: 'bere gurasoay, nagusiay, Preladuay, buruay, persona ancianoay', 'ceugana gaude suspirioz, sentimentuz, eta negarrez', 'nola ez dan Jaungoicoaren poderioarentzat imposibleric eta dificultaderic, eta ez nequeric ere' ... Ez du deklinabide-atzizkia azken hitzari bakarrik erantsitakorik; izenondoa bere aurreko izen biei loturik ('trabaju eta tormentu andiac', noski) edota katea alboratze hutsaz zein alborakuntza eta juntagailuak konbinatuz osatzen duenean ('gu redimitceagatic, libratu, eta rescatatceagatic') izan ezik. Salbuespena: 'flaqueza eta miseriac'.

'Edo' juntagailu hautakariarekin ere berdintsu jokatzen du: 'impedimenturic edo embarazoric', 'Christau fiel gucien congregacioa, unioa edo multitudea' ...

Aditzaren komunztadura: Hitzak singularrean deklinaturik agertzen badira, aditza ere, normalean, singularrean: 'Christauvaren señalea eta insignia cein da?', 'ezagutu daguian bere pecatuen gravedadea, eta ichusitasuna, eta damua, eta urriquimentua', 'estadu graciazcoan baldin bagaude, alcanzatcen degu graciaren augmentua, gueuren pecatuen satisfacioa, eta gueuren necesidade guztien remedioa' ... (EGLU IV: 33-38 orr.). (AE 2.2.13.).

6.2. Hautakariak

'edo': 'confessio generala edo particularra', 'emazteric edo compañiaric', 'bere vorondate edo nay divinoaz' ... Baita, banakari gisan, izen sintagmaren sarreran ere: 'escarmentu andiren bat edolaere temporala, au da, edo purgatorio andi bat, edo mundu onetan ...'.

'edota': 'cerren mudatu ceban cumplitceco intencioa, edota ...' (bigarren perpausa luzea denean).

'ala': 'Jaungoicoa zan partetic, ala guizona zan partetic ilic guelditu zan Crutcean?' (Ez dugu besterik aurkitu). (AE 3.9.).

6.3. Banakariak (Emendiozkoak zein Hautakariak)

'nola ... ala ...': 'nola Ceruan, ala lurrean': 'Gure Aita' otoitzeko esaldi hau, egun 'Zeruan bezala lurrean ere' esan ohi dena, moduzko konparaziozkotzat ez ezik, banakaritzat ere jo dezakegu. Halaber, 'ala corputza, nola Anima'.

Baina, batez ere, 'ala ... nola ...': Beti ordena horretan. Eta maiz, katea luzatzeko, 'edo/eta' juntagailuak ere gehituz: 'ala aguinduaz, nola conseju emanaz, edo beste moduren batez', 'examinatu bere vici gucico temporan eguin dituan pecatuac, ala pensamentuaz, ala itzaz, ala obratuaz, nola bere omisioz, edo descuidoz' ...

'naiz ... naiz ...': Sarritan, goiko adibideetan bezalaxe, 'edo/eta' juntagailuak ere gehituz: 'naiz alabaren bat, naiz emacumeren bat', 'naiz escuaz, naiz maquillaz edo beste edoceiñeco armaren batez, edo naiz dala injuriaz, edo desprecioz', 'ustean, edo iritcian, edo naiz dudan, eta receloan', 'Confessio general bat, eta naiz particular bat ongui eguiteco' ...

Baita '-la ...-la ...' erantsita ere: 'naiz diradela Fedearen contracoac, naiz Santuen contracoac, edo beste edoceinereco materiaren baten contracoac', 'naiz dirala cumplitceco intencioarequin eguinac, naiz ez dirala intencio orrequin eguinac', 'naiz zala favorecitceagatic, eta ..., edo ...' ... (Gerrikok eta Amundarainek ere banakari berberak erabiltzen dituzte). (AE 3.9.).

6.4. Aurkaritzakoak

'bañan': 'Christo Jaungoicoa dan partearren da Seme eternoa, bañan guizona dan partetic ...', 'ignorante ascoc uste debe pecatu eguiten dala barcacioa ez escatuaz, bañan daude guciz engañatuac', 'solamente pecatu mortalac dirade confessatu bear diranac, bañan pecatu venialac ez dirade obligacio onetacoac, bañan beti ere da obe venialac confessatcea' ...

'baicican': Beti esaldiaren erdian, eta inoiz ez 'baizik eta': 'nay izandu ez ceban aitaric izan ceguian lurrean, baicican Ama bacarric', 'nola concebitu ez

ceban guizonaren obraz baicican Espiritu Santuaren obraz'; 'ez ditu orregatican ere Persona bi, baicican bat bacarra, bañan ez persona humanoa, baicican Persona divinoa solamente'. (Esaldi honetan lau aurkaritzako azaltzen zaizkigu katean, zeren 'orregatican ere' aurkaritzakotzat jo behar baita, hots, 'hala ere'ren pare-parekotzat). Hurrengo esaldiok beste zentzu bat dute: 'ecin izan dite beste Criadoreric edo gauzac sortutceco poderioric berez debanic, Jaungoicoa bera baicic', 'Fama ez da besteric, baicican opinio on bat' (= 'Fama opinio on bat besterik/baino ez da') (EGLU IV: 216-219 orr.). (Ikus hurrengo puntuan). Gerrikok: 'baicic'; ZDn: 'baitcican'; Amundarainek bietara: 'baicic/baicican'.

'baicen/baice': 'Baizik'en parekoa: 'ez diradela pecatu mortalac, baicen venialac solamente', 'nola sospecha temerarioac ez debean heritcen inor bere honran, baicen solamente faman'. Aurkaritzako hauxe da gehien erabiltzen duena. Aurreko puntuan esan bezala, beste zentzu batean ere bai, hots, perpauseko elementu ezberdinak (izena, izenondoa, aditza ...) zehazteko, indartzeko: 'naiz arquitcen ez delaric ere impedimentu ori aen bietatic batean baice', 'ez debanean beste pecaturic venialac baicen', 'bat bacarra baicen ez da', 'accidenteac baicen besteric ardoaren gauzaric', 'ecin beregandic quendu dezaquean tentacio ori, Acto oec eguinaz baicen bestela', 'Christo Jaungoico ta guizon eguiazco bat bacarra baicen ez da beste Christoric', 'Eleizaren miembro diraden aentzat baicen ez dago salvaciorican' ... Ia beti 'baicen'i 'besterik/bestela ...' gehitzen dio, indartzeko. ZDn: 'baitce bestela'. (Ikus EGLU III: 15. or. eta EGLU IV: 216-219 orr.).

'badaric ere/badarican ere': Forma zaharkitu hau, egun Ekialdeko euskalkietara mugatzen dena, maiz azaltzen da Doktrinan, 'Hala ere'ren pareko: 'Sospecha ori ez da izango temerarioa, eta ez pecatu ere. Badarican ere gauzaric onena da sospecha gaiztoric iñoren contra ez eguitea', 'Orrembeste erantzutea da vastante edo asco adina zuretzat: badarican ere, nay dizut ...', 'Modu onetan, bada, explicatcen da Misteryo au clarecia gueiagoraco: badarican ere ... ez daduca gente comunac ...' ZDn: 'ala dala ere'.

'orregatican ere': Aurrekoaren pare-parekoa: 'ez leducaque orregatican ere remediorican batere ...', 'Maria Santissimac concebituarren Christo bere sabel virginalean, orregatican ere ez degu esan bear ...' (kontzesibo-kausazko-kontzesibo katea sortuz). ZDn ere: 'orregatican ere'. Ez da 'Hala ere' eta honen aldaerarik azaltzen. (AE 3.10).

6.5. Kontzesiboak

'ba- ... ere': 'asco importaduco balebere (= balu ere) memoriaz icastea', 'ez badebere (= ez badu ere)', 'gueroz suertatu bacitzacon ere', 'guizon guciac concebitcen eta jayotcen badira ere aitagandic eta amagandic, eta orregatic beragatic guelditcen ez bada ere ama doncella, edo virgindadearequin ...'.

'partizipioa + arren/arren ere': 'obligaciorican ez izanarren', 'ezagutuarren edo icasiarren', 'iru Persona aec distinta edo diferenteac izan arren', 'irurac izanarren Jaungoico eguiazco bacar bat'; 'jateco gauzac izanarren ere', 'gogora etorriarren ere' ...

'participioa + -agatic ere': 'gogora etorriagatican ere', 'murmuratuagatican ere' ...

'-laric ere': 'naiz arquitcen ez dalaric ere', 'au onela dalaric ere', 'memoriaz icastera obligatcen ez zaitualarican ere', Virgina Maria aurdun guertatu zalarican ere' ...

'nahiz': 'naiz iñor favorecitceagatic' ... Baina ia beti kontzesiboko beste menderagailuren bat gehiago erantsita ('arren, ba- ere, -laric ere'): 'naiz gurasoen obedimentucoa ez izanarren', 'naiz cumplitcen ez bada ere', 'naiz guciz graveac edo mortalac badira ere', 'naiz arquitcen ez dalaric ere' ... (AE 3.13.).

6.6. Helburuzkoak

Forma ugari: Aditz subjuntiboaz: ' ... iduqui dezaten ezaguturic, eta jaquinic ...', 'digno izan gaitecen merecitceco'; Aditz-izenaz ('-tera, -teko, -tearren, -teagatik'): 'Jaungoicoa ezagutceco, amatceco, servitceco, eta guero beste vicitza fin bagueco artan beraren Magestade Divina ecusteco, eta gozatceco', 'Pueblo onetaco Aurray iracasteco'; 'viciac eta illac juzgatcera'; 'onay ematera gloria'; 'gu salvatcearren', 'euren ignorantciatic ateratcearren'; 'Cergatican Christo guizon eguin zan? Gu redimitceagatic, Libratu eta rescatatceagatic ... eta salvatu guindecen'. (Galdekaria kausazkoa, eta erantzuna helburuzkoa).

'Certaco Jaungoicoac criatu ceban guizona?' (Eta ez 'zertarako').

'Eutci cigon Crutceari virtute andia gueure defensaraco, eta amparoraco' ... 'Bere animaren salvacioraraco'. (Eta ez 'salbaziorako'). (Ikus Aditz-izenaren azpiatalean). (AE 3.16.).

6.7. Kausazkoak

Doktrinan ez da '-lako' menderagailua azaltzen. ZDn ere ez. Amundarainek, oso bakan.

'Zergatik' galdekaria, klasiko askok ez bezala, galdera-perpausetan bakarbakarrik erabiltzen du, inoiz ez kausazko menderagailu gisa. Amundarainek ere oso bakan. ZDn, haatik, menderagailu hau besterik ez da azaltzen.

'aditz-izena + -agatik': 'Cergatican Christo guizon eguin zan? Gu redimitceagatic, libratu, eta rescatatceagatic gueuren pecatuetatic, eta salvatu guindecen'. (Kausazkoa baino areago, helburuzkoa da).

Motibatibo-kasuan: 'Irurac dabeela naturaleza divina bat, eta argatican dira-

dela Jaungoico bat bacarra', '... eta orregatican deritza egun ari, Juycioco eguna' ...

'...-nez/-nez gero': 'duda artan irten zanaz ...', 'bada deseatcen dezun azquero jaquitea eta ezagutcea ...', 'ajustadu ciraden azquero soldatan ...'. Beraz, 'adizki laguntzailea + n + azquero (= ezkero)'.

'nola ... -n': Egitura trakets samarra omen da, erdarakada, zenbaiten ustez: 'Nola concebitu ez ceban guizonaren obraz, baicican ...', 'eta nola ez dan Jaungoicoaren poderioarentzat imposibleric ...'. 'Nola + bada': 'Eta nola tempora orretan Christoc artu ez ceban ..., bada personalidade humanoa eta humanidadea dirade gauza bi diferenteac ...'. 'Cerren + nola': 'Cerren, nola gucietan arquitcen dan ..., eguiten debe guciac juntu'. 'Bada + nola + argatican': 'Espiritu Santuac, bada nola berac deban naturalezatic ... ez ceban eguin Jaungoicoaren Semearen corputza ..., argatican ez deritza ...'. Menderagailu eta lokailu-pilaketa hau, kausazko perpausetan ez ezik, beste egitura-mota batzuetan ere oso normala da gaur egun ere, hizkuntza mintzatuan bederen.

'bada': Egun, gehienbat, ondoriozko lokailu gisa erabiltzen duguna Otxoa Arinek, klasiko guztiek bezala, kausazko perpausak eratzeko ere etengabe erabiltzen du: 'Jaungoicoa Salvadorea da? Bai, jauna, bada ematen digu gueure salvacioraco bere gracia', 'Esan eguiztzu Sacramentuac, bada guchienaz jaquin bear dituzu recebitcera obligaturic zauden aec' ... (EGLU III: 187-192 orr.).

'cerren/ceren': Hauxe da gehien erabiltzen duen lokailua; batzuen iritzira, erdarakada baina!: ' ... onay ematera gloria, cerren beraren Mandamentu Santuac guardatu cituen; eta gaiztoay pena seculacoa, cerren beraren Mandamentu Santuac guardatu ez cituen', 'Cergatic? Cerren dan Crutzea Christo Crucificatuaren figura edo ichura', 'Nay dituzu jaquin ...? Bay, Jauna: cerren badaquit bestela ecin salvatuco naizana', 'ezer ezetic eguin cituan gauza guciac, cerren leen ez ciraden gauza aey eman cien izana edo naturaleza', 'Eman graciac aren Magestadeari, cerren eguin dion ain beneficio andia', 'confessatcen naitzaco, cerren pecatu eguin dedan guciz andiro'; 'Bienaventuraduac negarrez daudenac, cerren eurac izango dira consolatuac', 'Paternosterra esanaz, cerren oracio onetan escatcen diogu Jaungoicoari ...'. 'Ceren' behin edo behin baino ez da azaltzen: 'Nola da Jaungoicoa guztiz poderosoa? Ceren bere vorondate, edo nay divinoaz, beste gabe eguiten deban nay deban gucia'. Kausazko adizkia batzuetan 'gorri' lagatzen du, hots, inolako atzizkirik gabe, baina gehienetan '-n' eransten dio (EGLU III: 177-182 orr.)[1]. (AE 3.12.).

[1] Besteak beste, Xabier Altzibarren iruzkina: Lakarra 1992: 359. or.: Autore klasikoen adibide-multzoa eskaintzen digu.

6.8. Ondoriozkoak

'bada': 'Artu eguizu, bada, Crutce Santuarequin devocio andia', 'Galdetcen zayo, bada, Christauvari ...', 'Nola, bada, ori orrela?', 'Orregatican, bada, dijoaz emen escribituric ...', 'Mandamentu onen contra eguiten da, bada, pecatu ...', 'Dirade, bada, bata besteagandic diferente ...'. (Ez da 'ba' aldaerarik azaltzen).

'beraz': 'Beraz, milla persona comulgatcen diraden horduan ...', 'Beraz, Christo Juez justua da?', 'Beraz, Sacramentu Baptisteriocoa da miseria orien guztien remedioa?' ... Aurreko Galdera-erantzunetan azaldutakoa azpimarratzeko eta zehazteko, alegia.

'hain ... nola ...': ' ... ain cobru charrean, nola beraren causaz ...', 'unituric ain modu maravillosoan, nola gure mingañac ecin explicatu leiquean ...' ... Honela osatutako perpausek konparazio-kutsua ere badutenez, ikus adibide gehiago atal horretan.

Erakusleekin: ' ... eta ala, onac juango dirade ..., eta ala gaiztoac juango dirade ...', ' ... eta ala itz onetan iracasten zacuna da ...', ' ... eta ala guelditu ciraden bereala ...', ' ... eta ala, ondo confessatcen degu ...'. Baita: ' ... onela, bada, Christo Jaungoicoa dan partearren ...', 'Modu onetan, bada, explicatcen da ...', 'onegatic bada ...'; 'orrembestez ...' ... (AE 3.17.).

6.9. Baldintzazkoak

Forma ugari: Alegiazkoak, ez-alegiazkoak, etab. 'Baldin' partikula ere erabiltzen du.

'albait/albaitere (= ahal bada)'.

'-z gero': Gehienek denbora-zentzua ere badute. Ikus hurrengo puntuan. (AE 3.7.).

6.10. Denborazkoak

'-z gero': 'arraiz quero (= harrezkero)', 'efectuadu azquero', 'eguin azquero', 'oguei eta bat urte cumplidu citzaizcon azquero', 'ofenditu azquero bere proximoa', 'jayo azquero ere beti' ... (Ikus kausazkoak: hauetan ere 'azquero' erabiltzen du; baina adizki laguntzailea jokatua eta '-n' menderagailua erantsita. Denborazkoetan, aldiz, bi aldaera azaltzen dira: 'partizipioa + azquero' eta 'adizkia + -n + azquero'). ZDn: 'etorriezquero', 'eguin ezquero' ....

Erlatibozkoak: 'bere conciencia examinatu debanean', 'destierru onetatic irteten degunean', 'Modu orretan ciñatcen ceradenean', 'becoquian, auban, bularrean eguiten diranean Crutceac, eta aizquenengo modu orretara escu osoarequin Crutcea eguiten danean, itz Santu oriec esanaz batean ...'. 'Uso razoezcora datocen temporan'. 'Christo il zanetic cembatgarren egunean?', 'aditcera ematen

zayonetic obligacio au debana'. 'uso razoezcora datorrenean bereala'. ' aruntza aguertu zanean bertatic ...'.

Beste forma batzuk: Konparaziozkoak: 'Christo jayo baño leen'. Aditz-izenarekin: 'jayotcean'. Partizipioarekin: 'itz santu oriec esanaz batean' ... (AE 3.14.).

6.11. Lekuzkoak

Erlatibozkoak dira, jakina: 'Infernua da lecu arrigarri bat, nun demonio guciac dauden', ' ... napur biren erdian ifeniric, nun bere vicia emanaz gañera, ijuri izan ceban ...', 'Limboa deitcen citzaion lecura, nun arquitcen ciraden ...'; 'Crutcea da Christo Crucificatuaren figura edo ichura, ceñean redimitu guinduzan ...' ('ceñean': singularrean, eta ez mugagabean). Lotura gisa, bada, izenordain galdetzaileak erabiltzen ditu. (Ikus hurrengo puntuan).

6.12. Erlatiboak

Erlatibozko esaldia bere erreferentziako izenaren aurretik. Izenordain erlatiboaren osteko izena agerian nahiz ezabatua egon daiteke, kasu honetan adizkiaren '-n' menderagailua deklinatu egiten delarik: 'pecatuaren mortaldasuna aciago eguiten debean circunstancia aenic', 'Jaungoicoa ofenditu deban guciaz damu izan ...', 'Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itceguitendan moduan', 'Cartilla onetan arquitcen dan Doctrina, da guchienaz persona bacoitzac bere animaren salvacioraraco jaquin bear debana, eta iracatsi bear zatena aurray, oec uso razoezcora datocen temporan', 'Bienaventuraduac pobrecea escogitcen debeanac' ...

Erlatibozko perpaus txertatua, posposizio gisa, izenburuaren atzean: 'Verbo Eternoa, leen solamente Jaungoicoa zana ...', 'Espiritu Santuac, Aitarequin eta Semearequin igualmente Jaungoico bat bera danac ...', 'gloria beti iraungo debana gozatcera', 'disposicio bear zana bague', 'Aita gueurea, Ceruetan zaudena ...'. Erlatiboak eratzeko modu txit arrunta hauxe, zenbaiten gustukoa ez izan arren; gogoan izan, bestela, gaur egun ere 'Gure Aita, Zeruetan zerana' esaten dela.

'zein' izenordain galdetzailea, lotura gisa, tartekatuz. Izenordaina mugatuan deklinatua (inoiz ez mugagabean). Erlatiboko adizkiari '-n' menderagailua eransten dio ia beti: 'Jaungoico eguiazco bacar bat; ceña dan ...', 'JesuChristo, gueure Jaunagan. Ceña concebitu zan ...', 'Ematen ere dio gracia, ceñac garbitcen dion anima', 'pecatua, ceñarequin jayotcen gueraden ...', 'opinio on bat, ceñean daducagun gueren proximoa' ... Edota pluralean: 'zazpi pecatu capitalac, ceñai deitcen zaizten pecatu mortalac', 'casu batzuec, ceñetan arquitu liitean penitentea', 'persona aec guciac, ceñeac leen izan debean ...', 'pregunta aec, ceñac digeacen eguinican ...', 'regla aez campora, ceñac arquitcen diraden ...'. Behin edo

behin, adizkiari '-n' menderagailua ezarri gabe: 'Sacerdoteac daducan Hostia, ceña da legamia', 'Sacramentu Eucharistiacoa, ceñari deitcen diogu Comunioco Sacramentu Santua ...'. Hauxe da erlatibozko perpausak eraikitzeko, Otxoa Arinek ez ezik, gure klasiko gehienek erabiltzen duten formarik arruntena, ohikoena; hainbat garbizalek erdarakadatzat jotzen badute ere. ZDn ere berdin: 'zein/nun ... + n/- n.

Forma gogor antzeko batzuk ere bai: 'Escuieco escuaren beatz andiari arrimatcen zayo urreneco beatza inclinaturic, edo macurturic, ceñaz guelditcen diraden beatz biac Crutcearen figura, edo ichura eguinic' (= 'ceñaz' izenordainak aurreko perpaus osoari, bere osotasunean, egiten dio erreferentzia, eta ez izensintagma bati; beraz, 'ceñaz' = 'honela geldituz/gelditurik/gelditzen direlarik ... ' edota 'ekintza honen bidez geldituz ...'. Moduzko perpausa da, jakina). 'Jaungoicoaren presencia eder artatic betico remedioric bague, apartaturic, edo urteguiric, ceña izango dan pena ta tormentu guztien artean andiena'. (Kasu honetan ere 'ceña' izenordainak bere aurreko perpaus oso-osoari egiten dio erreferentzia: 'ceña' = 'eta (egoera) hura izango da ...'). ' ... naturaleza divinoa Eternidadetic, ceñaz dan Jaungoico eguiazcoa' ('ceñaz = horregatik/hori dela eta ...').

Hona hemen esalditxo bat erlatibo-mota ezberdinekoz paratua: 'Pecatu mortala da imaginatu al ditean gaitcican andiena, quentcen diguna gueuren animaren vicitza, ceña dan gracia, Jaungoicoaren etsai mortal eguiten gaituana ...'. (AE 3.5.).

6.13. Zehar-galderak

Gaur egun bezalaxe: 'Yracasten zayo Christauvari nori zor dion bere Christautasuna, norgandic artu ceban Christauvaren izena, cer essan nay deban icen onec, cer dan Christautasuna, edo Christau izatea, certaraco Jaungoicoac criatu ceban guizona, eta cein dan Christauvaren señalea edo insignia', ' ... Lau gauza: leenena, jaquin bear deu, cer sinistu: bigarrena, cer oracio eguin: irugarrena, cer obra eguin, eta laugarrena cer recebitu bear deban' ... (AE 3.6.).

6.14. Konpletiboak

Baiezko perpausak: '-la' nahiz '-na' menderagailuaz: 'Leenengoa da sinistea Jaungoico guciz poderoso bacar bategan. Bigarrena sinistea Aita dana. Yrugarrena sinistea Semea dana. Laugarrena sinistea Espiritu Santua dana ... Criadorea dana ... Salvadorea dana ...!, 'Confessatcen degu Trinidade Santuco leenengo Persona dala Aita, bigarren Persona dala Semea, irugarren Persona dala Espiritu Santua ...'. 'Confesatu, confiatu, suponitu, uste izan, iritci, juzgatu, entzutera eman, iracatsi, aguindu, dudatu, esan, juicio eguin ...' aditzekin: '-la'.

'Sinistu, jaquin, ezagutua izan, ezagun izan, ezagutu, gauza aguiria izan, eguia izan, aditcera eman ...' aditzekin, aldiz: '-na'. (ZDn ere bi menderagailuak azaltzen dira, baina era nahasiagoan; adibidez, 'sinistu' aditzarekin '-la' eta '-na' biak erabiltzen dira).

Ezezko perpausak: '-la' nahiz '-nik' menderagailuaz: 'Batzuec ez debe sinisten eguiten danic pecatu mortalic; beste batzuei ez deritzoe dala pecatu mortal', 'Ez degu esan bear JesuChristoren Aita Espiritu Santua dala'. Segidako hau ere ezezko perpausen artean kokatu behar dugu: 'Pentsatu bague edo ezagutu bague pecatu zanic'. Ezezkoetan ere, baiezkoetan bezalaxe, 'iritci, esan ...' aditzekin: '-la'; 'sinistu, ezagutu ...'rekin, berriz, '-nik' [2].

'ezen': Erdal kutsuko (?) lotura edo mendeko perpausaren sarrera hau ere, gure autore zahar guztiek bezalaxe, etengabe erabiltzen du Otxoa Arinek; bestalde, egun ere usu erabili ohi dena ('ze'), zenbait garbizaleren oso gustukoa ez izan arren. Mendeko adizkiari '-la' eransten dio, jakina: 'Esaten debe Theologoen artean batzuec ecen pecatu mortalac diradela, eta beste batzuec defenditcen debe ecen ez diradela', 'emendic ezagutu daique Christauvac ecen ez solamente bear debala procuratu, baicican ...', 'juycio eguinaz, ecen ... gueiago mereci debeala ...', 'Onez ostean, emen entzutera ematen dan gauza da, ecen ... bastante, edo asco dan adimbat izango dala ...', 'itz onetan iracasten zacuna da, ecen, Christoc ... debala ...' ...

Ondorengo esaldi hau konparaziozkoa da, konpletiboa baino areago: 'nayago izanaz neure vicia ta beste gauza guciac galdutcea leenago, ecen ez ofenditu aren Magestadea ... (= nahiago izanez neure bizia galtzea haren Maiestatea ofenditzea baino)' [3].

Subjuntiboko konpletiboak ere erabiltzen ditu, jakina, 'nahi izan, eskatu, esan, agindu ...' aditzekin: 'Leenengo Mandamentuac aguintcen digu, Jaungoicoa amatu, eta honratu daigula ...' ... (AE 3.4.).

6.15. -lako(an)

Izenlagunezko perpausak: 'inorc eguiten badeb gauzaren bat pecatu dalaco ustean edo iritcian', 'an secreto andiren bat datorrelaco ustean' ... (Ikus 4. atalean 4.8. puntuan).

6.16. -la(rik)

---

[2] Arazo honetaz, ikus, besteak beste, Goenaga 1980: 273-276 orr.

[3] Besteak beste, Villasante 1979 "Sintaxis de la oración compuesta": 51-52 orr.

Moduzko, denborazko, kausazko ... perpausak eratzeko, aditz laguntzaileari '-la/-larik' erantsiz, (hizkuntza erromanikoetako gerundioen parekoak): 'eta figura artan daudela, eguiten ditut iru Crutz', 'penitencia cumplidu ceiquealaric, eutci ote deban cumplidu bague', 'escuieco escu gucia becoquitic eratsitcen dedala bularraren azpiraño, eta pasatcen dedala ...' ...

6.17. Aditz-izena

Perpaus eta esapide ezberdinak eraikitzeko. Zenbait ñabardura:

Aditz-izenaren amaierako '-e', maiz, luzatu egiten du: 'artceen, galtceen/galtceeco, quentceen ...'. Halaber, 'edaateco ...'.

'-tea': 'asco importaduco baleberé memoriaz icastea', 'bastante izango dala jaquitea', 'Leenengo Mandamentuac aguintcen digu, Jay ta Festa egunetan, Meza osotoro entzutea', 'Cer da Christau izatea?' ...

'-teari': 'Nola deriza Crutcearen señaleac eguiteari?' ...

'-teaz': 'bularraren azpiraño escua jauchitceaz confessatcen degu' ...

'-ten': 'tentacioan erorten eutci ez gaizatzula' ...

'-tean': 'daude Mandamentu bitan enzerraturic: Jaungoicoa amatcean, eta servitcean gauza gucien gañean; eta gueure proximoa gueren buruac becela servitcean, eta amatcean' ...

'-tera': 'viciac eta illac juzgatcera', 'Cembat gauza jaquitera dago obligaturic?', 'Ez daduca Misteryo au icastera eta jaquitera obligacioric', 'comulgatcera daducagu obligacioa' ('ikasteko, jakiteko, komulgatzeko' esan ohi dugu egun), 'jatera eman', 'edaatera eman' ('jaten, edaten'), 'Emendic gatoz ezagutcera ...' ('Hemendik/Honela ezagutzen/ezagutuko dugu').

'-terako': 'obra onac eguiteraco cuidadua', 'pecatu eguiteraco ocasioan vici ote dan', 'Doctrina Christiana jaquiteraco obligacioa', 'Meza entzuteraco obligacioa', 'restituitceraco obligacioa', 'aita izateraco ez da asco edo bastante edocein moduz gauza bat eguitea' ... Honelako adibideak ugari dira Doktrinan. Egun '-teko' erabili ohi dugu. Otxoa Arinek berak ere: 'satisfacitceraco obligacioaz gañera, daduca dañuac ere satisfacitceco obligacioa'. '-terako' eta '-teko', beraz, nahasian erabiltzen ditu, eta biak zentzu berean. ZDn ere berdin: 'aita izateraco ez da bastante edocein moduz gauza bat eguitea'.

'-terakotz': 'Ez dirade confessatu bear contuac eta historiac pecatua eguiteracotz passatu ciranac'. (Denborazko zentzua du, ez kausazkoa: 'egitean/egiterakoan'). (Antzeko beste adibide bat 4. atalean jaso dugu).

'-ren + aditz-izena': 'Honra restituitceco da solamente barcacioaren escatcea'. 4. atalean ere aipatu dugun egitura mota hau Ekialdeko euskalkietakoa da.

6.18. Partizipioa

Perpaus eta esapide-mota ezberdinak eratzeko: 'iduqui dezaten ezaguturic eta jaquinic', 'ez da cer escatu', 'pregunta aec ceñac digeacen eguinican ...', 'santificatua izanbidi ceure icena', 'Ave Maria graciaz betea', 'izandu zan crucificatua, illa, eta sepultatua', 'daude Mandamentu bitan encerraturic', 'JesuChristoc berac instituiduric', 'Señora ab izanic Virgina', 'itz santu oriec esanaz batean', 'leenengo crutcea becoquian eguinaz', 'solo bere vorondateaz edo nay izanaz beste bague', 'an bere escuac eta oñac ilceaquin josiric, eta napur biren erdian ifeniric' ... . (Ez dugu '-ta', ez '-tako' aldaerarik aurkitu). (AE 2.2.11.).

6.19. Konparaziozkoak eta graduatzaileak

'gauzaric onena eta seguroena', 'Jesu Christoc artu ceban instrumenturic principalena', 'pena eta tormentu guztien artean andiena', 'confessatcen ditugu gueure Fede Santuco Misteryo aetan principalenac' ...

'pecatuaren mortaldasuna aciago eguiten debean circunstanciac', 'Santu guciac eguin cituzten penitencia guztiac baño andiagoac', 'eraman ote deban bear deban salarioa baño gueyago', 'haciendaz conforme galdu cezaqueten baño cantidade gueyago', 'Santu eta Santa guciac gozatcen debean baño gloria gueyago', 'clarecia eta noticia gueyagoraco', 'tempora gucia baño ere leenagotic' ...

'Jaungoicoa beraren Magestadea dan becin ona' ...

'bear dan becelacoa izan didin' ...

